

38/1992 Legea, abenduaren 28koa, Zerga Bereziei buruzkoa (EAO Abenduaren 29koa)

ESPAINIAKO ERREGE JUAN CARLOS I.a

Hau ikusi eta ulertzen duzuen guztiok

Jakin ezazue: Gorte Nagusiek honako lege hau onetsi dute eta nik berretsi egin dut:

ZIOEN ADIERAZPENA

1. Arauaren beharra.

Europako Ekonomi Elkartea barne merkatu legez eratu izanak, Europako Agiri Bakunean ezartzen zenez, merkatugaien zirkulazio askatasuna dakar, besteak beste, barne mugak igarotzearen ondoriozko kontrolak jasan behar izan gabe; horrenbestez, zeharkako zergapenaren aldakuntza sakona egin behar da, zeren eta zergapen hori, elkartebarneko zirkulazioari dagokionez, mugetan doikuntza fiskalak egitean hain zuzen oinarritzen baitzen.

Aldakuntza honek fabrikazioaren gaineko zerga bereziak ukitzen ditu; zerga hauek, Balio Erantsiaren gaineko Zergarekin batera, zeharkako zergapenaren oinarritzko figurak dira eta kontsumo berezien gaineko zerga legez eratzen dira, ondasun jakin batzuen kontsumoa kargatzen dutela, BEZak, zerga orokorra den aldetik, kargatzen duenaz gainera. Zergapen bikoitz honen arrazoia dugu, zerga hauen gai diren ondasunen kontsumoak gizarte-kostu batzuk sortzen dituztela; izan ere, kostu hauek, haien prezio pribatuak finkatzerakoan kontutan hartzen ez direnak, kontsumitzaileek ordaindu behar dituzte kontsumo hauek modu selektiboan kargatzen dituen zergapen berezi baten bitartez, hots, zergabilketa eginkizunaz gainera, osasun, energia, garraio, ingurugiro eta abarren alorretako politiketarako tresna gisa, zergaz kanpoko helburua betetzen duen zergapen berezi baten bitartez.

Zeharkako zergapena Europar Elkartek hartu duen mugarik gabeko gune gisako erakuntza berriari egokitze hori Estatu kide guztientzako era harmonizatuan gertatu behar da, elkarlehiaren bihurdurak gerta ez daitezen, elkartearen beste politika batzuekiko eraginak kontrolatu eta zergak kontsumoa gertatzen deneko Estatuetan bildu ahal izan daitezen.

Aurrekoaren guztiaren ondorioz, hainbat Zuzentarau onetsi dira, lehendik egon eta behar bezala aldatuak izan diren 72/464/EEE eta 79/32/EEE direlakoekin, Elkartearen mailan Zerga Berezien ziozko zergapenaren behin betiko markoa osatzen dutenak. Zehazki, honako hauek dira xedapenok:

- Kontseiluaren 1992ko otsailaren 25eko 92/12/EEE Zuzentaraua, zerga berezien gai diren ekoizkinen araubide orokor, edukitza, zirkulazio eta kontrolei buruzkoa.
- Kontseiluaren 1992ko urriaren 19ko 92/83/EEE Zuzentaraua, alkoholduen edarien eta alkoholaren gaineko zerga berezien egituren harmonizazioari buruzkoa.
- Kontseiluaren 1992ko urriaren 19ko 92/84/EEE Zuzentaraua, alkoholduen edarien eta alkoholaren gaineko zerga berezien zerga-tasak hurreratzeari buruzkoa.
- Kontseiluaren 1992ko urriaren 19ko 92/81/EEE Zuzentaraua, hidrokarburoen gaineko zerga bereziaren egituren harmonizazioari buruzkoa.
- Kontseiluaren 1992ko urriaren 19ko 92/82/EEE Zuzentaraua, hidrokarburoen gaineko zerga bereziaren zerga-tasak hurreratzeari buruzkoa.

- Kontseiluaren 1972ko abenduaren 19ko 72/464/EEE Zuzentaraua, negozioaren kopuruaren gaineko zergaz bestelakoak izan eta tabako moten kontsumoa kargatzen duten zergei buruzkoa.
- Kontseiluaren 1978ko abenduaren 18ko 79/32/EEE Zuzentaraua, negozioaren kopuruaren gaineko zergaz bestelakoak izan eta tabako moten kontsumoa kargatzen duten zergei buruzkoa.
- Kontseiluaren 1992ko urriaren 19ko 92/78/EEE Zuzentaraua, negozioaren kopuruaren gaineko zergaz bestelakoak izan eta tabako moten kontsumoa kargatzen duten zergei buruzko 72/464/EEE eta 79/32/EEE zuzentaruak aldatzen dituena.
- Kontseiluaren 1992ko urriaren 19ko 92/79/EEE Zuzentaraua, zigarrotxoaren gaineko zerga bereziaren tasak hurreratzeari buruzkoa.
- Kontseiluaren 1992ko urriaren 19ko 92/80/EEE Zuzentaraua, zigarrotxoez bestelako tabako moten gaineko zerga bereziaren tasak hurreratzeari buruzkoa.

Aipatu zuzentaruak abenduaren 23ko 45/1985 Legearekiko dakartzaten aldakuntza sakonek aholkatu egiten dute zeharkako zergapenaren alde honi buruzko lege berri bat aldarrikatzea, elkartearen arautegi berriari egokitua eta, ahal den neurrian gaurko egitura errespetatuz, esperientziak agerian jarri dituen hobekuntza guztiak sartzen dituena, zerga hauen kudeaketak ukitutako sektoreetan ahalbait zeharkako kostu gutxien gertarazteko xedez, kudeaketaren eraginkortasuna bermatzeaz gainera.

2. Aplikazio eremua.

Lege honek zerga berezien multzoa araupetzen du; multzo hau osatzen dute, batetik, eta elkartearen xedapen harmonizatzaileen arabera, hidrokarburu, alkohol, edari alkoholdu eta tabako moten kontsumoa kargatzen duten fabrikazioaren gaineko zerga bereziak eta, bestetik, ibilgailuen matrikulazioa dela-eta eskatuko den beste zerga berezi batek. Fabrikazioaren gaineko zerga berezi horiek nahitaez ezarri behar dira elkarte mailan, baina hori ez da oztopo izango zenbait zerbitzugintzen gaineko beste karga batzuk sartzeko, baldin eta negozioaren kopuruaren gaineko zergaren izaera ez izan eta, elkartebarneko merkataritzan, muga-igarotzearekiko formalitateak gertarazten ez badituzte. Beste Estatu kide batzuetan bezala, egoki iritzia izan da ibilgailuen gaineko zerga bat ezartzea, hau da, elkarte mailan eskatzen diren baldintzak betez, Balio Erantsiaren Zergan tasa gehitua desagertzeak dakarren zergabilketaren galera eta haren erabilerak osasun, bide zirkulazio, azpiegitura eta ingurugiro alorretan dakartzan gizarte kostuak konpentsatzen dituen zerga bat.

Legearen aplikazioaren lurralde-eremuari dagokionez, indarrean sartu baino lehen zerga berezietako bakoitzerako zegoenari eutsi zaio. Fabrikazioaren gaineko zerga berezietan dagokienez, Ceuta eta Melilla elkartearen zerga eta aduanazko esparrutik kanpo uzteak eta Kanariar irle esparru horretan ezin eusteak, penintsulako eta Balear uharteetako bestelako tasak dituztela, ez dute lurralde horietatik edo lurralde horietarako egindako eragiketarik elkartebarneko zirkulazio sistemari integrazteko biderik ematen; beraz, Legearen aplikazioa, Kanarietan, Ceuta eta Melillan, elkartearen zuzentarueta harmonizaturiko arauaren izaerarik gabe egiten da, eta horrek, bere aldetik, lurralde horien eta penintsula eta Balear uharten edo gainerako Estatu kideen artean egindako eragiketen erregulazio berezia eskatzen du.

3. Fabrikazioaren gaineko zerga bereziak.

Fabrikazioaren gaineko zerga bereziak zeharkako zergak dira eta zerga hauetako bakoitzaren eremu objektiboan zehazten diren ondasunen kontsumoaren gainera erortzen dira, beren fabrikazioa edo beren inportazioa, elkartearen lurralde eremuaren barruan, fase bakarren kargatzen dutela. Eremu objektibo hau zehazteko, nomenklatura konbinatuaren erreferentziak erabiltzen dira, eta hauek, zuzentaru markoaren arabera, 1993ko urtarrilaren 1ean indarrekoa zen nomenklatura horren testuan ageri direnak izan behar dira.

Ondasunak araubide etengarrian egon daitezke ekoiztuak direneko fabrikatik edo biltegitzen diren gordailu fiskaletik irteten ez diren bitartean, bai eta fabrika eta gordailu fiskalen arteko garraio bitartean ere, garraio hori Estatu kide ezberdinetatik badoa ere; araubide etengarri hau egoteak galarazi egiten du zerga egitatea gertatzen den unearen eta kontsumora jartzen den unearen arteko aldi-desfasearen ondoriozko finantza kostuak agertzea. Halaber, posible egiten da zenbait jardulerentzako elkartebarneko zirkulazioa araubide etengarrian egitea, elkarteko beste Estatu batzuetan eskurapen askatasuna ahalbait handiena izan dadin. Helburu berberarekin, baimendu egiten da fabrikazioaren gaineko zerga berezien gai diren ekoizkinen elkartebarneko zirkulazioa, ekoizkin horien ziozko zerga Estatu kide batean ordaindua denean, destinoko Estatuan kargatuz eta Estatu igorlean itzulketa egitea baimenduz. Zergaren sortzapena araubide etengarria amaitzerakoan gertatuko da, aplikazioko barne lurralde-eremuaren barruan, edo zerga ordaindua duten ekoizkinak beste estatu batean jasotzerakoan. Zirkuitu hauetatik kanpoko zirkulazio eta edukitza, zerga Espainian ordaindu izana egiaztatu gabe, norbanakoek beren kontsumorako erabiltzen dituzten ekoizkinena salbu, zerga-urratzea izango da.

Subjektu pasiboek derrigorrez egin behar duten jasanarazpenak nahi den ondorea gertarazten du, hots, karga kontsumitzaileak benetan jasatea. Honetarako, zergen itzulketa xedatzen da, berebat, kontsumo hori gertatzen ez den zenbait izakizunetan, esaterako, ekoizkinen esportazioan edo EEEko beste Estatu kide batera bidaltzean, bai eta zerga batzuentzat ere, ekoizkinak fabrikara edo gordailu fiskalera atzera bidali edo zerga Administrazioaren kontrolpean suntsitzen direnean. Itzulketa egiteko prozedurak arintzeko xedez, behin-behineko likidazioak egiteko baimena ematen da, eskatzaileek aitortuak dituzten egitateak ikuskapen-jarduketan bitartez egiaztatutako izatera itxaron behar gabe.

4. Edari alkoholunen gaineko zergapena.

Zuzentarau harmonizatzaileek bi zerga berezi berri sartzera behartu dute: Ardoaren eta Edari hartzituen gaineko Zerga eta Tarteko Ekoizkinen gaineko Zerga. Lehenengoari dagokionez, ostera, zero zerga-tasa ezartzen da, ardoen eta gainerako edari hartzituen arteko bereizketarik egin gabe, ez eta, kategoria hauetako bakoitzaren barruan, apartsuen eta lasaien arteko bereizketarik ere; izan ere, zergaren ezarpena ardo eta gainerako edari hartzituen ekoizleek elkartebarneko zirkulazio-sistema erabili ahal izatearen xede hutsez egiten da.

Tarteko ekoizkinek, Lege hau indarrean sartu baino lehen, zeukaten alkohol gaineratuagatik ordaintzen zuten zerga. Zerga harmonizatu berriarekin, oinarria izango da ekoizkin amaituaren bolumena, bere alkohol-edukinaren arabera ez eta distilazio edo hartidura bidez lortutako alkohol heinaren arabera bereizketarik egin gabe.

Garagardoaren gaineko Zergan beste epigrafe bat sartzten da, tasa nabarmenki txikiagoa izan eta alkohol edukin urriko garagardoa biltzen duena.

Alkohol eta Edari Eratorrien gaineko Zergari dagokionez, xede du edari eratorrien eran kontsumitzen den alkohola kargatzea; beraz, zergaren egituraketa, beste helburu batzuetarako erabiltzen den alkoholak zergaren salbuespen edo itzulketaren onura jaso ahal izateko moduan egiten da, beti ere kontrola bermatzeko beharrezko eskakizunak betetzen badira, bai alkoholari emango zaion destino zehatza edo alkoholaren aurretiko desnaturalizazioa dela bidez, edarietan ezin erabilizkoa bada ere, ez baita beste helburu batzuetarako erabiltzea eragozten.

Lege testuak beste herri batzuetatik bidaiariak inportaturiko edari alkoholunei dagozkien salbuespenak eta merkataritza izaerarik gabeko bidalketa txikien gai direnenak eransten ditu, elkarte mailan Kontseiluaren maiatzaren 28ko 69/169/EEE eta 1978ko abenduaren 19ko 78/1.035/EEE Zuzentzauren bitartez onetsi zirenez.

5. Hidrokarburoen gaineko Zerga.

Hidrokarburoen gaineko Zerga elkarrean zuzentarau harmonizatzaileetara egokitzeak zergaren eremu objektiboa nabarmenki zabaltzera behartu du, baina horrek ez dakar, alde praktikoan, gaur zergapeturik ez dauden ekoizkinak zergapetzea; zergaren egituraketa juridikoak zergarinketarako bidez ematen du, bai salbuespen bidez bai itzulketa bidez,

karburagai edo erregai bezala erabiltzen ez diren ekoizkinei dagokienez. Beste alde batetik, zerga onuren kopurua era nabarmenean gehitu da lehengo Legean adierazten zirenen aldean; horixe gertatzen da, esaterako, labaingarri gisa erabiltzen diren ekoizkinekin, kabotai nabigazioa egiten duten untzien horniketarekin, elektrizitatea sortzeko edo trenbideen trakzioan, etab. erabiltzen diren erregaiekin.

6. Tabako Moten gaineko Zerga.

Tabako Moten gaineko Zergaren testuak aldaketa gutxi agertzen ditu indargabetzen den Legean biltzen denaren aldean. Gutxitu egin da zergaren gai diren mota kopurua, bere eremutik atera baitira sudurhautsa eta mastekatzeko tabakoa, eta erretzeko tabakoari dagokionez, tabako xeheari tasa bereizia ezarri zaio. Zigarrotxoaren zerga-ordainketa elkarte mailan ezarritako gutxienezko portzentaiari egokitzuz joango da, Lege hau indarrean sartu eta bi urtebeteko aldiaren, eta berezko tabakoaz soilik osatutako zigarroek eta txokortxoek tasa gutxitua izango dute sei urtebeteko aldi batean.

Beste alde batetik, zergaren salbuespen eta itzulketaren izakizun berriak ezarri dira, esaterako, tabako moten desnaturalizazioari eta Zerga Administrazioaren kontrolpeko suntsidurari dagozkienak, eta testuari gaineratu zaizkio Kontseiluaren 69/169/EEE eta 78/1.035/EEE Zuzentzauek, beste herri batzuetatik bidaiariek inportaturiko tabako motetarako eta merkataritza izaerarik gabeko bidalketa txikietarako, onetsitako frankizia fiskalak.

7. Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia.

Zerga honen sorkuntza, hasiera batean, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren harmonizaziotik bertatik dator, honek orain arte zeuden tasa gehituen ezabapena ezartzen baitu. Zenbait ibilgailu eta garraiobide tasa gehitu horri loturik egoteak ez zion soil-soilik erosketan agerian jarritako zerga ordaintzeko gaitasunari erantzuten, bazik eta gehigarriko kontsiderazio bati, hots, haien erabilerak sanitate, azpiegitura edo ingurugiroaren esparruan gizarte-kostu bereziak sortzean zituen inplikazioei. Hortaz, zerga-figura multzo bat artikulatu behar da, elkartearen zehaztapenen barruan, garraiobide hauen gainean gaurkoaren pareko presio fiskalari eusteko.

Horrela sortzen da Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia. Kudeaketaren sinpletasuna da zerga honen ezaugarri behinena, bere autolikidazioa Espainian garraiobideen lehenengo matrikulazioa egiteari loturik baitago, garraiobide horiek bertan fabrikatuak zein inportatuak, berriak edo erabiliak izan, eta zerga oinarriaren zehaztapena Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eta «inter vivos» eta «mortis causa» ondare eskualdaketen gaineko zergen balorazio teknikak erabiliz egiten baita.

Zergaren egitura eratzerakoan, gaurko egoerarekiko diferentzia nagusia dugu, batetik, lehen, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kentzeko aukera zegoen enpresa egoeren kontsiderazioa eta, bestetik, jeep motako ibilgailuek zeukaten onura kendu izana, beraien erabilerak funtsezko aldaketa jaso izanaren ondorioz, argi eta garbi turismo-ibilgailu gisa erabiltzera jo baitu, ingurugiroan eragin handia duela; dena dela, aldi iragankor bat aurreikusten da Legeak ezartzen duen egoera berrira arian-arian egokitzen joateko.

Zerga hau Espainia osoan izango da aplikagarria, baina Kanarietan, Ceuta eta Melillan dauden zerga-figura berezietan beharrezko doiketak egiten errazteko, Autonomia erkidego horri eta hiri horiei beren lurralde eremuan zerga honetatik etorritako etekina egotziko zaie.

8. Xedapen iragankorrak.

Lehen Xedapen iragankorrak testuari eransten dio, elkartebarneko bidaiak direla eta, zergarik gabeko dendetan egindako erosketetarako, elkarte mailan, 1999ko ekainaren 30era arte, onartzen den salbuespena.

Bigarren Xedapen iragankorrak posible egiten du Lege honetan ezarritakoaren arabera zerga berezien gai diren ekoizkinak araubide etengarriari lotu ahal izatea, legea indarrean sartu baino lehen fabrikatuak edo inportatuak badira ere.

Hirugarren eta laugarren Xedapen iragankorrak, zerga berezietako edozeinetan, salbuespen eta itzulketaren izakizunen aplikazioari dagokionez, ager daitezkeen arazo zehatzei buruz ari dira. Indargabetzen den arautegiaren arabera, zergarik ordaindu gabe edo itzulketa eskubidea dagoela eskuratutako ekoizkinei dagokienez, zergaren likidazioa eginez edo likidaziorik gabe kontsumitu ahal izango dira, ekoizkinei emango zaien destinoa salbuespena edo itzulketa eskubidea galdu edo mantendu, edo Lege honen arabera araubide etengarrian edukitzeko gai izan ahala.

Legear ezartzen diren salbuespenak berehala aplikatu ahal izateko, prozedura erraztu bat ezartzen da, haren indarraldiko lehen sei hilabeteetan baliozkoa dena; prozedura honetan, lehengo Legearen arabera emandako baimenak erabili ahal izango dira, orduan ere zerga ordaindu gabe jasotzeko eskubidea sortzen zuten izakizunak direnean.

Bosgarren Xedapen iragankorrean Alkohol eta Edari Eratorrien gaineko Zergari buruz biltzen diren xedapenak, aurreko arautegian zegoen alkohol desnaturalizatuaren kategoria bakar batetik, Lege honek, alkohol guztiz edo partzialki desnaturalizatuaren artean egiten duen bereizketara igarotzeak dituen ondorioei buruz, eta alkohol horiek zergaren eremu objektiboan sartzeari buruz ari dira, lehen lotugabeak ziren eragiketak salbuetsi bihurtuz.

Hidrokarburoen gaineko Zergari dagokionez, seigarren Xedapen iragankorrak, B eta C gasolioak kategoria fiskal gisa desagertzeak eta, arauzko trazagailu eta markagailuak bilduz, zehazten diren helburuetara erabiltzen den gasolioari tasa gutxitua aplikatzeak sortzen dituen arazoez arduratzen da. Beste alde batetik, prozedura erraztua ezartzen da, Legear aitortzen dena, untzi eta aireuntzien horniketei salbuespen eta itzulketa onurak aplikatzeko, eta 1993ko uztailaren 1era arte atzeratzen da ekoizkin zehatz batzuei trazagailuak eta markagailuak gaineratu beharra, beren destinoaren arabera ezarritako tasa gutxituak aplikatzeko beharrezko betekizuna denez.

Zazpigarren Xedapen iragankorrak, Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziari buruzkoak, ezarri egiten ditu zerga berri hau Balio Erantsiaren gaineko Zergari doitzeko beharrezko arauak, baliozkotzen ditu zenbait ibilgailutarako 1993ko urtarrilaren 1a baino lehen gertaturiko homologazioak eta iraganaldi bat finkatzen du jeep motako ibilgailuen zerga arian-arian aplikatzeko.

9. Xedapen indargabetzaileak eta azkenak.

Klausula indargabetzaile orokorra ezartzeaz gainera, beren beregi indargabetzen da abenduaren 23ko 45/1985 Legea. Lege berria indarrean sartzea errazteko, gaur egun dauden araudizko arauen indarraldiari eusten zaio, haren aurkakoak edo Europako Ekonomi Elkarteko arauen aurkakoak ez diren heinean, beren ordezkapena egin arte.

Legearren indarrean sartzea 1993ko urtarrilaren 1erako finkatzen da, elkartearen zuzentzarau harmonizatzaileek ezartzen duten bezala.

Azkenik, geroko aurrekontuei buruzko legeei esleitzen zaie Legearren testua marko harmonizatzailea osatzen duten elkartearen zuzentzarau egokiturik mantentzeko eginkizuna, eta, zehazki, pezetatan eta ECUtan, truka neurriaren aldaketen ondorioz, adierazitako moneta-magnitueen arteko korrespondentziari eta erreferentziak nomenklatura konbinatuari egokitzea, zuzentzarau harmonizatzaileetan ageri izan eta nomenklatura horrek 1993ko urtarrilaren 1ean duen bertsioari dagozkion kodeekin koerlazio egokia bermatuz; beste alde batetik, ezartzen denez, aurrekontuei buruzko legeek aldatu ahal izango dituzte, orobat, tarifen egitura, zerga tasak, loturirik ezaren eta salbuespenen izakizunak eta zehapenen zenbatekoa. Hori guztia dela bide, bete egiten da Konstituzioaren 134. artikuluko 7. atalean eskatzen den baldintza.

Lete testuan sartzen dira, azkenik, bigarren Xedapen gehigarriaren eta bigarren Xedapen indargabetzailearen bitartez, Administrazioek eta erakunde publikoek merkataritzako sozietateen sozitatekapitalean duten partaidetzaren izeneko akzioak besterentzeko prozesuetako eragiketen ondoriozko beharriaz erantzuteko bide ematen duten arau-aurreikuspenak.

ATARIKO TITULUA

1. artikulua. Zerga berezien izaera.

1. Zerga bereziek zeharkako izaera dute, kontsumo berezien gainera erortzen dira eta fase bakarrean kargatzen dituzte zenbait ondasunen fabrikazioa —baita fabrikazio irregularra ere—, inportazioa, sarrera irregularra eta, horrela gertatuz gero, barruko lurralde-eremuan sartzea, bai eta zenbait garraiobideren matrikulazioa, energia elektrikoaren hornidura eta ikatza kontsumorako jartzea ere, lege honetako arauekin bat etorritik.
2. Zerga bereziak dira fabrikazioaren gaineko zerga bereziak, elektrizitatearen gaineko zerga berezia, zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia eta ikatzaren gaineko zerga Berezia.

LEHEN TITULUA FABRIKAZIOAREN GAINEKO ZERGA BEREZIAK

LEHEN KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

2. artikulua. Fabrikazioaren gaineko zerga bereziak.

Fabrikazioaren gaineko zerga bereziak dira honako hauek:

1. Ondorengo alkohol eta edari alkoholduen gaineko zerga bereziak:
 - a) Garagardoaren gaineko Zerga.
 - b) Ardoaren eta Edari Hartzituen gaineko Zerga.
 - c) Tarteko Ekoizkinen gaineko Zerga.
 - d) Alkohol eta Edari Eratorrien gaineko Zerga.
2. Hidrokarburoen gaineko Zerga.
3. Tabako Moten gaineko Zerga eta
4. Zigarro elektronikoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen likidoen gaineko zerga.

3. artikulua. Barneko lurralde-eremua.

1. Fabrikazioaren gaineko zerga bereziak espainiar lurralde osoan eskatuko dira, Kanariar uharteetan, Ceutan eta Melillan izan ezik. Alabaina, Lege honetan ezartzen diren baldintzetan, Garagardoaren gaineko Zerga, Tarteko Ekoizkinen gainekoa eta Alkohol eta Edari Eratorrien gainekoa Kanariar uharteetan ere eskatuko dira.
2. Aurreko atalean xedatzen dena nazioarteko hitzarmen eta itunetan ezarritakoaren eta lurraldearen araberrako zerga berezien araubideen kaltetan gabe ulertzen da.

4. artikulua. Kontzeptuak eta definizioak.

Titulu honen ondorioetarako, honakotzat hartuko da:

1. "Barruko lurralde-eremua": Lege honen 3. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik fabrikazioko zerga bereziak eskatuko diren lurraldea.
2. "Barrukoa ez den Europar Batasuneko lurralde-eremua": Europar Batasuneko lurraldea barruko lurralde-eremua kanpo utzita.

3. "Autokontsumoa": Fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuen kontsumo edo erabilera aipatutako produktuak eteteko erregimenean dauden establezimenduen barruan.
4. "Jolaseko abiazio pribatua": Bere jabeak edo erabil dezakeen pertsonak, errentamendu bidez edo beste edozein tituluz, titularitate publikokoa ez den aireontzi bat erabiliz egindakoa, merkataritzakoak ez diren xedeetarako eta, zehazki, bidaiariak edo salgaiak garraiatzearen edo kostu bidez zerbitzuak eskaintzaren bestelako xedeetarako.
5. "Erreferentziako Administrazio Kodea": Kide den Estatuko eskudun agintariak administrazioko dokumentu elektronikoa ematean esleitutako erreferentzia-zenbakia, zirriborroaren datuak balidatutakoan. Kode honen erreferentziak «ARC» siglen bidez egingo dira.
6. "NK kodeak": 1987. urteko uztailaren 23ko 2658/87 zenbakidun Araudiak (EEE) ezarritako nomenklatura konbinatuko kodeak. Fabrikazioko zerga bereziak aplikatzearen eremu objektiboa zehazteko, oro har, aplikagarriak izango dira merkantziak nomenklatura konbinatuan sailkatzeko ezarritako irizpideak eta, zehazki, nomenklatura konbinatua, aipatutako nomenklaturaren sekzio eta kapituluko oharrak, Aduanako Lankidetzaren Kontseiluaren merkantziak izendatu eta kodetzeko sistema bateratuaren azalpen-oharrak, aipatutako Kontseiluak hartutako sailkatzeko irizpideak eta Europar Batasuneko nomenklatura konbinatuaren azalpen-oharrak.

Hala ere, alkoholaren eta edari alkoholodunen gaineko zerga berezietan aipatzen diren NK kodeak Batzordearen 2018/1602 (EB) Betearazpen Erregelamenduan jasotako nomenklatura konbinatuaren kodeei dagozkiela ulertuko da. Erregelamendu horrek Kontseiluaren 2658/87 (EEE) Erregelamenduaren (muga-zergen eta estatistiken nomenklaturari eta aduana-tarifa komunari buruzkoa) I. eranskina aldatzen du. Hidrokarburoen gaineko zergan aipatzen diren NK kodeak Batzordearen 2001eko abuztuaren 6ko 2031/2001 (EE) Erregelamendukoak dira. Erregelamendu horrek Kontseiluaren 2658/87 (EEE) Erregelamenduaren (muga-zergen eta estatistiken nomenklaturari eta aduana-tarifa komunari buruzkoa) I. eranskina aldatzen du.

7. "Baimendutako gordailuzaina": Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 35. artikulua 4. atalak aipatzen duen pertsona edo erakundea, lantegi baten edo zerga-gordailu baten titularra.
8. "Harrerako gordailua": Lantzean behingoa ez den hartzaile erregistratu bat titularra den establezimendua. Bertan, bere ogibidea egiteko eta destinoaren EBko Estatu kideko eskudun agintariak emandako baimena betez, eteteko erregimenean dabilzan zerga berezien xede diren produktuak, EBko beste Estatu batetik datozenak, jaso daitezke.
9. "Gordailu fiskala": Oliobideen edo gasbideen sare bat ezartzea edo instalatzea, non, emandako baimenaren arabera eta araudi bidez ezarririk dauden baldintzak eta beharrezkoak betez, fabrikazio-zerga berezien xede diren produktuak biltegitatu, jaso, eman eta, hala badagokio, etete-erregimen bilakatzen diren.
10. "Hartzaile ziurtatua": Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 35. artikulua 4. atalak aipatzen duen edozein pertsona edo erakunde, helmugako estatu kideko agintari eskudunen aurrean erregistratua, bere ogibidea egiteko, Estatu kide bateko lurraldean kontsumorako bidali diren eta, ondoren, beste Estatu kide bateko lurraldera lekualdatu diren zerga berezietan lotutako produktuak jasotzeko.
11. "Hartzaile erregistratua": Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 35. artikulua 4. atalak aipatzen duen edozein pertsona edo erakunde, bere ogibidea egiteko eta araudian ezarritako baldintzetan, titularra izango den harrerako gordailu batean eteteko erregimenean zirkulatzen diren EBko beste Estatu batetik etorritako produktuak, zerga berezietan lotuta daudenak, jasotzeko baimena duena. Hartzaile erregistratua, araudian ezarritako baldintzak eta eskakizuna betez, lantzean behin bakarrik, eteteko erregimenean, EBko beste estatu batetik etorritako fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuen

espedizio jakin bat jasotzeko bakarrik egongo da baimenduta. Azken kasu honetan, ez da ezinbestean harrerako gordailuaren titularra izango.

12. "Zuzeneko ematea": Eteteko erregimeneko zerga berezien xede diren produktuen zirkulazioa xedeko EBko estatu kideko eskudun agintariek baimendutako zuzenean emateko tokiraino, araudian ezarritako baldintzetan, aipatutako tokia Estatu horretako gordailuzain baimenduak edo hartzaile erregistratuak izendatu badu.
13. "Sarrera irregularra": 952/2013 (EB) Erregelamenduaren 201. artikulua arabera praktika liberako bidalketa-erregimenean sartuta ez dauden produktuak Batasunaren lurraldean sartzea, baldin eta erregelamendu horren 79. artikulua 1. atalaren arabera aduana-zorra hartu badute edo ondasunak aduana-eskubideen mende egon balira hartuko zatekeen zorra hartu badute.
14. "Bidalketa bermatua": Fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuen (hauengatik jatorrizko EBko Estatuan zerga dagoeneko sorrarazita dago) Europar Batasunaren barruko zirkulazioaren prozedura, xedeko EBko Estatuko baimenduko hartzailearentz, barneko lurralde-eremuko harrerei dagokienez 63. artikuluan ezarritako murrizketak eginda, betiere aipatutako produktu horiek saltzaileak edo bere kontura, zuzenean edo zeharka, bidali edo garraiatuak ez badira eta araudian ezarritako baldintzak eta eskakizunak betetzen badira.
15. "Bidaltzaile ziurtatua": Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorren 35. artikulua 4. atalak aipatzen duen edozein pertsona edo erakunde, bidalketako estatu kideko agintari eskudunen aurrean erregistratua, bere ogibidea egiteko, Estatu kide bateko lurraldean kontsumorako bidali diren eta, ondoren, beste Estatu kide bateko lurraldera lekualdatu diren zerga berezietan lotutako produktuak bidaltzeko.
16. "Bidaltzaile erregistratua": Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorren 35. artikulua 4. atalak aipatzen duen edozein pertsona edo erakunde, Estatu kideko inportazioko eskudun agintariek, bere ogibideak egiteko eta aipatutako agintariek finkatutako baldintzetan, eteteko erregimeneko zerga berezien xede diren produktuak igortzera baimenduta dagoena, bere inportazioaren tokitik bakarrik praktika liberako bere bidalketaren momentuan 952/2013 (EB) Erregelamenduaren 201. artikuluekin bat etorritik.
17. "Esportazioa": Fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuak barneko lurralde-eremutik ateratzea Europar Batasuneko lurraldetik kanporantz. Hala ere, ez da esportaziotzat hartuko Europar Batasuneko lurraldetik ibilgailu eta edukiontzi berezietan gordailu normaletan jasotako erregaiak, eta aipatutako esparrutik irteteko bere zirkulazioagatik erabiliak, irtetea.
18. "Lantegia": Emandako baimenari jarraiki, araudian ezarritako baldintza eta eskakizunak daudela, eteteko erregimenean, fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuak atera, fabrikatu, eraldatu, biltegiratu, jaso eta eman ahal daitezkeen establezimendua.
19. "Fabrikazioa": Fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuak ateratzea eta aipatutako produktu horiek beste batzuetatik abiatuta lortzen diren beste edozein prozesu, eraldaketa barne hartuta, artikulua honen 34. atalean definitzen den bezalaxe, hori guztia Lege honen 15. artikulua 3. atalean ezarritakoa baztertu gabe.

Fabrikazio irregularratzat joko da lege honetan eta lege hau garatzeko araudian ezarritako baldintzak bete gabe egiten dena.

20. "Inportazioa": Praktika liberako bidalketa, 952/2013 (EB) Erregelamenduaren 201. artikulua arabera.
21. "Nazioarteko itsas edo aireko nabigazioa": Barneko lurralde-eremutik abiatuta egindakoa eta honetatik kanpo bukatzen dena edo alderantziz. Era berean, nazioarteko itsas nabigaziotzat hartzen da garraioarena ez den industria, merkataritza edo arrantzako jarduera batean aritzen diren itsas zabaleko nabigazioari lotutako itsasontziek egindakoa,

betiere nabigazioaren iraupena, eskalarik gabe, berrogeita zortzi ordu baino handiagoa bada.

22. "Jolaseko nabigazio pribatua": Bere jabeak edo erabil dezakeen pertsonak, errentamendu bidez edo beste edozein tituluz, titularitate publikokoa ez den itsasontzi bat erabiliz egindakoa, merkataritzakoak ez diren xedeetarako eta, zehazki, bidaiariak edo salgaiak garraiatzearen edo kostu bidez zerbitzuak eskaintzaren bestelako xedeetarako.
23. "Hornidurako produktuak": Ontziko hornidurak, erregaiak, lubrifikatzaileak eta erabilera teknikoko gainerako olioak.
24. "Fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuak": Aipatutako zerga horietako bakoitzaren eremu objektiboan jasotako produktuak.
25. "Ontziko hornidurak": Eskifaiako kide eta bidaiarien kontsumora bakarrik zuzendutako produktuak.
26. "Eteteko erregimena": Zerga-araubidea, alegia, zerga bereziak etetea, zerga berezien xede diren produktuak fabrikatzeko, eraldatzeko, edukitzeko, biltegitatzeko edo zirkulatzeko.
27. "Ordezkarik fiskala": Saltzaile batek urrutiko salmenten sistemaren barruan izendatutako pertsona edo erakundea, Europar Batasuneko beste Estatu kide batean ezarritakoa eta Espainiako Zerga Administrazioak baimendutakoa, araudian ezarritako eskakizunak aurretik beteta, ordezkatzen duen saltzaileak igorritako produktuei dagozkien fabrikazioko zerga berezien ordainketa bermatzeko, bai eta ondoren egiteko ere, urrutiko saltzailearen ordez.
28. "Hirugarren herria": Ituna aplikatzen ez den Estatu edo lurralde oro.
29. "Hirugarren lurraldea":
 - a) Batasuneko aduana-lurraldean dauden lurralde hauek:
 1. Espainiako Erresuman: Kanariar Uharteak.
 2. Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Ituneko 349. eta 355. artikuluetako 1. atalean aipatutako Frantziako lurraldeak.
 3. Finlandiako Errepublikan: Aland uharteak.
 - b) Batasuneko aduana-lurraldean ez dauden lurralde hauek:
 1. Alemaniako Errepublika Federalean: Heligoland uhartea eta Büsingen lurraldea.
 2. Espainiako Erresuman: Ceuta eta Melilla.
 3. Italiako Errepublikan: Livigno.
 - c) Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Ituneko 355. artikuluko 3. atalaren aplikazio-eremuan dauden lurraldeak.
30. "Estatu kide baten lurraldea": Itunak aplikagarri zaizkien Estatu kideetako baten lurraldea, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Ituneko 349. eta 355. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, hirugarren lurraldeena izan ezik.
31. "Batasunaren lurraldea": Estatu kideetako lurraldeak.
32. «Zergarik gabeko dendak»: Aireportu edo portu bateko esparruan dauden establezimenduak, segurtasun-kontrola eta/edo sartzeko pasaporte-kontrola gainditu ondoren bidaiaria ontziratze, igarotze edo iristeko aduana-kontrolpeko eremuan

daudenak, penintsulako Espainiako lurraldean edo Balear Uharteetan daudenak, baldin eta erregelamenduz ezarritako baldintzak betetzen badituzte eta edari alkoholduinak, tabakolanak edo zigarro elektronikoa eta likidoak, nikotina-poltsak edo beste nikotina-produktu batzuk, zergarik gabeak, ematen badizkiete hirugarren herrialde batera edo hirugarren lurralde batera doazen eta ekipaje pertsonal gisa, itsas hegaldi edo zeharkaldi batean garraiatzen dituzten bidaiariei.

Aurreko lerrokadak aipatzen dituen establezimenduek ezin izango dizkiete garagardo, tarteko produktu eta eratorritako edarien entregak egin, zergarik gabe, Kanariar Uharteetarantz ekipaje pertsonal gisa garraiatzen dituzten bidaiariei.

Zergarik gabeko dendatzat ere hartzen dira Kanariar Uharteetako aireportu edo portu bateko esparruan kokaturiko establezimenduak, baldin eta, araudian ezarritako eskakizunak beteta, barneko lurralde-eremutik kanpora doan itsas ibilbide edo hegaldi batean ekipaje pertsonal gisa garraiatzen dituzten bidaiariei garagardo, tarteko produktu eta eratorritako edarien entregak egiten badizkiete.

Zergarik gabeko establezimenduek egindako produktuen entregan antzera hartuko dira aurreko lerrokadetan adierazitako itsas ibilbide edo hegaldi batean zehar aireontzi edo itsasontzi baten barruan egindakoak.

33. "Eraldaketa": Fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuak, osorik edo zati batean, zerga horien xede diren beste produktu batzuetatik lortzen dituen edozein fabrikazio-prozesu, baldin eta honako egoera hauetakoren bat gertatzen bada:
- a) Hasierako produktua eta lortutako produktua fabrikazioko zerga berezien eremu objektiboetan sartzen dira.
 - b) Hasierako produktua eta lortutako produktua fabrikazioko zerga berezi beraren eremu objektiboan sartzen dira, baina epigrafe edo zerga-tasa aplikagarria desberdina da.
 - c) Hasierako produktua eta lortutako produktua fabrikazioko zerga berezi beraren eremu objektiboan eta aplikagarri den epigrafe edo zerga-tasa berean sartzen dira, baina, prozesuaren emaitza gisa, lortutako produktu-kopurua handiagoa da hasierako produktuarena baino.
 - d) Desnaturalizazio-eragiketa bat edo trazatzaileak edo markatzaileak gehitzeko eragiketa bat denean.
34. "Urrutiko salmentak": Jatorrizko Estatu kidean zerga dagoeneko sorrarazita duten fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuen Europar Batasunaren barruko zirkulazio-sistema, baldin eta produktu horiek baimendutako gordailuzaina edo beste Estatu kide batean ezarrita dagoen hartzaille erregistratua edo ziurtatua ez den pertsona batek eskuratu baditu, eta aipatutako produktu horiei dagokienez jarduera ekonomiko independenteak egiten ez baditu, legen honen 63. artikuluan ezarritako murrizketak eginda, betiere aipatutako produktuak jarduera ekonomiko independente bat egiten duen saltzaileak edo bere ardurapean, zuzenean edo zeharka, igortzen edo garraiatzen baditu eta araudian ezarrita dauden baldintzak eta eskakizunak betetzen badira.

5. artikulua. Egitate zergapegarria.

1. Fabrikazioko zerga bereziei lotuta daude Europar Batasuneko lurraldearen barruan aipatutako zerga horien xede diren produktuen fabrikazioa, inportazioa eta sarrera.
2. Aurreko atalean xedatutakoa aplikagarria izango da zerga bakoitzaren barneko lurralde-eremuan dauden produktuen gainean.
3. Aurreko ataletan ezarritakoa ulertzen da Lege honen 23., 40. eta 64.bis artikuluetan xedatutakoa baztertu gabe.

6. artikulua. Loturarik gabeko izakizunak.

Ez daude loturik fabrikazio edo inportazio kontzeptuaren zioz:

1. Fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuen izaerak eragindako galera partzialak, hots, fabrikazio-, transformazio-, edukitza-, biltegiatze- eta garraio-prozesuetan etete-erregimenean gertatutakoak, baldin eta erregelamendu bidez ezartzen diren arabei atxikiz, finkaturiko ehunekoak gainditu ez eta horretarako ezarritako baldintzak betetzen badira.

Hala ere, ez zaizkie erregelamenduzko ehunekoak aplikatuko fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuen izaerak eragindako galera partzialei, baldin eta galera horiek Europar Batasunaren barruko zirkulazioan gertatzen badira eteteko erregimenean, eta agintari eskudunek frogatzen badute iruzurra edo irregulartasuna egon dela.

Irregulartasuna da eteteko erregimenean zerga bereziei lotutako produktuen zirkulazioan gertatzen den egoera oro, atal honetan eta hurrengoan aipatutakoak izan ezik, baldin eta, horren ondorioz, zerga bereziei lotutako produktuen zirkulazio bat, edo horren zati bat, ez bada amaitu erregelamenduz aurreikusitakoaren arabera.

2. Eteteko erregimenean gertaturiko fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuen sunsiketa edo galera partziala, halabeharrez edo ezinbestez gertatua, baldin eta erregelamenduz ezarritako ehunekoak gainditzen ez badituzte edo, horiek gaindituta, Zerga Administrazioaren aurrean, zuzenbidean onargarri den edozein frogabidetatik, haien egotea frogatu bada.
3. Eteteko erregimenean gertaturiko fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuen sunsipena edo galera partziala, sunsiketa edo galera hori gertatu den estatu kideko agintari eskudunen baimenaren ondorioz, betiere produktuak eteteko erregimenean badaude. Produktuak erabat suntsitu direla edo ezinbestean galdu direla ulertuko da, baldin eta ezin badira zerga berezien xede diren produktu gisa erabili, eta hori suntsiketak edo galerak gertatu edo detektatu diren estatu kideko agintari eskudunen gogobetetasunarekin frogatzen bada.

7. artikulua. Sortzapena.

1. Lege honetako 23, 28, 37, 40 eta 64. quater artikuluetan ezarritakoaren kaltetan gabe, Zerga sortuko da:
 - a) Fabrikazioaren kasuetan, fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuak lantegitik edo gordailu fiskaletik ateratzeko momentuan edo bere autokontsumoaren momentuan.

Hala eta guztiz ere, aipatutako produktuak lantegitik edo gordailu fiskaletik eteteko erregimenean aterako dira hurrengo xedeak dituztenean:

1. Zuzenean beste lantegi batzuetara, gordailu fiskaletara, zuzeneko entrega batera, erregistratutako hartzaille batera edo esportaziora.
2. Esportaziora zuzenduta zerga berezien xede ez diren produktuak fabrikatzera, betiere araudian ezartzen diren baldintzak betez gero.
3. Zerga berezien araubide orokorra ezartzen duen Kontseiluaren 2019ko abenduaren 19ko 2020/262 (EB) Zuzentarauaren 16.1 artikulua a) letraren iv) atalean aipatzen den hartzailleetako bati.
4. Irteerako aduanari, 2015/2447 (EB) Beteazpen Erregelamenduaren 329. artikulua 5. atalaren arabera aurreikusten denean, aldi berean kanpoko igarotza-erregimenerako abiaburuko aduana izatea, 2015/2446 (EB) Erregelamendu Delegatuaren 189. artikulua 4. atalaren arabera hala aurreikusten denean. Kasu horretan, eteteko erregimena amaituko da produktuak kanpoko igarotza-erregimenean sartzen direnean.

- b) Inportazio-kasuetan, aduanatik bidaltzeko unean, 952/2013 (EB) Erregelamenduaren 201. artikulua arabera. Hala ere, inportatutako produktuak zuzenean fabrika edo gordailu fiskal batean sartzeko erabiltzen direnean, zuzeneko entregarekin, erregistratutako hartzaile batengana doazenean, zerga bereziei lotutako produktuak Batasuneko lurraldetik ateratzen direnean edo Europar Batasunetik kanpoko lurralde-eremuan kokatutako hartzaile batengana, Kontseiluaren 2019ko abenduaren 19ko 2020/262 (EB) Zuzentarauaren 16.1 artikulua a) letraren iv) atalean aipatzen direnak, edo irteera-aduanara, 2015/2447 (EB) Betearazpen Erregelamenduaren 329. artikulua 5. atalaren arabera aurreikusten denean, aldi berean kanpoko igarotza-erregimenerako abiaburuko aduana izatea, 2015/2446 (EB) Erregelamendu Deletatuaren 189. artikulua 4. atalaren arabera hala aurreikusten denean.
- c) Erregistratutako hartzaile batentzako bidalketen kasuan, hark produktuak helmugako lekuan jasotzen dituen unean.
- d) Zuzeneko entregean kasuan, produktuak zuzenean entregatzen diren lekuan jasotzen diren unean gauzatuko da sortzapena.
- e) Zergari lotuta ez egotea eragiten duten galerak ez diren galerak gertatzen direnean, edo, une hori ezagutzen ez bada, galera horiek egiaztatzen direnean, fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuak eteteko erregimenean eduki, biltegiratu edo zirkulatzen direnean.
- f) Urrutiko salmenten kasuan, produktuak hartzaileari entregatzeko unean.
- g) Ziurtatutako hartzaile batentzako bidalketen kasuan, hark produktuak helmugako lekuan jasotzen dituen unean.
- h) Eteteko erregimeneko zirkulazioan irregulartasunak egonez gero, zirkulazioa hasten den egunean, salbu eta irregulartasuna noiz gertatu zen frogatzen bada; kasu horretan, hori izango da sortzapenaren unea.
- i) Fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuen Europar Batasunaren barruko zirkulazioan irregulartasunak egonez gero, baldin eta zerga dagoeneko sorrarazita badago beste Estatu kide batean, irregulartasuna gertatzen den unean, eta, hori jakin ezin bada, irregulartasuna egon dela konturatzean.
- j) Fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuen norakoa justifikatzen ez bada edo zirkulazioan behar ez bezala erabiltzen badira, baldin eta produktu horiek salbuetsi egin badira edo norakoa dela-eta tasa murriztua aplikatu bazaie, produktu horiek jasotzeko ahalmena duen hartzaileari entregatzen zaizkion unean, salbu eta behar ez bezala erabili diren dataren frogatik fedeez badago; kasu horretan, hori izango da sortzapenaren unea. Produktu horiek jasotzeko ahalmenik ez duen hartzaile bati ematen zaizkionean, zirkulazioa hasten den unean.
- k) Lege honen 8. artikulua 2. atalaren h) letran aipatzen diren kasuetan, aurreko atalen arabera dagokion sortzapenaren unean; une hori ezagutzen ez bada, obligatiodunak produktuak eskuratu dituen egunean edo produktuak haren jabetzan gelditu diren datan, eta, halakorik ezean, aurkikuntzaren unean.
- l) Batasuneko lurraldean modu irregularrean sartzen diren kasuetan, aduana-zorra sortzen den unean, aduana-zorra 952/2013 (EB) Erregelamenduaren 124. artikuluko 1. ataleko e), f), g) edo k) letrei jarraiki azkentzen ez bada.
- m) Beste Estatu kide bateko lurraldetik Kontseiluaren 2019ko abenduaren 19ko 2020/262 Zuzentarauaren 16.1 artikulua a) letraren iv) atalean aipatzen diren hartzaileentzako bidalketen kasuan, jasotzen diren unean.
- n) Fabrikazio irregularreko kasuetan, fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuak lortu direla jakiten den unean.

2. Artikulu honetako 1. ataleko a) letran ezarritakoa gorabehera, lantegitik edo gordailu fiskaletik atera diren produktuak, eteteko araubidetik kanpo, ezin izan zaizkionean hartzaileari osorik edo zati batean eman, gordailuzain bidaltzaile baimenduarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, produktuak irteera-establezimenduetan sartu ahal izango dira berriro, betiere erregelamenduz ezartzen diren baldintzak betetzen badira, eta irteeraren ondorioz zergaren sortzapena gertatu ez zela kontuan hartuta.
3. Artikulu honen aurreko ataletan xedatutakoa alde batera utzita, gas naturala fabrika edo gordailu fiskaltzat jotzen diren instalazioetatik irteten denean eta irteera hori kostu bidez eskuratzeko gas naturalaren hornidura-kontratuaren esparruan egiten bada, hidrokarburoen gaineko zerga fakturazio-denboraldi bakoitzean hornitutako gas naturalari dagokion prezioaren zatia ordaindu behar den unean sortuko da. Aurrekoa ez da aplikagarria izango gas naturala beste fabrika, gordailu fiskal edo erregistratutako hartzaile batera bidaltzen denean, ezta hornidura hodi finkoekiko beste bitarteko batzuekin egiten denean ere.

Artikulu honen 1. atalaren a) letran aurreikusitakoa aplikatzeko, aurreko paragrafoak aipatzen dituen horien bestelako gas naturalaren hornidurekin lotuta, subjektu pasiboek jo ahal izango dute hirurogei egun jarraitu arteko aldietan zehar hornitutako energia elektrikoaren multzoa lantegi edo gordailu fiskaletik aipatutako aldia amaitu ondoko lehenengo hilabete naturalean atera dela

8. artikulua. Zerga-obligaziodunak.

1. Lege honen xedeetarako legeak zerga-betebeharrak ezartzen dizkien pertsona fisiko edo juridikoak eta erakundeak zerga-obligazioduntzat hartuko dira.
2. Zergadun gisa subjektu pasiboak izango dira hurrengo hauek:
 - a) Sortzapena lantegi edo gordailu fiskal batetik ateratzean edo autokontsumoa dela kausa gertatzen den kasuetan baimendutako gordailuzainak.
 - b) Aitortzailea, 952/2013 (EB) Erregelamenduaren 5. artikuluko 15. puntuan definitzen den bezala, edo erregelamendu horren 77. artikuluko 3. atalean aipatzen den beste edozein pertsona, sortzapena inportazio baten ondorioz gertatzen denean.
 - c) Produktuak jasotzean sortutako zergarekin lotuta erregistratutako hartzaileak.
 - d) Hartzaileei zuzendutako produktuen harrera dela kausa sortutako zergarekin lotuta baimendutako hartzaileak.
 - e) Zuzeneko entregean kasuetan erregistratutako gordailuzain baimenduak eta hartzaileak.
 - f) Batasuneko lurraldean merkantziak modu irregularrean sartzten dituen edo sartzten parte hartzen duen edozein pertsona.
 - g) Fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuen fabrikazio irregularra egiten duen edo egiten parte hartzen duen edozein pertsona.
 - h) Fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuak eduki, biltegiatu, erabili, merkaturatu edo garraiatzen dituztenak, lege honen 16. artikuluan aurreikusitako kasuetatik kanpo, baldin eta ez badute egiaztatzen zerga horiek Batasuneko Zuzenbideko eta legeria nazionalako xedapen aplikagarrien arabera ordaindu direla.
3. Zergadunaren ordezkari gisa, subjektu pasiboak dira lege honen 4. artikuluan 27. atalari aipatzen dituen ordezkari fiskalak.

Subjektu pasibotzat, zergadunaren ordezkari gisa, artikulu honen 7. artikuluko 3. atalaren lehenengo paragrafoan aurreikusitako kasuan, gas naturalaren hornidurak kostu bidez egiten dituztenak ere hartuko dira.

4. Baimendutako gordailuzainak zerga-zorra ordaintzera behartuta egongo dira eteteko erregimenean edozein Estatu kideri emandako produktuekin lotuta, baldin eta hartzaileak hauek jaso ez baditu. Xede horretarako, bermea aurkeztuko dute, araudian ezartzen den forman eta zenbatekoan, Europako Erkidego osoan baliagarria izango dena. Halaber, beste Estatu kide batzuetako zerga-obligaziodunak, hauetan berme egokia aurkezten dutenak, Espainian hauek emandako ondasunei dagokienez barneko lurralde-eremuan gertatzen diren Europar Batasunaren barruko zirkulazioaren irregulartasunei dagokien zerga-zorra ordaintzera behartuta egongo dira.

Baimendutako gordailuzainak eta garraiolariak atal honek aipatzen duen erantzukizuna partekatzea erabakitzen dutenean, Zerga Administrazioak aipatutako garraiolari horren aurka jo ahal izango du erantzule solidario gisa.

Erantzukizuna desagertuko da hartzailea produktuez arduratu dela edo esportazioa egin dela frogatzen denean.

5. Inportazioen kasuetan, zergaren ordaintetaz solidarioki erantzungo dute arlo honen gainean indarreko araudiarekin bat etorritik aduanako zorra ordaintzera solidarioki behartuta dauden erakundeek eta pertsona fisiko edo juridikoek.
6. Lege honen 17. artikulua aipatzen dituen irregulartasunei dagokienez, zergaren ordaintetaz solidarioki erantzungo dute irregulartasunak gertatu diren komunitate barneko zirkulazioko modalitatearen arabera bermatzera behartuta dauden erakundeek eta pertsona fisiko edo juridikoek.
7. Bere xedearen arabera tasa murriztu baten aplikazioaren edo salbuespen baten onura lortu duten fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuen zirkulazioarekin eta hauei emandako erabilera edo xedearekin lotuta irregulartasunak gertatuz gero, bidaltzaileak zerga eta ezar litezkeen zehapenak ordaintzera behartuta egongo dira, jasotzeko ahalmena duen hartzaileak produktuak jasotzea justifikatzen ez duten bitartean; aipatutako harreratik aurrera obligazioa hartzaileen gainean egongo da.
8. Zerga berezien zor bererako zordun bat baino gehiago dagoenean, zor hori modu solidarioan ordaindu beharko dute.
9. Erregistratutako bidaltzaileak zerga-zorra ordaintzera behartuta egongo dira hartzaileak jaso ez dituen eteteko erregimenean emandako produktuei dagokienez. Erantzukizuna desagertuko da hartzailea produktuez arduratu dela edo esportazioa egin dela frogatzen denean.

9. artikulua. Salbuespenak.

1. Lege honetako 21, 23, 42, 51, 61 eta 64. artikuluetan ezarritakoaren kaltetan gabe, salbuetsita egongo dira, arau bidez ezar daitezkeen baldintzetan, fabrikazioaren gaineko zerga berezien gai diren ekoizkinak, baldin eta ondorengoetarako direnean:
 - a) Harreman diplomatiko edo kontsularren markoan entregatzeko direnean.
 - b) Espainian horrelakotzat aintzatetsitako nazioarteko erakundeentzat eta hauetako kideentzat, erakunde horiek eratzeko nazioarteko hitzarmenetan edo egoitzako akordioetan zehazten diren muga eta baldintzetan.
 - c) Espainiaz beste edozein Estatuko indar armatuetarako, Ipar Atlantikoko Itunbenaren Erakundeko kidea denean, 90/6.407/EEE erabakiaren 1. artikuluan aipatzen diren indar armatuetarako, indar horiek edo beren zerbitzurako langile zibilek erabiltzeko edo beren jantoki edo kantinen hornikuntzarako.
 - d) Kontsumorako, beste herri batzuekin edo nazioarteko erakundeekin sinatutako akordioaren markoan, baldin eta akordio hori onartu edo baimentzen bada Balio Erantsiaren gaineko Zergaren salbuespen gaitan.

- e) Ondorengo itsasuntzien horniketarako, bazterturik geratzen direla, beti ere, jostetako nabigazio pribatua egiten dutenak:
 - 1.a. Nazioarteko itsas nabigazioa egiten dutenak.
 - 2.a. Isasoko salbamendu edo laguntzarakoak direnak, barruko hornigaien zuzkiketa kanpo geratzen delarik, beren nabigazioaren iraunaldia, eskalarik gabe, berrogeita zortzi orduetik gorakoa ez denean.
 - f) Jostetako abiazio pribatuaz bestelako nazioarteko airezko nabigazioa egiten duten aireuntzien horniketarako.
 - g) Espainia ezik, edozein estatutako indar armatuei, indar horiek edo beren zerbitzura dituzten langile zibilak baliatzeko, edo jantokiak edo kantinak hornitzeko, baldin eta indar horiek Batasunaren jardura bat segurtasun eta defentsa politika erkidearen esparruan gauzatzeko egindako defentsa ahaleginaren eraginpean badaude.
2. Arau bidez ezarri ahal izango da aurreko atalean aipatzen diren salbuespenak lehendik ordaindutako zergen itzulketaren bitartez ematea, bai eta itzultzeko kuota erosketa prezioaren portzentaiaren eran zehaztea ere, kuota eta prezio horiek aurreko epealdietan lortutako balioen arabera.

10. artikulua. Itzulketak.

- 1. Lege honetako 9, 17, 22, 23, 40, 43, 52, 62 eta 64. nonies artikuluetan ezartzen denaren kaltetan gabe, fabrikazioaren gaineko zerga berezien itzulketarako eskubidea izango dute, arau bidez ezar daitezzen baldintzetan:
 - a) Zerga hauen gai diren ekoizkinen edo, zergen gai izan gabe, zergen gai diren beste batzuk biltzen dituzten beste ekoizkin batzuen esportatzaileek, esportaturiko ekoizkinen zioz lehendik ordaindutako kuotengatik.
 - b) Zerga hauen gai ez izan eta gai direnetakorik bildu ez baina beren ekoizpenerako, zuzenean edo zeharka, zergen gai direnetakoak kontsumitu dituzten ekoizkinen esportatzaileak, aurretik, esportaturiko ekoizkinei dagozkiela, jasanarazpen bidez edo erabilitako ekoizkinen prezioetan erantsiak, ordainduak direla frogatzen diren kuotengatik. Ez dute inoiz ere itzulketarako eskubiderik sortuko erregai edo karburagai gisa erabilitako ekoizkinek.
 - c) Fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuak (zerga barruko lurralde-eremuan sorraraziko balitz) fabrika batean edo gordailu fiskal batean sartzen dituzten enpresaburuak, ondoren Europar Batasuneko beste Estatu kide batera bidaltzeko. Itzulketak sartutako produktuei dagozkien kuotak hartuko ditu bere baitan, eta helmugako Estatuan jaso izana eteteko erregimenean Europar Batasunaren barruko zirkulazioa arautzen duten arauen arabera egiaztatzearen baldintzapean geldituko da.
 - d) Europar Batasuneko beste estatu kide batean ziurtatutako hartzaileei fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuak (zerga barruko lurralde-eremuan sorraraziko balitz) entregatzen dizkieten jaulkitzaile ziurtatuak. Itzulketak entregatutako produktuei dagozkien kuotak hartuko ditu bere baitan, eta helmugako estatu kidean zerga ordaintzearen baldintzapean geratuko da.
 - e) Fabrikazioaren gaineko zerga berezien gai izan eta barneko lurralde eremuaren barruan zerga sortua duten ekoizkinak, beren buruz edo beren kontura, zuzenean edo zeharka, beste Estatu kide batean egoitza duten pertsonentzat eta urrutirako salmenten elkarte barneko zirkulazio sistemaren eremuaren barruan, bidali edo garraiatzen dituzten enpresarioak. Itzulketak bidalitako edo garraiatutako ekoizkinei dagozkien kuotak bilduko ditu eta zerga destinoko Estatuan ordaintzera baldintzatuta geratuko da. Ekoizkinak fabrika edo gordailu fiskal batetik bidaltzen badira, itzulketa arau bidez ezar dadin konpentsazio automatikozko prozedura erraztuaren bitartez egin ahal izango da.

2. Lege honetan aintzatesten diren itzulketa-izakizun guztietan, itzultzen diren kuoten zenbatekoa jasanarazitako kuotena bera izango da. Alabaina, zenbateko hori doi-doi zehazterik ez dagoenean, kuotak zehazteko, itzulketa eskubidea sortzen duen eragiketa burutzen den data baino hiru hilabete lehenago indarrean zegoen tasa aplikatuko da.
3. Zergaren itzulketa behin-behinean agindu ahal izango da Lege honetan oharrematen diren izakizun guztietan. Behin-behineko likidazioak behin betiko bilakatuko dira ikuskatzailtzak ikuskatu ondoren edo itzulketa eskubidea sortzen duen eragiketa burutu eta bost urteko epean ikuskapen hori egiten ez bada.

11. artikulua. Eteteko erregimena azkentzea.

23., 28. eta 37. artikuluetan ezarritakoa baztertu gabe, eteteko erregimena azkentzen da, betiere araudian ezartzen diren baldintzak betetzen badira:

- a) Zergaren sortzapena eragiten duten kasuetako edozein egiteagatik.
- b) Produktuen esportazioaren bidez.

12. artikulua. Oinarrien zehaztapena.

1. Lege honetako 40. artikuluan ezartzen denaren kaltetan gabe, zerga oinarrien zehaztapena zuzeneko zenbatespen araubidean egingo da.
2. Zerga oinarrien zeharkako zenbatespena aplikatuko da Zerga-Lege Orokorreko 50. artikuluan aurreikusten diren izakizunetan eta moduan.

13. artikulua. Zerga-tasak.

1. Zerga-tasa aplikagarriak izango dira sortzapen unean indarrean daudenak.
2. Aurreko atalean xedatutakoa alde batera utzita, Lege honen 17.A).2 artikulua aipatzen dituen kasuetan, aplikatu beharreko tasa produktuak bidaltzeko momentuan indarrean dagoena izango da.

14. artikulua. Jasanarazpena.

1. Subjektu pasiboek fabrikazioaren gaineko zerga berezien gai diren ekoizkinean erosleei jasanarazi beharko diete sortutako kuoten zenbatekoa, eta erosleek kuota hauek jasan beharko dituzte.

Legearen 50.4 artikuluan xedatutakoaren arabera egindako gas naturalaren horniduren kasuan, azken kontsumitzaileak jakinarazitako behin-behineko ehunekoaren arabera sortutako kuoten zenbatekoa jasanarazi duten subjektu pasiboek jasanarazitako kuoten zenbatekoa erregularizatu beharko dute gas naturalaren xedearen behin betiko ehunekoaren arabera, araudiak horretarako ezartzen duen prozedura erabilita.

2. Araubide etengarriko fabrikazioa, transformazioa edo biltegiaketa inoren kontura egiten denean, subjektu pasiboak eragiketaren hartzaileari jasanarazi beharko dio sortutako kuoten zenbatekoa.
3. Ez da ondoriozko kuoten jasanarazpenik egiterik egongo ikuskapen akten ondoriozko likidazioetan ez eta oinarrien zeharkako zenbatespenetan.
4. Fabrikazioaren gaineko zerga berezien subjektu pasiboek, dagozkien zerga-kuoten sarrera egin badute, Zerga-Lege Orokorreko 77 eta 79. artikuluek Herri Ogasunari aitortzen dizkion eskubide eta berme berberak izango dituzte zerga-kuota horien jasanarazpena jasatera behartuen aurrean eta mugaeguneratuak izan eta behartu horiek ordaindu gabe dauden kredituetan bildutako kuota haien zenbatekoaz.

15. artikulua. Fabrikazioa, transformazioa eta edukitza.

1. Fabrikazioaren gaineko zerga berezien gai diren ekoizkinen fabrikazioa fabriketan egingo da, araubide etengarrian.
2. Aurreko atalean ezarritakoa gorabehera, gordailu fiskalen barruan egin ahal izango dira desnaturalizazio edo trazagailu edo markagailuak gaineratzeko eragiketak, eta arau bidez zehatz daitezten transformazio eragiketak.
3. Aurreko ataletan ezarritakoa gorabehera, fabrika eta gordailu fiskaletatik kanpo egin ahal izango dira, Lege honen ondoretarako fabrikaziotzat jo gabe, transformazio eragiketak, fabrikazioaren gaineko zerga berezien gai izan eta zerga dagoeneko sortua duten ekoizkinetatik abiatuta, baldin eta erabilitako ekoizkinei dagozkien kuoten batura lortutako ekoizkinari legokiokeena baino txikiagoa ez bada.
4. Fabrikazioaren gaineko zerga berezien gai diren ekoizkinen fabrikazio, transformazio, eskuztapen, biltegiatze edo salmenta, eta hauek burutzen direneko establezimenduak, izaera iraunkorreko kontuhartzaitzapean jarri ahal izango dira.
5. 10. artikuluko 1. paragrafoko c) idatz-zatian, 22. artikuluko c) idatz-zatian, 40. artikuluko 3. paragrafoan, 52. artikuluko d) idatz-zatian, 62. artikuluko b) idatz-zatian eta 64. onies artikuluko b) idatz-zatian ezarritakoa eragotzi gabe, jatorrizko establezimenduan produktuak berriro sartzen direnean, baldin eta ezin izan bazaizkio hartzaileari entregatu igorlearen gordailuzain baimenduarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, eta establezimenduaren jarduera eteten bada eta establezimendu horretan produktuak salbuespen bat aplikatuta badaude, ezin izango da fabriketan eta gordailu fiskaletan sartu fabrikazio-zerga berezien xede diren produktuak, baldin eta produktu horien ondorioz zerga sortu bada.
6. Fabriketan eta gordailu fiskaletan, arau bidez ezarritako portzentaien gaintik gerta daitezten diferentziak, lehengai nahiz ekoizkin amaituetan, Lege honen ondoretarako, alderantzizkoa frogatu ezik, fabrikatutako eta fabrikatik edo gordailu fiskaletatik irtendako ekoizkinak izango dira, edo establezimendu horietan autokontsumituak.
7. Fabrikazioaren gaineko zerga berezien gai diren ekoizkinen zirkulazio eta edukitza, merkataritzako helburuz, arau bidez ezarriak izan eta zerga Espainian ordaindua dela edo araubide etengarrian dagoela egiaztatzen duten agirien itzalpean, edo zerga sortu bidezko elkartebarneko zirkulazio sistema baten itzalpean egon beharko da, 44. artikuluko 3. artikuluan ezartzen denaren kaltetan gabe.

Zerga Espainian ordaindu dela egiaztatzeari dagokionez, aurreko baldintza ez da betetzat joko Zerga Administrazioak dagokion zerga Ogasun Publikoan ordaindu ez dela egiaztatzen duenean.

8. Artikulu honetako 7. atalean eta 16. artikuluko 1. atalean aipatzen diren ekoizkinak merkataritzako helburuetarako erabiltzen direla zehazteko, honako elementu hauek, besteak beste, hartuko dira kontutan:
 - a) Zerga bereziei lotutako ekoizkinen edukitzailearen merkataritza-izaera eta zergatik dituen bere esku.
 - b) Zerga bereziei lotutako ekoizkin horiek daudeneko lekua edo, horrela izanez gero, erabilitako garraio mota.
 - c) Zerga bereziei lotutako ekoizkin horiekin zerikusia duen edozein agiri.
 - d) Zerga bereziei lotutako ekoizkinen izaera.
 - e) Zerga bereziei lotutako ekoizkinen kopurua.

9. Aurreko ataleko e) idaztia aplikatzeko, ekoizkinak merkataritzako xedez edukitzen direla ulertuko da, aurkako frogarik egon ezik, kopuruak ondorengoetatik gorakoak direnean:
- a) Tabako motak:
 - 1.a. Zigarrotxoak, 800 unitate.
 - 2.a. Txokortxoak, 400 unitate.
 - 3.a. Zigarroak, 200 unitate.
 - 4.a. Gainerako tabako motetan, kilogramo 1.
 - b) Edari alkoholdunak:
 - 1.a. Edari eratorriak, 10 litro.
 - 2.a. Tarteko ekoizkinak, 20 litro.
 - 3.a. Ardoak eta edari hartituak, 90 litro.
 - 4.a. Garagardoak, 110 litro.
 - c) Zigarro elektronikoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen likidoen gaineko zerga.
 - 1.a. Zigarro elektronikoentzako likidoak: 40 mililitro.
 - 2.a. Nikotina poltsak: 400 unitate.
 - 3.a. Nikotina duten beste produktu batzuk: 500 gramo.
10. Hidrokarburoen gaineko Zergaren gai diren ekoizkinei dagokienez, merkataritzako helburuz edukitzen direla ulertuko da, ekoizkin horien garraioa norbanakoek, beren buruz edo beren kontura, ezohiko moduetan egindakoa denean. Ezohiko garraiatze moduak izango dira, ibilgailuen deposituan ez eta larrialdiko bidoi egokietan egiten ez den karburagailuen garraioa, eta operadore profesionalen kontura erabilitako zisterna-kamioietan egiten ez den erregai likidoen garraioa.
11. Fabrikazioaren gaineko zerga berezien gai izan eta beren destinoa dela-eta salbuespena edo zerga-tasa gutxitua aplikatu zaien ekoizkinei emandako erabilera edo destinoa justifikatzen ez denean, ekoizkin horiek Lege honetan inolako zerga onurarik ezartzen ez zaien helburuetarako erabili edo destinatu direla ulertuko da.

16. artikulua. Europar Batasunaren barruko zirkulazioa.

- 1. Fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuak, partikularrek beste estatu kide bateko lurraldean erositakoak, Europar Batasuneko lurraldean, bertan indarrean dagoen zerga ordaindu delarik, beren beharrianak asetzeko erositakoak eta beraiek garraiatutakoak, ez dira egongo barruko lurralde-eremuan indarrean dagoen zergaren mende, eta eremu horretan zirkulatzea eta edukitzea ez da inolako baldintzaren menpe egongo, betiere merkataritza-helburuetarako erabiltzen ez badira.
- 2. Zerga berezien xede diren produktuak, ustekabeen edo ezinbestean, edo estatu kide horretako agintari eskudunek produktu horiek suntsitzeko emandako baimenaren ondorioz, guztiz suntsitzen badira edo ezinbestean galtzen badira, osorik edo zati batean, sortzapena gertatu den estatu kidea ez den beste estatu kide bateko lurraldean garraiatzean, ez da zerga berezirik sortuko estatu kide horretan.

Produktuak erabat suntsituztat edo ezinbestean galdutzat joko dira, ezin badira erabili zerga berezien xede diren produktu gisa.

Sortzapena gertatu den estatu kidea ez den beste estatu kide bateko lurraldean garraiatzean gertatzen diren galera partzialen kasuan, produktuen izaerak eraginda, zerga berezia ezin izango da eskatu estatu kide horretan, baldin eta galeraren zenbatekoa ezarritako arauzko ehunekoaren azpitik badago, non eta estatu kideko agintari eskudunek ez duten frogatzen iruzurra edo irregulartasuna egon dela.

3. Aurreko 1. atalean jasotako kasuak gorabehera, jatorria edo helmuga beste estatu kide bateko lurraldean duten fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuak barruko lurralde-eremuan zirkulatuko dute, erregelamendu bidez ezartzen diren betekizunak betetz, honako prozedura hauetako baten babesean:
 - a) Eteteko erregimenean, lantegi edo gordailu fiskalen artean.
 - b) Eteteko erregimenean, erregistratutako hartzaile batentzat denean.
 - c) Eteteko erregimenean, gordailuzain baimendu bat titular den establezimendu batetik, Europar Batasuneko lurraldetik kanpoko leku guztietara, lege honen 4. artikulua 31. atalean definituta dagoen bezala.
 - d) Eteteko erregimenean, onuradunaren egoitza dagoen estatu kidea ez den estatu kide bateko lurraldean kokatutako gordailuzain baimendu baten establezimendutik, Kontseiluaren 2019ko abenduaren 19ko 2020/262 Zuzentarauaren 11.1 artikuluan aipatzen diren helmugetara. Zuzentaru horrek zerga berezien araubide orokorra ezartzen du.
 - e) Eteteko erregimenean, baimendutako gordailuzain bat titularra den establezimendutik irteera-aduanara, 2015/2447 (EB) Betearazpen Erregelamenduaren 329. artikulua 5. atalaren arabera aurreikusten denean, aldi berean kanpoko igarotza-erregimenerako abiaburuko aduana izatea, 2015/2446 (EB) Erregelamendu Delegatuaren 189. artikulua 4. atalaren arabera hala aurreikusten denean. Kasu horretan, eteteko erregimena amaituko da produktuak kanpoko igarotza-erregimenean sartzen direnean.
 - f) Eteteko erregimenean, inportazio-lekutik, bidaltzaile erregistratu batek bidalita, produktuak erregimen horretan jasotzeko baimena eman den leku batera. Artikulu honen ondorioetarako, «inportazio-lekutzat» hartuko da produktuak 952/2013 (EB) Erregelamenduaren 201. artikulua arabera praktika librerako bidaltzen diren tokia.
 - g) Eteteko erregimenean, baimendutako gordailuzain baten establezimendutik zuzenean entregatzen den leku batera.
 - h) Eteteko erregimenetik kanpo, hartzaile ziurtatu batentzat denean.
 - i) Eteteko erregimenetik kanpo, urruneko salmenta-sistemaren barruan.
4. Europar Batasunaren barruko zirkulazioa eteteko erregimenean erregelamendu bidez ezarritako betekizunen arabera izapidetutako administrazio-agiri elektroniko baten babesean egiten bada bakarrik egingo da, hargatik eragotzi gabe zirkulazioaren hasieran larrialdiko laguntza-agiri bat erabiltzea, sistema informatizatua erabilgarri ez dagoenean, eta erregelamendu bidez finkatutako baldintzak betetz.

17. artikulua. Irregulartasunak Europar Batasunaren barruko zirkulazioan.

Bi Estatu kideren arteko edo Estatu kide baten eta, beste Estatu kide batean zehar, hirugarren herri edo hirugarren lurralde baten arteko zirkulazio baten barruan, fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuen espedizio bat, edo honen zati bat, produktuen hartzaileak Europar Batasuneko lurraldean jasotzen ez badu edo espedizioak Europar Batasuneko lurraldea benetan uzten ez badu, bere xedea esportazioa baldin bazen, zerga hauei lotuta ez egotea

dakarrenen bestelako kausengatik, Lege honen 6. artikuluan edo 16. artikuluaen 1. eta 2. atalean ezarritakoarekin bat etorritz, irregulartasuna gertatu dela joko da.

A) Zirkulazioa eteteko erregimenean.

1. Eteteko erregimeneko fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuen komunitate barneko zirkulazio baten barruan hurrengo hau gertatzen baldin bada:
 - a) Fabrikazioko zerga berezien sortzapena eragiten duen barruko lurralde-eremuan irregulartasuna gertatzen denean, aipatutako zerga horiek Espainiako Zerga Administrazioak eskatu ahal izango ditu.
 - b) Fabrikazioko zerga berezien sortzapena eragiten duen irregulartasuna gertatzen denean, gertatu zen Estatu kidea zein den zehazterik ezinezkoa denean eta barneko lurralde-eremuan egiaztatzen denean, joko da irregulartasuna aipatutako lurralde-eremuan eta egiaztatu den momentuan gertatu dela, eta zerga bereziak Zerga Administrazioak eskatu ahal izango ditu.
2. Eteteko erregimenean barruko lurralde-eremutik zirkulatzen duten eta zerga berezien xede diren produktuak helmugara iristen ez direnean, eta zirkulazioaren barruan zerga bereziak sortzea eragiten duen irregulartasunik egiaztatu ezean, joko da irregulartasuna bidalketako estatu kidean egin dela, eta zerga bereziak Espainiako Zerga Administrazioak eskatu ahal izango ditu, salbu eta, lau hilabeteko epearen barruan, zirkulazioa hasten denetik aurrera zenbatuta, Administrazio hori gogobeteta egoteko moduan, produktuak hartzaileari eman dizkiotela edo irregulartasuna barneko lurralde-eremutik kanpoan egin delako froga.
3. Aurreko 1. atalaren a) eta b) letretan jasotako kasuetan, Espainiako Zerga Administrazioak, behar izatekotan, espedizioko Estatu kideko eskudun agintariei jakinaraziko die.
4. Hala eta guztiz ere, aurreko 1. atalaren b) letran edo 2. atalean jasotako kasuetan, hiru urteko aldia bukatu baino lehenago, zirkulazioa hasteko egunetik aurrera zenbatuta, irregulartasuna benetan gertatu den Estatu kidea, Espainia ez dena, zehaztera iritsiko balitz, aipatutako Estatu kide horrek zerga bereziak eskatu ahal izango ditu. Horrela gertatuz gero, Espainiako Zerga Administrazioak jasotako zerga bereziak itzuliko ditu, irregulartasuna benetan gertatu den Estatu kidean aipatutako zerga horien pertzepzioaren frogak aurkeztutakoan.
5. Aurreko 1. atalaren b) letran edo 2. atalean aipatutakoen antzeko kasuetan, irregulartasun bat Europar Batasunetik kanpoko lurralde-eremuan gertatu dela uste izanik, hiru urteko aldia bukatu baino lehenago, zirkulazioa hasteko egunetik aurrera zenbatuta, erabakiko balitz aipatutako irregulartasun hori benetan barneko lurralde-eremuaren barruan gertatu dela, zerga bereziak Espainiako Zerga Administrazioak eskatu ahal izango ditu. Azken honek horren berri emango dio aipatutako zerga horiek hasiera batean jaso diren Estatu kideko eskudun agintariei.

B) Zirkulazioa eteteko erregimenetik kanpo.

1. Komunitatetik kanpoko eremuan kokaturiko espedizioko Estatu kidean zerga sortuta duten fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuen komunitate barneko zirkulazioan zehar:
 - a) Irregulartasuna gertatzen bada barneko lurralde-eremuan eta honek fabrikazioko zerga bereziak sortzea eragiten badu, Espainiako zerga Administrazioak aipatutako zerga horiek eskatu ahal izango ditu.
 - b) Se produzca una irregularidad que dé lugar al devengo de los impuestos especiales de fabricación, no sea posible determinar el Estado miembro en que se produjo y se observe en el ámbito territorial interno, se considerará que la

irregularidad se ha producido en dicho ámbito territorial y los impuestos especiales serán exigibles por la Administración Tributaria española.

2. Hala eta guztiz ere, aurreko 1. atalaren b) letran jasotako kasuan, hiru urteko aldia bukatu baino lehenago, produktuak eskuratzen diren egunetik aurrera zenbatuta, irregularitasuna benetan gertatu den Estatu kidea, Espainia ez dena, zein den erabakiko balitz, zerga bereziak aipatutako Estatu kide horrek eskatu ahal izango ditu. Horrela gertatuz gero, Espainiako Zerga Administrazioak jasotako zerga bereziak itzuliko ditu, irregularitasuna benetan gertatu den Estatu kidean aipatutako zerga horiek jaso dituztelako frogak aurkeztutakoan.
3. Barneko lurralde-eremuan zerga dagoeneko sortu duten fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuen kasuan, baldin eta, aipatutako eremu horretatik Europar Batasunetik kanpoko lurralde-eremura zuzenduta egonik, irregularitasuna edukitzen badute barneko lurralde-eremutik kanpoan eta honek eragiten badu zerga bereziak aipatutako irregularitasuna gertatu edo egiaztatu den Estatu kidean jasotzea, Espainiako Zerga Administrazioak jasotako zerga bereziak itzuliko ditu, aipatutako Estatu kide horretan zerga horiek jaso dituztelako frogak aurkeztutakoan.

18. artikulua. Kudeatzeko arau orokorrak.

1. Fabrikazioaren zerga bereziak ordaindu behar dituzten subjektu pasiboek eta gainerako obligaziodunek zerga-aitorpenak aurkeztu beharko dituzte eta, hala badagokie, dagozkien autolikidazioak burutu ere bai. Azkenik, zerga-obligazioak betetzeko bermeak eskaini beharko dituzte.
2. Ogasun eta Herri Administrazioen ministroak Lege honen testuan NK kodeei egindako aipamenak formalki eguneratuko ditu, nomenklatura konbinatuaren egituran aldaketak badaude.
3. Dagozkien zergak, zerga-tasa ezberdinak aplikatuz, ordainduak dituzten fabrikazioaren gaineko zerga berezien gai diren ekoizkin suntsikorrak batera biltegitratzen direnean, alderantzizko frogarik ezean, establezimendutan sartutako lehenengo ekoizkinak bertatik irteten diren lehenengoak direla ulertuko da.
4. Hurrengo atalean xedatutakoa izan ezik, fabrikazioaren zerga bereziak ordaindu behar dituzten subjektu pasiboek eta gainerako obligaziodunek zerga-zorra Ogasun eta Herri Administrazioen ministroak zehaztutako prozedura, modu eta epeetan zehaztu eta ordaindu beharko dute.
5. Inportazioetan edo sarrera irregularretan, zerga, aduanei buruzko arautegian xedatzen denaren arabera, aduanazko zorrerako aurreikusitako eran likidatuko da.
6. Fabrikazioaren gaineko zerga berezien gai diren ekoizkinak enkante publikoan saltzen direnean, adjudikazioa ekoizkin horiekin merkataritzan aritzeko lege gaitasuna duten pertsonen alde soilik egin ahal izango da, arau bidez ezar daitezkeen baldintzei atxikiz.
7. Arau bidez honako hauek ezarriko dira:
 - a) Subjektu pasiboek bermeak emateko modu eta kopuruak.
 - b) Fabrikazioaren gaineko zerga berezien gai diren ekoizkinak fabrikatu, transformatu, jaso, biltegitratu eta merkaturatu eta bidaltzen dituzten establezimenduen kontrola, kontu-hartzailetza iraungorra barne, egingo den modua.
 - c) Produktu hauek zirkulatzean eska daitezkeen baldintzak eta, bereziki, erkidegoaren barruko eta barneko zirkulazioa babestu behar duen edozein dokumentu erabiltzeko baldintzak.

- d) Galera portzentaia onargarriak, araubide etengarrian, fabrikazio eta transformazio prozesuetan, eta bidegiratze eta garraio bitartean.
- e) Fabrikazio zerga berezien itzulketa eskabideak aurkezteko epeak.

19. artikulua. Urratzeak eta zehapenak.

1. Fabrikazioaren gaineko zerga berezien arloko urratze eta zehapenen araubideak aginduzko izango du Zerga-Lege Orokorrean, Lege honek zerga hauetako bakoitzerako ezartzen dituen arau berezietan eta hurrengo ataletan bildutakoetan xedatutakoa.

Bereziki, lege honetan aurrez ikusitakoarekin bat jarritako zigorrak zergadunaren zerga-egoera aldez aurretik erregularizatzearen ondorioz jartzen direnean, Zergari buruzko Lege Orokorrak 188. artikuluko 1. atalean araututako murrizketak aplikatuko dira.

Legeak aurrez ikusitakoarekin bat jarritako diru-zigorrak Zergari buruzko Lege Orokorrak 188. artikuluko 3. artikuluan xedatutakoarekin bat murriztuko dira.

2. Beti ere, zerga-urratze astunak izango dira honako hauek:
 - a) Fabrikazioaren zerga berezien kargapeko produktuak fabrikatzea eta inportatzea Legeak eta garapen-araudiak ezarritako baldintzak eta betekizunak bete gabe.
 - b) Fabrikazioaren zerga berezien kargapeko produktuak barneko lurralde-eremuan merkataritza-helburuekin zirkulatzea, administrazio-dokumentu elektronikoan babestua egon behar duenean, baina horretarako agintaritza eskudunek atxikitako erreferentziako administrazio-koderik ez dutenean.
 - c) Merkataritza-helburuekin fabrikazioaren zerga berezien kargapeko produktuak izatea, sortutako zergaren ordainketa, eten-araubidearen aplikazioa ala salbuespen-ustezkoa egiaztatu gabe.
 - d) Lehengaien, fabrikatzen ari diren produktuen edo fabrika eta gordailu fiskaletan amaitutako produktuen beheranzko aldeak egotea, erregelamendu bidez baimendutako ehunekoak gainditzen dituztenak, eta Administrazioak egindako izakinen zenbaketetan agerian uztea.
 - e) Zergapekoek lege honetan eta lege hau garatzeko araudian bertan aurreikusirik dauden salbuespenak edo tasa murriztuak aplikatzeko ezarritako beharkizunak eta baldintzak ez betetzea, onura horien xede diren produktuei ematen zaien erabilera edo xedea justifikatzen ez denean.
3. Aurreko zenbakiaren a), b) eta c) hizkietan aipatutako arau-hausteengatik produktuen kopuruari dagokion kuotaren %100eko isuna ezarriko da; kuotak kalkulatzeko arau-haustea gertatzen denean indarrean dagoen tasa aplikatuko da eta gutxienez 1.200 eurokoa izango da.

Aurreko zenbakiko d) letran aipatzen den arau-haustea zehatzeko, zerga bereziaren kuoten ehuneko 50eko diruzko isuna ezarriko da. Isun hori jasoko dute, hain zuzen ere, diferentzia egiaztatu zaien produktu amaituek edo abian diren produktuetatik edo diferentzia egiaztatu zaien lehengaietatik abiatuta erdietsi ahal izan diren produktu bukatuek, betiere arau-haustea aurkitu den egunean indarrean dagoen zerga-tasa aplikatuz kalkulaturik, 300 euroko gutxienerako zenbatekoarekin.

Aurreko zenbakiko e) letran aipatzen den arau-hausteari diruzko isun proportzionala ezarriko zaio, legez edo araudi bidez ezarririk dauden beharkizunak eta baldintzak bete ez dituzten produktuei aplikatutako onura fiskalaren ehuneko 50ekoa.

a), b), c) eta e) idatz-zatietan adierazitakoaren arabera egoki den zehapena ehuneko 25 handituko da tributu-arloko arau-haustek behin eta berriz egiten direnean. Inguruabar hori

kontuan hartuko da arau-hausleak, arau-hauste berria egin aurreko bi urteetan, administrazio-bidean ebazpen irmoaren bidez zehapena jaso duenean, aurreko 2. zenbakian ezarritako debekuetako edozein hausteagatik.

4. Zergaren arau-hauste larriak izateagatik, gainera, honako zigorrak jarri ahal izango dira:
 - a) Arau-hausleak titularrak diren establezimenduak sei hilabetez aldi baterako ixtea; hori Ogasun Ministroak erabakiko du. Bestela, behin betiko itxi daiteke eta Ministroen Kontseiluak erabaki beharko du. Behin betiko ixtea erabaki daiteke, subjektu arau-hausleari aurreko bi urteetan administrazioaren bidetik behin betiko ebazpenez zigortu zaionean arau-hauste larria egiteagatik eta ebazpen horren bidez establezimendua aldi batera ixtea erabaki bada.
 - b) Sei hilabetez zigilatzea edo salmenta automatikoaren aparatuak behin betiko konfiskatzea, arau-haustea horien bidez egiten denean. Behin betiko konfiskatzea erabaki daiteke, aurreko bi urteetan subjektu arau-hausleari administrazioaren bidetik behin betiko ebazpenez zigorra jarri bazaio, salmenta automatikoaren aparatuaren bidez arau-hauste larria izateagatik eta, ondorioz, aparatua zigilatzearen zigorra jarri bazaio.

Letra honetan aurrez ikusitako zigorrak ezartzeko, subjektu arau-hausleak izango dira, bai salmenta automatikoaren aparatuaren titularra, bai kokatuta dagoen establezimenduaren titularra.

Hurrengo c) paragrafoan xedatutako kasuetan izan ezik, zigorrak jartzea organo eskudunak erabakiko du zigor nagusia jartzeko.

- c) Hala eta guztiz ere, b paragrafoan aurrez ikusitako zigorra eta a) paragrafoan aurrez ikusitako zigorra bat datozenean, salmenta automatikoaren aparatua behin betiko konfiskatuko da, betiere establezimendua behin betirako ixtea erabakitzen bada. Batura hori gertatzen den kasuetan, zigorra a) paragrafoan aurrez ikusitako organoak adostuko du.
5. Zirkulazioa babesteko araubidez xedatutako zirkulazio-dokumentuei dagokienez, zergaren arau-hauste arina da barneko lurralde-eremuan merkataritza-helburuekin fabrikazioaren zerga berezien kargapeko produktuak dokumentuaren funtsezko errealitatea kontuan hartuta ahazteekin edo egokitasunik ezarekin zirkulatzea, betiere zergaren arau-hauste larria ez bada. Arau-haustea zirkulazioan dagoen produktuari dagokion kuotaren ehuneko 10eko diru-isunarekin zigortuko da eta gutxienez 600 eurokoa izango da.

Zirkulazio-dokumentuen funtsezko datuak hurrengoak dira:

- 1.a. Garraiatutako merkantiaren izaera eta zenbatekoa behar bezala identifikatzeko beharrezkoak diren datuak.
 - 2.a. Bidaltzailea, hartzailea edo produktuak behar bezala identifikatzeko beharrezkoak diren datuak, zirkulazio-dokumentuaren zenbakia barne.
 - 3.a. Zirkulazio-zigiluak direnean, horien zenbakikuntza edo edukiera izango dira, baita jarrita dauden ontziekin bat datozen ala ez ere.
 - 4.a. Espedizioaren hasiera-datari buruzko datua.
6. Zergaren arau-hauste arinaren kalifikazioa izango du merkataritza-helburuekin edari alkoholikoak edo tabako laboreak edukitzea zerga-markarik ez badute edo horiek araudiak ezarritako baldintzak bete gabe eskuratu badira, jokabide berarekiko 2. atalean xedatutakoa aplikagarria denean izan ezik. Arau-haustea ondoko moduan zigortuko da:
 - a) 1.000 zigarroko 150 euroko isunarekin. Arau-hauste bakoitzeko gutxienez 600 euro izango dira.

- b) Biltzeko tabako xehe kilo bakoitzeko 90 euroko isunarekin. Arau-hauste bakoitzeko gutxienez 600 euro izango dira.
- c) Edari litro bakoitzeko 10 euroko isunarekin. Arau-hauste bakoitzeko gutxienez 600 euro izango dira.

Honelako arau-hausteak behin eta berriro eginez gero, aurreko a) b) eta c) letretan ezarritako zehapenen zenbatekoari % 25 gehituko zaio. Arau-haustea errepikatzea izango da zenbaki honetan ezarritako arau-hausteetako bat egiteagatik administrazio-bidean irmoa den ebazpen bidez zehapena ezarri eta hurrengo bi urteetan beste bat egitea.

- 7. Zergaren arau-hauste arinaren kalifikazioa izango du marka fiskal faltsuak, lehengoratuak edo berreskuratuak izatea. Arau-hauste hori marka fiskal faltsu, lehengoratu edo berreskuratu bakoitzeko 10 euroko diru-isun finkoarekin zigortuko da.
- 8. Tributu-arloko arau-hauste arina da zergapekoek ez betetzea lege honetan eta lege hau garatzeko araudian ezarritik dauden beharkizunak eta baldintzak, zerga berezien xede diren produktuen xedea dela-eta salbuespen-kasu bat edo zerga-tasa murriztu bat aplikatzeko, tributu-arloko arau-hauste larria ez denean.

Paragrafo honetan tipifikaturik dagoen arau-haustea zehatzeko, legez edo araudi bidez ezarritik dauden beharkizunak eta baldintzak bete ez dituzten produktuei aplikatutako onura fiskalaren ehuneko 10eko diruzko isuna jarriko da.

II. KAPITULUA

ALKOHOL ETA EDARI ALKOHOLDUNEN GAINEKO ZERGA BEREZI GUZTIETARAKO XEDAPEN KOMUNAK

20. artikulua. Kontzeptuak eta definizioak.

Alkohol eta edari alkoholdunen gaineko zerga berezien ondoretarako, honako hauek definitzen dira:

- 1. «Alkohola»: NK 2207 edo 2208 kodeetan sailkatutako alkohol etilikoa edo etanola.
- 2. «Alkohol guztiz desnaturalizatua»: Ekonomia eta Ogasun Ministroak onetsiak izan eta usain, kolore eta zaporearen ezaugarri organoleptikoak narbarmenki aldatu eta gizakiek irenste bidez kontsumitzeko ezegoki bilakatzen duten substantzia desnaturalizatzaileak, zehaztutako heinean gutxienez, biltzen dituen alkohola.
- 3. «Alkohol partzialki desnaturalizatua»: Ekonomia eta Ogasun Ministroak onetsiak izan eta gizakiek irenste bidez kontsumitzeko ezegoki bilakatzen duten substantzia desnaturalizatzaileak, zehaztutako heinean gutxienez, bildu eta industri prozesu zehatz batean, arau bidez ezarritako modu eta baldintzetan, aurretik onartua den alkohola.
- 4. «Edari alkoholduna»: %1,2 vol.etik gora gabeko hartutako alkohol gradu bolumetrikoa duena.
- 5. «Ardogina»: Ardogintza jardueran bere izenean aritu eta beren lapetatik alkohol edo edari eratorria ateratzeko erabiltzen diren mahatsen jabea den pertsona fisikoa.
- 6. «Artisau distilatzaila»: Etenkako distilazio zuzenaren bidez, alanbikak edo antzeko distilazio aparatuak erabiliz, edari eratorriak fabrikatzen dituena, baldin eta bere urteko ekoizpena 10 hektolitro alkohol purutik gorakoa ez bada.
- 7. «Garagardoaren jatorrizko muztioaren lehenbiziko aterakin lehorra»: Maltaren ehoketatik eta, eho eginak edo ez, digestio entzimatik bidez, hartidura alkoholikoaren ondoren garagardoa emango lukeen muztioan dagoen kontzentratu azukretsua gertarazten duten beste ekoizkin baimendu batzuetatik ateratzen den berezko gai lehorra.

8. «Hartutako alkohol gradu bolumetrikoa»: 20° C-ko tenperaturan, dagokion ekoizkinaren 100 bolumenetan bilduta dagoen alkohol puruaren bolumen kopurua.
9. «Plato gradua»: Garagardoaren jatorrizko muztioaren lehenbiziko aterakin lehorraren gramo kopurua, 20° C-ko tenperaturan muztio horren 100 gramotan dagoena.

21. artikulua. Salbuespenak.

Salbuetsita egongo dira, 9. artikuluan aipatzen diren eragiketez gainera, honako hauek, baldin eta arau bidez ezar daitezzen baldintzak betetzen badira:

1. Ozpina ateratzeko erabiltzen diren alkohol eta edari alkoholduen fabrikazio eta inportazioa. Ozpina izango da NK 2209 kodean sailkatutako ekoizkina.

Nekazaritza-jatorriko alkohol distilatua erabiltzen den kasuetan, salbuespena aplikatzeko, alkoholak markatzaile bezala alkohol-ozpina izango du arauz xedatutako baldintzetan eta ehunekoetan.

2. Ondorengo edari alkoholduen inportazio hauek:

- a) Hirugarren herrialdeetatik datozen hamazazpi urtetik gorako bidaiariak gidatutakoak, ondorengo mugak gainditzen ez badituzte, betiere:

1. Litro bat alkohol edo eratorritako edari; edo
2. Bi litro produktu ertain edo ardo apardun eta irakindako edari eta
3. Lau litro ardo bare eta hamasei litro garagardo.

- b) Beste herri batetik, norbanako batek, beste norbanako bati zuzenduta, lantzean behin egindako bidalketa txikiak, tartean inolako ordainketarik egon gabe eta ondorengo kopuru muga hauen barruan:

1. Litro bat alkohol edo edari eratorri gehienez duen botila bat; edo
2. Litro bat tarteko ekoizkin edo ardo edo edari hartitu apartsu gehienez duen botila bat, eta
3. Bi litro ardo eta edari hartitu lasai.

3. Zergarik gabeko dendek eman eta aire edo itsaso bidez hirugarren herri batera edo Kanariar Uharteak ez diren hirugarren lurralde batera joaten diren bidaiariak ekipaje pertsonalean garraiatzera zuzendutako edari alkoholikoak.

22. artikulua. Itzulketak.

Zergaren itzulketarako eskubidea aitortuko da, arau bidez ezar daitezzen baldintzetan, 10. artikuluan zehaztutako izakizunetan ez ezik, honako hauetan.

- a) Alkohola edo edari alkoholduak elikagaigintzarako lurringarriak eta edari alkoholgabeak prestatzeko erabiltzen direnean.
- b) Alkohola edo edari alkoholduak, zuzenean edo ekoizkin erdielaboratuen osagai direnez, elikagai beteak edo beste ekoizteko erabiltzen direnean, baldin eta alkohol edukina, kasu bakoitzean, 100 kilogramo ekoizkineko 8,5 litro alkohol purutik gorakoa ez bada, bonboien kasuan, eta 100 kilogramo ekoizkineko 5 litro alkohol purutik gorakoa ez bada, bestelako ekoizkinen kasuan.
- c) Gizakiek kontsumitzeko ezegoki bilakatu diren edari alkoholduak fabrikara edo gordailu fiskalera itzuli edo Zerga Administrazioaren kontrolpean suntsituz gero.

23. artikulua. Xedapen bereziak Kanariar uharteei dagokienez.

1. Lege honetako 5. artikuluan ezartzen denaren kaltetan gabe, Garagardoaren, Tarteko Ekoizkinen eta Alkohol eta Edari Eratorrien gaineko Zergei loturik egongo da Europar Batasuneko beste Estatu kide batzuetatik etorriak diren eta zerga horien eremu objektiboetan bilduta dauden ekoizkinak Kanariar Uharteetan sartzea.
2. Aurreko atalean adierazten den izakizunean, zergen sortzapena kanariar artxipelagoan sartzeko unean gertatuko da. Alabaina, sartutako ekoizkinak zuzenean fabrika edo gordailu fiskal batera destinatzen badira, sartzea araubide etengarrrian egingo da.
3. Artikulu honetako 1. atalean adierazitako izakizunean, bertan aipatzen diren zergen subjektu pasibo izango dira zerga horien gai diren ekoizkinak sartzen dituzten pertsonak.
4. Garagardoaren gaineko Zerga eskagarria izango da Kanarietan Lege honetako 26. artikuluan ezartzen diren tasen arabera.
5. Tarteko Ekoizkinen gaineko Zerga eskagarria izango da Kanarietan ondorengo zerga-tasen arabera:
 - a) 100eko 15 vol.etik gora gabeko hartutako alkohol gradu bolumetrikoa duten tarteko ekoizkinak: 30,14 euro hektolitroko.
 - b) Gainerako tarteko ekoizkinak: 50,21 euro hektolitroko.
6. Alkohol eta Edari Eratorrien gaineko Zerga eskagarria izango da Kanarietan hektolitro alkohol puru bakoitzeko 750,36 euroko tasapean, Lege honetako 40 eta 41. artikuluetan xedatzen denaren kaltetan gabe.
7. Aurreko hiru ataletan aipatzen diren tasak, penintsulan eta Balear uharteetan kokaturiko fabrika edo gordailu fiskaletatik zuzenean Kanarietara, araubide etengarririk kanpo, bidaltzen diren garagardo, tarteko ekoizkin eta alkohol eta edari eratorriei ere, hurrenez hurren, aplikatuko zaie.
8. Garagardoaren, Tarteko Ekoizkinen eta Alkohol eta Edari Eratorrien gaineko Zergen eremu objektiboetan bilduta egon eta zerga horiek Kanarietan sortuak dituzten ekoizkinak penintsulan eta Balear uharteetan sartzen direnean, kontzeptu horien zioz likidatu eta sartuko dira lurralde horien artean, sartzeko unean, dauden zerga-tasen diferentziak aplikatzearen ondoriozko kuotak.
9. Lege honetako 9, 21 eta 42. artikuluetan ezarritakoaren kaltetan gabe, Garagardoaren, Tarteko Ekoizkinen eta Alkohol eta Edari Eratorrien gaineko Zergetatik salbuetsita egongo dira, arau bidez ezar daitezzen baldintzetan, honako eragiketa hauek:
 - a) 9, 21 eta 42. artikuluetan zerrendatzen direnak, Europar Batasuneko beste Estatu kide batzuetatik Kanariar Uharteetan sartutako ekoizkinekin eginak direnean.
 - b) Kanarietatik Europar Batasuneko beste Estatu kide batzuetara, artxipelagoan eteteko erregimenean dauden zerga horien gai diren ekoizkinak bidaltzea, erregimen hori amaitutzat joko dela.
10. Lege honetako 10 eta 43. artikuluetan ezarritakoaren kaltetan gabe, baldin eta arau bidez ezar daitezzen baldintzak betetzen badira, aurretik ordaindutako kuoten itzulketa partzial edo osorako eskubidea izango dute honako hauek:
 - a) Penintsulatik eta Balear uharteetatik Kanarietara Tarteko Ekoizkinen eta Alkohol eta Edari Eratorrien gaineko Zergen gai diren ekoizkinak bidaltzen dituztenek, lurralde horien artean, bidalketa egiterakoan, dauden zerga-tasen diferentziak aplikatzearen ondoriozko kuoten zenbatekoaz.

- b) Kanarietatik Europar Batasuneko beste Estatu kide batera Garagardoaren, Tarteko Ekoizkinen eta Alkohol eta Edari Eratorrien gaineko Zergen gai diren ekoizkinak bidaltzen dituztenek, bidalitako ekoizkinen zioz ordaindutako kuoten guztirako zenbatekoaz.

11. Zerga-urratze astuna izango da:

- a) Kanarietan artikulua honetako 1. atalean aipatzen diren ekoizkinak sartzea, Lege honetan eta bere araudian ezartzen diren baldintzak eta eskakizunak bete gabe. Urratzea, sartutako ekoizkinen kopuruei, artikulua honetako 4, 5 eta 6. ataletan aipatu eta urratzea antzematen den egunean indarrean dauden tasak aplikatuz, legozkiekeen kuoten halakotik hiru halakora bitarteko isunaz zehatuko da.
- b) Penintsulan eta Balear uharteetan artikulua honetako 8. atalean aipatzen diren ekoizkinak sartzea, Lege honetan eta bere araudian ezartzen diren baldintzak eta eskakizunak bete gabe. Urratzea, sartutako ekoizkinen kopuruei, bidalketa egiterakoan lurralde horien artean dauden zerga-tasen diferentziak aplikatuz, legozkiekeen kuoten halakotik hiru halakora bitarteko isunaz zehatuko da.

12. Kanariar Uharteei dagokienez, Lege honen hurrengo xedapen hauek ez dira aplikagarriak izango:

- a) 4. artikulua 8., 10., 11., 12., 14., 15., 16., 27. eta 34. atalak.
- b) 7. artikulua 1. atalaren d), e), g) eta h) letrak.
- c) 8. artikulua 2. atalaren c), d) eta e) letrak eta 3., 6. eta 9. atalak.
- d) 10. artikulua 1. atalaren c), d) eta e) atalak.
- e) 13. artikulua 2. atala.
- f) 16. artikulua 2., 3. eta 4. atalak.
- g) 17. artikulua.
- h) 8. artikulua 4. atala eta 15. artikulua 7. atala, bi kasuotan, Europar Batasunaren barruko zirkulazioari bakarrik dagokionez.

III. KAPITULUA GARAGARDOAREN GAINEKO ZERGA

24. artikulua. Eremu objektiboa.

1. Garagardoaren gaineko Zergaren eremu objektiboa osatzen dute garagardoak eta NK 2206 kodean sailkaturiko garagardo eta edari alkoholgabeen nahasketa diren ekoizkinak, baldin eta, kasu biotan, beren hartutako alkohol gradu bolumetrikoa %0,5 vol.etik gorakoa bada.
2. Lege honen ondoretarako, garagardo iritziko zaio NK 2203 kodean sailkaturiko ekoizkin orori.

25. artikulua. Zerga oinarria.

Oinarria osatuko du zergaren eremu objektiboaren barruko ekoizkinen bolumenak, 20° C-ko tenperaturan ekoizkin akabatuaren hektolitrotan adierazia.

26. artikulua. Zerga tasak.

1. Zerga, bere eremu objektiboaren barruko ekoizkinei dagokienez, honako epigrafe hauen arabera eskatuko da:

- 1a) epigrafea. %1,2 vol.etik gora gabeko hartutako alkohol gradu bolumetrikodun ekoizkinak: 0 euro hektolitroko.
- 1b) epigrafea. %1,2 vol.etik gorako eta %2,8 vol.etik gora gabeko hartutako alkohol gradu bolumetrikodun ekoizkinak: 2,75 euro hektolitroko.
2. epigrafea. %2,8 vol.etik gorako hartutako alkohol gradu bolumetrikodun eta 11tik beherako Plato gradudun ekoizkinak: 7,48 euro hektolitroko.
3. epigrafea. 11tik behera gabeko eta 15etik gora gabeko Plato gradudun ekoizkinak: 9,96 euro hektolitroko.
4. epigrafea. 15etik gorako eta 19tik gora gabeko Plato gradudun ekoizkinak: 13,56 euro hektolitroko.
5. epigrafea. 19tik gorako Plato gradudun ekoizkinak: 0,91 euro hektolitroko eta Plato graduko.
2. Aurreko atalean ezarritakoaren ondoreetarako, Plato gradua zehazterakoan, 0,2 gradutarainoko tolerantzia onartuko da.

IV. KAPITULUA

ARDOAREN ETA EDARI HARTZITUEN GAINEKO ZERGA

27. artikulua. Eremu objektiboa.

1. Zergaren eremu objektiboa osatzen dute ardo lasaiak, ardo apartsuak, edari hartzitu lasaiek eta edari hartzitu apartsuek.
2. Lege honen ondoreetarako, ardo lasaiak izango dira NK 2204 eta 2205 kodeetan sailkaturiko ekoizkin guztiak, ardo apartsuak izan ezik, honako hau dutenean:
 - a) %1,2 vol.etik gorako eta %15 vol.etik gora gabeko hartutako alkohol gradu bolumetrikoa, baldin eta ekoizkin akabatuan dagoen alkohola bere osoan hartziduratik etorria bada, edo
 - b) %15 vol.etik gorako eta %18 vol.etik gora gabeko hartutako alkohol gradu bolumetrikoa, baldin eta beren graduazioaren gehikuntza artifizialik gabe lortuak izan eta ekoizkin akabatuan dagoen alkohola bere osoan hartziduratik etorria bada.
3. Lege honen ondoreetarako, ardo apartsuak izango dira NK 2204.10, 2204.21.06, 2204.21.07, 2204.21.08, 2204.21.09 eta 2205 kodeetan sailkaturiko ekoizkin guztiak, baldin eta:
 - a) Estekailuz edo lokarriz lotutako barrengorri erako tapoidun botiletan ontziratutik egon edo disolbaturiko anhidrido karbonikoaren ziozko 3 bar edo gorako gainpresioa badute, eta
 - b) %1,2 vol.etik gorako eta %15 vol.etik gora gabeko hartutako alkohol gradu bolumetrikoa badute, baldin eta ekoizkin akabatuan dagoen alkohola bere osoan hartziduratik etorria bada.
4. Lege honen ondoreetarako, ardo hartzitu lasaiak izango dira NK 2204 eta 2205 kodeetan sailkaturik egon eta aurreko 2 eta 3. ataletan biltzen ez diren ekoizkin guztiak, eta NK 2206 kodean sailkaturiko ekoizkinak, edari hartzitu apartsuak eta Garagardoaren gaineko Zergaren eremu objektiboan biltzen diren ekoizkinak izan ezik, honako hau dutenean:
 - a) %1,2 vol.etik gorako eta %5,5 vol.etik gora gabeko hartutako alkohol gradu bolumetrikoa, edo

- b) %5,5 vol.etik gorako eta %15 vol.etik gora gabeko hartutako alkohol gradu bolumetrikoa, baldin eta ekoizkin akabatuan dagoen alkohola bere osoan hartziduratik etorria bada.
5. Lege honen ondoreetarako, edari hartzitu apartsuak izango dira NK 2206.00.31 eta 2206.00.39 kodean bildutako ekoizkin guztiak, eta NK 2204.10, 2204.21.06, 2204.21.07, 2204.21.08, 2204.21.09, 2204.29.10 eta 2205 kodeetan sailkaturik egon eta aurreko 2 eta 3. ataletan bilduta ez dauden ekoizkinak, baldin eta:
- a) Estekailuz edo lokarriz lotutako barrengorri erako tapoidun botiletan ontziratutik egon edo disolbaturiko anhidrido karbonikoaren ziozko 3 bar edo gorako gainpresioa badute, eta
- b) %1,2 vol.etik gorako eta %8,5 vol.etik gora gabeko hartutako alkohol gradu bolumetrikoa badute, edo
- c) %8,5 vol.etik gorako eta %15 vol.etik gora gabeko hartutako alkohol gradu bolumetrikoa badute, baldin eta ekoizkin akabatuan dagoen alkohola bere osoan hartziduratik etorria bada.

28. artikulua. Sortzapena.

Lege honetako 7 eta 11. artikuluetan ezarritakoa gorabehera, Ardoaren eta Edari Hartzituen gaineko Zergaren sortzapena, tarteko ekoizkinen fabriketan araubide etengarrian jaso eta Lege honetako 32. artikuluan aipatzen diren ekoizkinen fabrikazioan erabiltzen den ardoari dagokionez, tarteko ekoizkin horien fabrikatik irteterako unean gertatuko da, araubide etengarriak ez duela jarraitzerik barneko lurralde eremuaren barruan kokaturiko beste fabrika edo gordailu fiskal batzuetan sartzea dela bide.

29. artikulua. Zerga oinarria.

Oinarria osatuko du zerga honen eremu objektiboaren barruan sartzen diren ekoizkinen bolumenak, 20° C-ko tenperaturan ekoizkin akabatuaren hektolitrotan adierazia.

30. artikulua. Zerga tasak.

Zerga eskatuko da honako epigrafe hauen arabera:

1. epigrafea. Ardo lasaiak. Zero pezeta (0,00 euro) hektolitroko.
2. epigrafea. Ardo apartsuak. Zero pezeta (0,00 euro) hektolitroko.
3. epigrafea. Edari hartzitu lasaiak. Zero pezeta (0,00 euro) hektolitroko.
4. epigrafea. Edari hartzitu apartsuak. Zero pezeta (0,00 euro) hektolitroko.

V. KAPITULUA TARTEKO EKOIZKINEN GAINEKO ZERGA

31. artikulua. Eremu objektiboa.

Lege honen ondoreetarako, tarteko ekoizkinak izango dira %1,2 vol.etik gorako eta %22 vol.etik gora gabeko hartutako alkohol gradu bolumetrikoa eduki eta NK 2204, 2205 eta 2206 kodeetan sailkaturiko ekoizkin guztiak, baldin eta Garagardoaren gaineko Zergaren eta Ardoaren eta Edari Hartzituen gaineko Zergaren eremu objektiboan bilduta ez badaude.

32. artikulua. Loturarik gabeko izakizunak.

Lege honetako 6. artikuluan zehazten diren izakizunez gainera, ez dira Tarteko Ekoizkinen gaineko Zergari loturik egongo Moriles-Montilla, Tarragona, Priorato eta Terra Alta jatorrizko

izenez fabrikaturiko ekoizkinak, baldin eta alkohol gehikuntza beren hartutako alkohol gradu bolumetrikoa %1 vol. baino gehiagotan ez gehitzeko moduan egiten bada eta fabrikazioa arau bidez ezarritako baldintzak betez egiten bada.

33. artikulua. Zerga oinarria.

Oinarria osatuko du zerga honen eremu objektiboaren barruan sartzeko diren ekoizkinen bolumenak, 20° C-ko tenperaturan ekoizkin akabatuaren hektolitrotan adierazia.

34. artikulua. Zerga tasa.

23. artikuluan xedatzen denaren kaltetan gabe, zerga honako zerga-tasen arabera eskatuko da:

1. %15 vol.etik gora gabeko hartutako alkohol gradu bolumetrikoa duten tarteko ekoizkinak: 38,48 euro hektolitroko.
2. Gainerako tarteko ekoizkinak: 64,13 euro hektolitroko.

35. artikulua. Urratzeak eta zehapenak.

Ondoren adierazten diren izakizunetan, bakoitzerako zehazten diren zehapen bereziak ezarriko dira:

- a) Tarteko ekoizkinen fabrika baten izakinetan egon edo bertan erabiltzen den ardoaren hartutako alkohol gradu bolumetrikolari dagokionez, gainerako diferentziak daudenean.

Urratzea, alkohol puruaren hektolitrotan adierazitako diferentziari, Alkohol eta Edari Eratorrien gaineko Zergarako ezarritako zerga-tasa aplikatuz, legokiokeen kuotaren 100eko 100eko isunaz zehatuko da.

- b) Fabrika baten izakinetan egon edo bertatik irten diren fabrikazio-prozesuko tarteko ekoizkinen hartutako alkohol gradu bolumetrikolari dagokionez, azpitiko diferentziak daudenean.

Urratzea, alkohol puruaren hektolitrotan adierazitako diferentziari, Alkohol eta Edari Eratorrien gaineko Zergarako ezarritako zerga-tasa aplikatuz, legokiokeen kuotaren 100eko 100eko isunaz zehatuko da.

- c) Tarteko ekoizkinen fabriketan, alkohol eta edari eratorriez besteko lehengaietan, arau bidez baimendutako portzentaiak gairatzen dituzten diferentziak daudenean.

Zigorra diru-isuna izango da eta lehengaiak fabrikatzeko erabiliko diren bitarteko produktuari dagokion kuotaren ehuneko 100 izango da; kontrakoa egiaztatzen ez bada, bitarteko produktuek bolumenaren ehuneko 15etik gorako gradu alkoholikoa lortu dute..

VI. KAPITULUA ALKOHOL ETA EDARI ERATORRIEN GAINKO ZERGA

36. artikulua. Eremu objektiboa.

Honako hauek osatuko dute Alkohol eta Edari Eratorrien gaineko Zergaren eremu objektiboa:

- a) %1,2 vol.etik gorako hartutako alkohol gradu bolumetrikoa izan eta NK 2207 eta 2208 kodeetan salikaturik dauden ekoizkin guztiak, are ekoizkin horiek nomenklatura konbinatuko 22az beste kapitulu batean sailkatutako ekoizkin batean sartzeko direnean ere.

36. artikuluko a) atalak dakarren NK kodeei buruzko aipamenak NK 21069020 kodea biltzen duela ulertuko da, zerga berezien gaineko araudiko nomenklatura konbinatuko kodeen aipamenak eguneratu dituen 1995ko abenduaren 19ko Aginduaren bigarren atalean xedatu denarekin bat etorriz («E.A.O.» 27ko abendua).

- b) %22 vol.etik gorako hartutako alkohol gradu bolumetrikoa izan eta NK 2204, 2205 eta 2206 kodeetan sailkaturik dauden ekoizkinak.
- c) Gai solidoak edo landarezko beste gai batzuk soluketan dituen alkohola.

37. artikulua. Sortzapena.

Lege honetako 7 eta 11. artikuluetan ezarritakoa gorabehera, Alkohol eta Edari Eratorrien gaineko Zergaren sortzapena, tarteko ekoizkinen fabriketan araubide etengarrian jaso eta Lege honetako 32. artikuluan aipatzen diren ekoizkinen fabrikazioan erabiltzen den alkoholari dagokionez, tarteko ekoizkin horien fabrikatik irteterako unean gertatuko da, araubide etengarriak ez duela jarraitzerik barneko lurralde eremuaren barruan kokaturiko beste fabrika edo gordailu fiskal batzuetan sartzea dela bide.

38. artikulua. Zerga oinarria.

Oinarria osatuko du zerga honen gai diren ekoizkinetan bildutako alkohol puruaren bolumenak, 20° C-ko tenperaturan hektolitrotan adierazia.

39. artikulua. Zerga tasa.

Hektolitro alkohol puru bakoitzeko 958,94 euroko tasapean eskatuko da zerga, 23, 40 eta 41. artikuluetan xedatzen denaren kaltetan gabe.

40. artikulua. Artisau-distilazioaren araubidea.

1. Artisau-distilazioaren araubidea Alkohol eta Edari Eratorrien gaineko Zergaren ezarpen sistema erraztua da eta berari heldu ahal izango diote, arau bidez ezar daitezen baldintzetan, artisau distilazailak. Araubide honi aplikagarri izango zaizkio, artikulua honetan ezartzen denaren aurkakoak ez badira, Lege honetako lehen tituluko I, II eta VI. kapituluetakoa xedapenak.
2. Lortutako edarien zerga-ordainketa. Artisau-distilazioaren araubidean lortutako edariak honako tarifa hauen pean egongo dira:
 - a) Artisau-distilazioaren araubideko lehen tarifa.
 - 1.a. Zerga egitatea. Tarifa honen pean dago distilazio-aparatuak erabiltzeko gaitasuna.
 - 2.a. Sortzapena. Zerga sortuko da Zerga Administrazioaren aurrean distilatzeko baimen egokia eskatzen den unean.
 - 3.a. Subjektu pasiboa. Subjektu pasiboa izango da, zergadun denez, artisau distilazaila.
 - 4.a. Zerga oinarria. Zerga oinarria, alkohol puruaren hektolitrotan adierazia, distilazio-aparatuaren galdararen edukiera adierazten duen litro kopurua 0,016 koefizienteaz, distilatuko den lehengaiaren hartutako alkohol gradu bolumetrikooz –bateko hainbestetan adierazia– eta distilatzeko baimen eskearen gai den egun kopuruaz biderkatzetik ateratzen den emaitza izango da.
 - 5.a. Karga tasa. Hektolitro alkohol puru bakoitzeko 839,15 euroko tasapean eskatuko da zerga. Zerga Kanarietan eskagarria denean, tasa hori 653,34 eurokoa izango da hektolitro alkohol puru bakoitzeko. Zenbaki honetan xedatzen dena 41. artikuluan ezarritakoaren kaltetan gabe ulertzen da.
 - b) Artisau-distilazioaren araubideko bigarren tarifa.

- 1.a. Zerga egitatea. Tarifa honen pean egongo da artisau distilatzaile batek, araubide honen itzalpean, etenkako distilazio zuzenaren bidez egindako edari eratorrien fabrikazioa, lehen tarifaren zerga oinarria denetik gorako kopuruan.
 - 2.a. Sortzapena. Zerga sortuko da tarifa honen gai diren edari eratorrien fabrikazioaren unean.
 - 3.a. Subjektu pasiboa. Subjektu pasiboa izango da, zergadun denez, artisau distilatzailea.
 - 4.a. Zerga oinarria. Araubide honetako lehen tarifako zerga oinarriaren gainetiko alkohol puruaren hektolitroen kopurua.
 - 5.a. Karga tasa. Hektolitro alkohol puru bakoitzeko 839,15 euroko tasapean eskatuko da zerga. Zerga Kanarietan eskagarria denean, tasa hori 653,34 eurokoa izango da hektolitro alkohol puru bakoitzeko. Zenbaki honetan xedatzen dena 41. artikuluan ezarritakoaren kaltetan gabe ulertzen da.
3. Zergaren itzulketa. Lege honetako 15. artikuluko 5. atalean ezarritakoa gorabehera, artisau distilatzaileek ekoiztutako edariak beste edari eratorrien fabrika batzuetarako destinatu ahal izango dituzte, eskubidea dutela kasu hauetan ordaindutako dagozkien kuoten itzulketa jasotzera, baldin eta arau bidez ezarritako baldintzak betetzen badira.
 4. Distilatzaile txikiek beste Estatu kide batzuetan fabrikaturiko edari eratorriak sartzea. Beste Estatu batzuetan kokaturiko ekoizle lokabeek, 10 hektolitro alkohol purutik gora gabeko urteko ekoizpena dutenek, fabrikaturiko edari eratorriei aplikagarri zaion tasa 839,15 eurokoa izango da hektolitro alkohol puru bakoitzeko. Zerga Kanarietan eskagarria denean, tasa 653,34 eurokoa izango da hektolitro alkohol puru bakoitzeko.
 5. Urratzeak eta zehapenak.
 - a) Zerga-urratze astuna izango da distilazio prozesuan, distilatzeko baimen eskabidean aitorturikoa baino alkohol graduazio altuagoa duten lehengaiak erabiltzea. Urratze hau zehatzeko ezarriko den isuna 35. artikuluko a) idazatian ezarritako prozeduraren bitartez zehatuko da eta gutxienez 200.000 pezetakoa (1202,02 euro) izango da.
 - b) Zerga-urratze astunak edo Lege honetako 45. artikuluan aipatzen diren zehapen bereziekin zigortzen diren urratzeak errepikatuz gero, gainera, artisau-distilazioen araubidez baliatzearen debekuaz, aldi baterako edo behin betiko, zehatu ahal izango dira.

41. artikulua. Ardoginaren araubidea.

Artisau-distilazioaren araubidean lortutako edari eratorriak fabrikatik ardoginen kontsumorako zuzenean destinatzen direnean, arau bidez ezar daitezzen modu eta baldintzetan, zerga-tasa aplikagarria 226,36 eurokoa izango da hektolitro alkohol puru bakoitzeko. Zerga Kanarietan eskagarria denean, tasa 175,40 eurokoa izango da hektolitro alkohol puru bakoitzeko. Tasa hauen aplikazioa ardogin eta urte bakoitzeko 16 litro alkohol puruaren baliokideko edari kopurura mugatuko da.

42. artikulua. Salbuespenak.

Salbuetsita egongo dira, arau bidez ezar daitezzen baldintzetan, 9 eta 21. artikuluetan aipatzen diren eragiketez gainera, honako hauek:

1. Guztiz desnaturalizatua izateko destinatzen den alkoholaren fabrikazio eta inportazioa, eta alkohol guztiz desnaturalizatuaren inportazioa, erregelamenduz ezartzen den prozeduraren arabera edo, Europar Batasunaren barruko zirkulazioaren kasuetan, Europar Batasuneko beste estatu kide baten xedapenen arabera.

2. Partzialki desnaturalizatua izateko destinatzen den alkoholaren fabrikazio eta inportazioa, eta alkohol partzialki desnaturalizatuaren inportazioa, arau bidez ezar dadin prozeduraren arabera, gero gizakien irensketa-bidezko kontsumoaz bestekoa den eta aurretik baimenduta dagoen helburu batean erabiltzeko denean.
3. Aurreko ataletan adierazitako izakizunetan, salbuespenaren onura zirkulazioaren arloko beharkizunak betetzera eta alkohol desnaturalizatuari emandako erabilera edo destinoa justifikatzera baldintzaturik geratuko da.
4. Alkohola fabrikatzea eta inportatzea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001/82/EE Zuzentarauak, 2001eko azaroaren 6koak, albaitaritzako sendagaiei buruzko Europar Batasuneko kodea ezartzen duenak, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001/83/EE Zuzentarauak, 2001eko azaroaren 6koak, gizakientzako sendagaiei buruzko Europar Batasuneko kodea ezartzen duenak, aipatzen dituzten sendagaiak fabrikatzeko.
5. Osasun laguntzako zentroetan erabiltzeko destinatzen den alkoholaren fabrikazio eta inportazioa.
6. Zergaren gai diren ekoizkinak bildu eta nomenklatura konbinatuko 22az beste kapitulu batean sailkaturiko ekoizkinen inportazioa, barneko lurralde eremuaren barruko fabrikazioari Lege honetan ezarritako salbuespen edo itzulketaren izakizunetakoren bat aplikagarri zaionean.
7. Ofizialki aintzatetsitako zentroetan, irakaskuntzarako edo zientzi helburu soilekin, alkohola fabrikatzea, baldin eta zentro horietatik irteten ez bada.
8. Dagokion baimena eman ondoren, zientzi ikerketarako destinatzen den alkoholaren fabrikazio eta inportazioa.

43. artikulua. Itzulketak.

10 eta 22. artikuluetan aurreikusten diren izakizunez gainera, zergaren itzulketarako eskubidea aintzatetsiko da, arau bidez ezar daitezzen baldintzetan, alkohola, alkohol desnaturalizatua erabiltzerik ez duten fabrikazio prozesuetan erabiltzen denean, baldin eta alkohola prozesuaren ondoriozko ekoizkinari gaineratzen ez bazaio.

44. artikulua. Kudeatzeko arau bereziak.

1. Debekaturik geratzen da alkohola fabrikatzeko aparatu eramankorrek erabiltzea.
2. Artikulu debekatuak izango dira, uztailaren 13ko 7/1982 Lege organikoaren 3. artikuluan aurreikusten denaren ondoretarako, alkohola distilatzeko edo zuzentzeko gai diren aparatuak, beren fabrikazio, merkaturaketa, zirkulazio eta edukitzerako arau bidez ezarritako eskakizunak betetzen ez direnean.
3. Lege honetako 15. artikuluko 7. atalean ezarritakoa gorabehera, alkohol guztiz edo partzialki desnaturalizatua edo 22 eta 42. artikuluetan aurreikusten diren salbuespen edo itzulketa izakizunetakoren bat aplikatuz alkohol erantsia duten farmazi espezialitateen eta nomenklatura konbinatuko 22az beste kapitulu batean sailkaturiko ekoizkinen zirkulazio eta edukitza ez dira, zergari dagokionez, inolako erazko eskakizunik betetzera behartuta egongo.

45. artikulua. Urratzeak eta zehapenak.

1. Ondoren adierazten diren izakizunak zerga-urratze bakunak izango dira eta bakoitzerako zehazten diren zehapen bereziak ezarriko zaizkie:
 - a) Alkohola ekoizteko aparatuak, arau bidez ezarritako tramiteak bete gabe edo aitorturiko lan-aldia iraungi ondoren, funtzioamenduan jartzea zehatu egingo da, azkeneko lan-

aitorpena iraungi zenetik urratzea antzematen den unera arteko eta gehienez hiru hilabeteko aldian etenik gabeko lanean lortu ahal izango litzatekeen ekoizpen-bolumenari, 20° C-ko tenperaturako hektolitro alkohol purutan adierazita, urratzea antzematen den unean indarrean dagoen zerga-tasa aplikatuz gertatuko litzatekeen kuotaren 100eko 150eko isunaz.

- b) Alkohola ekoizteko aparatu prezintatuak funtzionamenduan jarri edo deposito prezintatuetatik alkohola atera ahal izateko prezintoak haustea, aurreko atalaren arabera kalkulaturako kuoten edo depositoaren guztizko edukierari dagokion kuotaren 100eko 100eko isunaz zehatuko da hurrenez hurren, salbu eta haustura horren berri eman bazaio Administrazioari honek antzeman baino lehen.
 - c) Alkohol fabriketan, arau bidez baimendutako portzentaiak gainditzen dituzten lehengaien diferentziak, lehengai horiek erabiliz fabrikatu ahal izango litzatekeen alkohol puruari legokiokeen kuotaren 100eko 100eko isunaz zehatuko dira.
 - d) Edari eratorriak botilatzeko baimenduta dauden establezimenduetan egindako zenbaketetan, erabilitako marka fiskal edo ezaugarrien 1.000ko 0,5 baino gehiago falta izatea, marka horien itzalpean zirkulazioan egon zitezkeen edari eratorrien kopuruari dagokion alkohol puruaren bolumenari, urratzea antzematen den unean indarrean dagoen zerga-tasa aplikatuz gertatuko liratekeen kuoten 100eko 150eko isunaz zehatuko da, edarien hartutako alkohol gradu bolumetrikoa 100eko 40 vol.ekoa dela eta marka-motari dagokion edukiera handieneko ontzietan botilaturik daudela suposatuta.
2. Alkohol guztiz edo partzialki desnaturalizatuak lehengoratzea zerga-urratze astuna izango da eta isunaz zehatuko da, zerga-kuota eskatzearen kaltetan gabe. Isun horren zenbatekoa, 20° C-ko tenperaturako hektolitro alkohol purutan adierazitako lehengoratutako alkohol bolumenari, urratzea antzematen den unean indarrean dagoen zerga-tasa aplikatuz gertatzen den zenbatekoaren hiru halako izango da; gainera, erregenerazio hori gertatu zen establezimendua ixteko zehapena, lege honetako 19. artikuluko 4. idatz-zatian aurreikusien arabera. Alkohol guztiz edo partzialki desnaturalizatua lehengoratua izan dela pentsatuko da bere erabilera edo destinoa justifikatzen ez denean.

VII. KAPITULUA HIDROKARBURUEN GAINEKO ZERGA

46. artikulua. Eremu objektiboa.

- 1. Lege honen ondoreetarako, ondoko produktuak Hidrokarburoen gaineko Zergaren eremu objektiboan daude:
 - a) NK 2705, 2706, 2707, 2709, 2710, 2711, 2712 eta 2715 kodeetan sailkatutako produktuak.
 - b) NK 2901 eta 2902 kodeetan sailkatutako produktuak.
 - c) NK 3403 kodean sailkatutako produktuak.
 - d) NK 3811 kodean sailkatutako produktuak.
 - e) NK 3817 kodean sailkatutako produktuak.
 - f) NK 2207.20.00 kodean sailkatutako nekazaritzako produktuez edo landare-gaiez sortzen den alkohol etilikoa, erregai gisa erabiltzen bada, berez edo kimikoki eraldatuta.
 - g) Ondoren adieraziko diren produktuak, erregai gisa erabiltzen badira:
 - 1.a. NK 2905.11.00 kodean sailkatutako alkohol metilikoa, nekazaritzako produktuez edo landare-gaiez sortua, berez edo kimikoki eraldatuta.

2.a. NK 1507 – 1518 bitarteko kodeetan sailkatutako produktuak, berez zein kimikoki eraldatuta, bai eta haiez baliatuta sortzen diren NK 2710.20, 3826.00.10 y 3826.00.90 kodeko produktuak ere.

2. Zergaren eremu objektiboan sartuta egongo dira, orobat, aurreko atalean bilduta ez egon eta erregai gisa, erregaien gehigarri gisa edo zenbait erregairen amaierako bolumena gehitzeko erabiltzeko diren ekoizkinak.
3. Zergaren eremu objektiboan sartuko dira, halaber, artikuluko honetako 1. atalean adierazten direnez bestelako hidrokarburoak –ikatz, lignitoa, zohikatza edo bestelako hidrokarburo solidoak eta gas naturala izan ezik–, erregai gisa erabiltzeko direnean.

47. artikulua. Loturarik gabeko izakizunak.

1. Ez dira zergari loturik egongo honako hau inplikatzen duten autokontsumoko eragiketak:
 - a) Araubide etengarrian dauden hidrokarburoak karburagai edo erregaiak bestelako erabileretarako erabiltzea.
 - b) Hidrokarburoak araubide etengarriko hidrokarburoen fabrikazio prozesuan erregai gisa erabiltzea.
2. Barnekoa ez den elkarrearen lurralde eremuan kontsumora jarriak diren hidrokarburoak, merkataritzako ibilgailu automobiletako deposito arruntetan bilduak, eta ibilgailu horien karburagai gisa erabiltzeko direnak, eta edukiontzi berezietan bilduta egon eta, garraio bitartean, edukiontzi horiek equipatzen dituzten sistemen funtzionamendurako direnak, ez dira Hidrokarburoen gaineko Zergari loturik egongo barneko lurralde eremuan. Manu honen eta 51. artikuluko 5 eta 6. atalen ondoreetarako:
 - a) «Deposito arruntak» dira:
 - Eraikitzaileak dagokion garraio bidearen mota bereko garraio bide guztietan era iraunkorrez finkaturiko depositoak, beren jarrera iraunkorra karburagaia, bai ibilgailuen trankiziorako, bai, behar izanez gero, garraio bitartean hozkuntza-sistemen edo bestelako sistemen funtzionamendurako, zuzenean erabiltzeko bide emateko modukoa izan behar dela. Era berean, deposito arruntak dira garraio bideei egokituak izan eta gasa zuzenean karburagai gisa erabiltzeko bide ematen duten gas-depositoak, baita garraio bideak izan ditzakeen bestelako sistemei egokituak diren depositoak ere.
 - Eraikitzaileak dagokion garraio bidearen mota bereko garraio bide guztietan era iraunkorrez finkaturiko depositoak, beren jarrera iraunkorra karburagaia, garraio bitartean, hozkuntza-sistemen edo erabilera berezietako edukiontzien dituzten bestelako sistemen funtzionamendurako, zuzenean erabiltzeko bide emateko modukoa izan behar dela.
 - b) «Edukiontzi bereziak» dira:

Hozkuntza, oxigenazio, isolamendu termiko edo bestelako sistemei bereziki egokitutako dispositiboak dituzten edukiontziak.

48. artikulua. Zerga oinarria.

1. Zergaren oinarria osatuko du zergaren gai diren ekoizkinen bolumenak, 15° C-ko tenperaturan milaka litrotan adierazia. Alabaina, beren zerga-tasa pisu edo energia unitateen arabera ezartzen zaien ekoizkinetarako, oinarria osatuko du ekoizkinaren pisuak, tona metrikotan adierazita, edo bere ahal energetikoak, gigajuliotan (GJ) adierazita.
2. Tenperaturaren araberrako bolumena zehazteko, Nomenklaturaren Nazioarteko Erakundearen taulak, ISO 91/1-1982 erreferentziadunak, erabiliko dira.

49. artikulua. Kontzeptuak eta definizioak.

1. Zerga honen ondoreetarako, honako definizio hauek ezartzen dira:

- a) Gasolina berundunak: Haien erabilera gorabehera, 2710.12.31, 2710.12.51 eta 2710.12.59 NK kodeetan sailkatutako produktuak.
- b) Berunik gabeko gasolina: Haien erabilera gorabehera, 2710.12.41, 2710.12.45 eta 2710.12.49 NK kodeetan sailkatutako produktuak.
- c) Gainerako olio arinak: Galosina berunduna edo berungabea ez diren eta 2710.12.11tik 2710.12.90ra bitarteko NK kodeetan sailkatutako produktuak. Halaber, 2710.12.21 eta 2710.12.25 NK kodeetan sailkatutako produktuak izanez gero, atal honetan sartuta egoteagatik ezartzen diren xedapenak bakarrik aplikatuko zaizkie handizkako merkataritza mugimenduei.
- d) Kerosenoa: NK 2710.19.21 eta 2710.19.25 kodeetan sailkaturiko ekoizkinak.
- e) Gainerako olio ertainak: NK 2710.19.11tik 2710.19.29 bitarteko kodeetan sailkaturiko ekoizkinak, kerosenoa ez besteak. NK 2710.19.29 kodean sailkaturiko ekoizkinak direnean, atal honetan sartzeari darizkion xedapenak handizkako merkataritzako mugimenduei soilik izango zaizkie aplikagarri.
- f) Gasolio: 2710.19.31tik 2710.19.48ra eta 2710.20.11tik 2710.20.19ra bitarteko NK kodeetan sailkatutako produktuak.
- g) Fuelolioa: 2710.19.51tik 2710.19.68ra eta 2710.20.31tik 2710.20.39ra bitarteko NK kodeetan sailkatutako produktuak.
- h) Petrolio gas likuatua (PGL): NK 2710.12.11 - 2711.19.00 bitarteko kodeetan sailkaturiko ekoizkinak.
- i) Gas naturala: NK 2711.11.00 eta 2711.21.00 kodeetan sailkaturiko ekoizkinak.
- j) Bioetanola: 46.1.f) artikuluko ekoizkinak.
- k) Biometanola: 46.1.g).1. artikuluko ekoizkinak.
- l) Biodiesela: 46.1.g)2. artikuluko ekoizkinak.
- m) Bioerregaiak: biometanola eta biodiesela, erregai gisa erabiliz gero, eta bioetanola.
- n) Bioerregaiak: biometanola eta biodiesela, erregai gisa erabiliz gero.
- ñ) Kontrolpeko beste hidrokarburo batzuk: NK 2707.10, 2707.20, 2707.30, 2707.50, 2901.10, 2902.20, 2902.30, 2902.41, 2902.42, 2902.43 eta 2902.44 kodeetan sailkatutako ekoizkinak.
- o) Artikulu honetan, produktu energetiko eta elektrizitatekoen zergen araubide komunitarioa berregituratzen duen 2003. urteko urriaren 27ko Kontseiluaren 2003/96/EE Zuzentarauaren 20.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, 92/12/EEE Zuzentaria indargabetzen duen zerga berezien araubide orokorrari buruzko 2008. urteko abenduaren 16ko Kontseiluaren 2008/118/EE Zuzentarian aurreikusitako kontrol eta zirkulazioko xedapenak aplikagarri zaizkion beste edozein produktu definituta dagoela joko da.

2. Zerga honen ondoreetarako:

- a) Karburagai erabilera: hidrokarburoen gaineko Zergaren eremu objektiboan bildutako ekoizkin bat nolana hiko motoretan errekuntzarako erabiltzea.

- b) Erregai erabilera: hidrokarburo bat, errekontza bidez, berokuntzarako erabiltzea, karburagai erabilera ez denean.

50. artikulua. Zerga tasak.

1. Karga-tasa aplikagarria eratzeko tasa orokorra eta tasa berezia batuko dira. Epigrafeetan tasa orokorra eta tasa berezia zehazten ez badira, karga-tasa epigrafean definituko da. Tasak ondoren tarifetan eta epigrafeetan agertzen dira:

1. tarifa:

1.1 epigrafea. Gasolina berundunak: 433,79 euro 1.000 litroko (tasa orokorra) eta 72 euro 1.000 litroko (tasa berezia).

1.2.1 epigrafea. 98 OI (oktanaje indizea) edo oktanaje handiagoa duten berunik gabeko gasolinak: 431,92 euro 1.000 litroko (tasa orokorra) eta 72 euro 1.000 litroko (tasa berezia).

1.2.2 epigrafea. Berunik gabeko gainerako gasolinak: 400,69 euro 1.000 litroko (tasa orokorra) eta 72 euro 1.000 litroko (tasa berezia).

1.3 epigrafea. Erabilera orokorreko gasolioak: 307 euro 1.000 litroko (tasa orokorra) eta 72 euro 1.000 litroko (tasa berezia).

1.4 epigrafea. 54. artikulua 2. atalean xedatutako erabileretan karburante gisa eta, oro har, erregai gisa erabil daitezkeen gasolioak: 78,71 euro 1.000 litroko (tasa orokorra) eta 18 euro 1.000 litroko (tasa berezia).

1.5 epigrafea. Fuel-olioak: 14,00 euro tonako (tasa orokorra) eta 3 euro tonako (tasa berezia).

1.6 epigrafea. Erabilera orokorreko PGL: 57,47 euro tonako.

1.8 epigrafea. Erregaiak beste erabileretarako PGLak: 15 euro tonako.

1.9 epigrafea. Erabilera orokorreko gas naturala: 1,15 euro gigajulioko.

1.10.1 epigrafea. Erregai gisa erabiltzen ez den gas naturala, eta motor geldikorretan erregai gisa erabiltzen den gas naturala: 0,65 euro gigajulioko.

1.10.2 Epigrafea. Xede profesionaletan erabiltzeko gas naturala, betiere energia elektrikoa zuzenean zein zeharka ekoizteko edo koekoizteko erabiltzen ez bada: 0,15 euro gigajouleko.

Epigrafe horretan jasotakoaren ondorioetarako, lantegi eta instalazio industrialetan kontsumitzeko egiten diren gas naturalaren hornidurak hartuko dira erabilera profesionaletarako gas naturaltzat, baina sailkapen horretatik kanpo geratuko da lantegi edo instalazio industrialak ez diren establezimendu edo lokaletan kontsumitzeko energia termiko erabilgarria ekoizteko erabiltzen dena. Era berean, laborantzan erabiltzen den gas naturala ere erabilera profesionalerako gas naturaltzat hartuko da.

1.11 epigrafea. Erabilera orokorreko kerosenoa: 306 euro 1.000 litroko (tasa orokorra) eta 72 euro 1.000 litroko (tasa berezia).

1.12 epigrafea. Karburantez bestelako erabileretarako kerosenoa: 78,71 euro 1.000 litroko.

1.13 Bioetanola eta biometanola, erregai gisa erabiltzeko:

- a) Bioetanola eta biometanola 98 OI (oktanaje indizea) edo oktanaje handiagoa duten berunik gabeko gasolinetan nahastua: 431,92 euro 1.000 litroko (tasa orokorra) eta 72 euro 1.000 litroko (tasa berezia).

b) Bioetanola eta biometanola, gainerako berunik gabeko gasolinetan nahastua edo nahastu gabe: 400,69 euro 1.000 litroko (tasa orokorra) eta 72 euro 1.000 litroko (tasa berezia).

1.14 epigrafea. Karburante gisa erabiltzeko biodiesela: 307 euro 1.000 litroko (tasa orokorra) eta 72 euro 1.000 litroko (tasa berezia).

1.15 epigrafea. 54. artikulua 2. atalean xedatutako erabileretan karburante gisa eta, oro har, erregai gisa erabil daitekeen biodiesela, eta erregai gisa erabiltzeko biometanola: 78,71 euro 1.000 litroko (tasa orokorra) eta 18 euro 1.000 litroko (tasa berezia).

1.16 epigrafea. ...

1.17 epigrafea. ...

2. tarifa:

2.1 epigrafea. Harrikatzeako mundrunak eta NK 2706 kodean sailkaturiko gainerako ekoizkinak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa.

2.2 epigrafea. Benzolak eta NK 2707.10, 2707.20, 2707.30 eta 2707.50 kodeetan sailkaturiko ekoizkinak: 1.1 epigraferako ezarritako tasa.

2.3 epigrafea. NK 2707.91.00 kodean sailkaturiko kreosotazko olioak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa.

2.4 epigrafea. Olio gordinak eta NK 2707 kodean sailkaturiko ekoizkinetatik 2.2 eta 2.3 epigrafeetan bilduta ez daudenak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa.

2.5 epigrafea. Gas naturalez kondentsaturiko olio gordinak, NK 2709 kodean sailkatuak, erabilera orokorrekoak: 1.11 epigraferako ezarritako tasa.

2.6 epigrafea. Gas naturalez kondentsaturiko olio gordinak, NK 2709 kodean sailkatuak, erregaiak beste erabileretakoak: 1.12 epigraferako ezarritako tasa.

2.7 epigrafea. NK 2709 kodean sailkaturiko gainerako ekoizkinak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa.

2.8 epigrafea. Gasolina bereziak eta NK 2710.12.11, 2710.12.15, 2710.12.21, 2710.12.25, 2710.12.70 y 2710.12.90 kodeetan sailkaturiko gainerako ekoizkinak, beraien destinoa gorabehera: 1.1 epigraferako ezarritako tasa.

2.9 epigrafea. Erabilera orokorreko olio ertainak, NK 2710.19.11, 2710.19.15 eta 2710.19.29 kodeetan sailkatutako kerosenoak ez besteak, beraien destinoa gorabehera: 1.11 epigraferako ezarritako tasa.

2.10 epigrafea. Erregaiak beste erabileretarako olio ertainak, NK 2710.19.11, 2710.19.15 eta 2710.19.29 kodeetan sailkatutako kerosenoak ez besteak, beraien destinoa gorabehera: 1.12 epigraferako ezarritako tasa.

2.11 epigrafea. NK 2710.19.71, 2710.19.75, 2710.19.81, 2710.19.83, 2710.19.85, 2710.19.87, 2710.19.91, 2710.19.93, 2710.19.99 eta 2710.20.90 kodeetan sailkatutako olio astunak eta prestakinak, destinoa gorabehera: 1.5 epigraferako ezarritako tasa.

2.12 epigrafea. NK 2711.29.00 kodean sailkaturiko erabilera orokorreko hidrokarbuo gaseosoak, metanoa salbu: 1.9 epigraferako ezarritako tasa.

2.13.1 epigrafea. NK 2711.29.00 kodean sailkatutako hidrokarbuo gaseosoak eta NK 2705 kodean sailkatutako produktuak, baita biogasa ere, erregai gisa erabiltzen ez dena edo motor geldikorretan erregai gisa erabiltzen dena: 1.10.1 epigraferako ezarritako tasa.

2.13.2 epigrafea. NK 2711.29.00 kodean sailkatutako hidrokarburo gaseosoak eta NK 2705 kodean sailkatutako produktuak, baita biogasa ere, xede profesioaletan erabiltzekoak, betiere ekoizpen eta koekoizpen elektrikoko prozesuetan erabiltzen ez badira: 1.10.2 epigraferako ezarritako tasa.

Azken bi epigrafe horiek aplikatze aldera, biogas gisa ulertuko da biomasatik edota hondakinen zatiki biodegradagarritik ekoiztutako erregai gaseosoa, purifikatu ahal dena ur naturalaren pareko kalitatea lortu arte, bioerregai gisa erabiltzeko, edo egurretik ekoiztutako gasa.

2.14 epigrafea. Baselina eta NK 2712 kodean sailkaturiko gainerako ekoizkinak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa.

2.15 epigrafea. NK 2715 kodean sailkatutako nahaskin bituminosoak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa.

2.16 epigrafea. Osaketa kimiko zehatza duten hidrokarburoak, Zergaren eremu objektiboan bilduak eta NK 2901 eta 2902 kodeetan sailkaturik daudenak: 1.1 epigraferako ezarritako tasa.

2.17 epigrafea. NK 3403 kodean sailkatutako prestakinak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa.

2.18 epigrafea. NK 3811 kodean sailkatutako prestakin antide-tonatzaileak eta gehigarriak: 1.1 epigraferako ezarritako tasa.

2.19 epigrafea. NK 3817 kodean sailkaturiko alkilbentzenoen nahasiak eta alkilnaftalenoen nahasiak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa.

2.20 epigrafea. NK 2710.91.00 eta 2710.99.00 kodeetan sailkatutako olio hondakinak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa.

2. 46. artikulua 2. eta 3. atalean dauden produktuei zergaren 1. tarifa sartutako hidrokarburoei dagokien zerga-oinarria aplikatuko zaie, erabilera-gaitasuna baliokidea bada. Hori Legearen 54. artikulua 1. atalak aipatutako erabilera-baimenaren espedientetik ondorioztatuko da.
3. 8. artikuluko 7. atalean xedatutakoa alde batera utzi gabe, artikuluko honetan finkatutako zerga oinarriak aplikatuko dira araubidez aurrez ikusitako baldintzak betetzen badira, hala badagokio, marrazleak eta markatzaileak gehitzea, produktuei egiaz emandako erabilera edo ordainketa bitarteko bereziak erabiltzea barne.
4. Hornidura-puntu bakarreko instalazioei egindako gas naturalaren horniduren (erabilera profesionalerako nahiz beste erabilera batzuetarako erregai gisa erabiltzeko) kasuan, artikuluko honetako 1. ataleko 1.10.1 eta 1.10.2 epigrafeetan arautzen diren zerga-tasak aplikatuko dira, erabilera bakoitzean erabilitako ehunekoaren arabera, araubidez ezartzen den prozedurari jarraikiz.

50 bis artikulua. Bioerregaien gaineko zerga-tasak.

1. Bioerregaiari lege honetako 50. artikuluko 1. atalean ezarritako 1. tarifako 1.13 - 1.15 bitarteko epigrafeetan zehaztutako tasak aplikatuko zaizkie.

Tasa horiek bioerregaiaren bolumenari aplikatuko zaizkie; beste batzuekin nahasita erabiltzen badira, haiei ez zaizkie aplikatuko.

2. Petrolio-gaien eta bioerregaien kostuen bilakaera konparatiboa dela-eta egokitzen jotzen denean, Estatuko Aurrekontu Orokorreko buruzko legeetan 1.13 - 1.15 bitarteko epigrafeetako zerga-tasak inguruabar horien arabera finkatu ahal izango dira, eta behar den kasuetan zerga-tasa positiboak ezarri ahal izango dira.

50 ter artikulua. Zerga-tasa autonomikoa.

...

51. artikulua. Salbuespenak.

Lege honetako 9. artikuluan aipatzen diren eragiketez gainera, salbuetsita egongo dira, arau bidez ezar daitezzen baldintzetan eta 53. artikuluko 4. atalean xedatzen denaren kaltetan gabe, honako eragiketa hauek:

1. Gas naturala eta Zergaren eremu subjektiboko 2. tarifan dauden gaien fabrikazioa eta inportazioa, erregai gisa erabiltzeko ez badira
2. Zergaren eremu objektiboan bilduta dauden ekoizkinen fabrikazio eta inportazioa, jarraikoetarako direnean:
 - a) Airezko nabigazioan karburagai gisa erabiltzeko, josteta-abiazio pribatuan salbu.
 - b) Nabigazioan, arrantza barne, karburagai gisa erabiltzeko, josteta-nabigazio pribatuan salbu.
 - c) Zentral elektrikoetan elektrizitatea ekoiztea edo zentral bateratuetan elektrizitatea ekoiztea edo elektrizitatea eta beroa batera ekoiztea.

Salbuespen hau aplikatzean honako hauek hartu behar dira kontuan:

“Zentral elektrikoa”: Instalazio bat da eta energia elektrikoa produzitzeko jarduera Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen aplikazio-eremuan kokatzen da. Gainera, kokatzeko eta funtzionatzeko baimena aipaturiko legearen IV. tituluaren xedatutakoarekin bat eman da.

“Zentral konbinatua”: Instalazio bat da eta energia elektrikoaren eta ondoren energiaren ikuspegitik aprobetxatzeko bero erabilgarriaren baterako sorkuntza edo elektrizitatearen produkzio-jarduera Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen aplikazio-eremuan sartuta dago. Gainera, kokatzeko eta funtzionatzeko baimena aipaturiko legearen IV. tituluaren xedatutakoarekin bat eman da.

Salbuespena aplikatzeko, elektrizitatea ekoizteko zentralen edo elektrizitatea batera ekoizteko zentral bateratuen titularrak baimena eskatu beharko dio alde zurek aurretik kudeaketa bulegoari.

- d) Trenbidezko garraioan karburagai gisa erabiltzeko.
- e) Aireuntzi eta itsasuntzien eraikuntzan, aldakuntzan, probetan eta mantenimenduan erabiltzeko.
- f) Bide nabigagarrietan eta portuetan karrakatzeko lanetan erabiltzeko.
- g) Labe garaietan injektatzeko, erredukzio kimikorako, erregai nagusi gisa erabiltzen den ikatzari gaineratuak, are injekzio horretatik, bigarren mailako ondorioa dela, berokuntzarako aprobetxatzen den erredukzio gertatzen bada ere.

Gasolioaren erabilerarekiko salbuespena 2. atal honetan aipatzen diren izakizunetan aplikatzea baldintzaturik geratuko da, autokontsumoko eragiketa lotuen kasuan salbu, gasolioak arau bidez tasa gutxietan aplikatzeko eskatzen diren trazagailuak eta markagailuak gaineraturik eramatera.

3. Bioerregaien fabrikazioa edo inportazioa, gutxiago kutsatzen duten produktuak garatzeko eredu-proiektuen eremuan. Salbuespena bioerregaiari soilik aplikatuko zaio; ezin zaie aplikatu harekin nahasten diren gaiak.

Idatz-zati honen eta lege honetako 52.c) artikulua ondoz ondo, «gutxiago kutsatzen duten produktuak garatzeko eredu-proiektu»tzat hartuko dira horrelako produktuak ekoiztearen edo erabiltzearen inguruko proiektu esperimentalak, aldi jakin batean burutu beharrekoak eta haien ekoizpenaren edo erabilpenaren bideragarritasun tekniko edo teknologikoa helburu dutenak, emaitzak industrian ustiatzea bazter utzita. Proiektu batek produktu kopuru jakin bat, arau bidez ezarriko dena, baino gehiago ukitzen ez badu, aurrekoa betetzat joko da.

4. NK 2705 kodean sailkatutako produktuen eta biogasaren fabrikazio eta inportazioa, elektrizitatea ekoizteko edo elektrizitatea eta beroa koekoizteko badira ala sortu den instalazioetan autokontsumorako bada.

Salbuespen hau aplikatzeko, elektrizitatearen ekoizpena edo elektrizitate eta beroaren kogenerazioa hurrengo betetzen duen instalazio batean egin behar da: energia elektrikoaren ekoizpenak edo energia elektriko eta bero erabilgarriaren kogenerazioak, gero, energia aprobetxatzeko, 24/2013 Legeak, abenduaren 26koak, sektore elektrikoari buruzkoak, xedatutakoaren eremuan sartu beharko du eta kokatu nahiz funtzionatzeko orduan, legeak IV. tituluan xedatutakoaren arabera baimendu da.

5. Turismoko automobilen deposito arruntetan bildutako karburagaiak eta, deposito eramankorretakoa, ibilgailu bakoitzeko gehienez 10 litrotaraino, inportatzea, karburagaien edukitza eta garraioari buruz indarrean dagoen arautegia aplikatzearen kaltetan gabe.
6. Merkataritzako ibilgailu automobilen deposito arruntetan eta edukiontzi berezietan bildutako karburagaien inportazioa, gehienez 200 litrotaraino.

52. artikulua. Itzulketak.

Zergaren zioz ordaindutako kuoten itzulketarako eskubidea aitortuko da, arau bidez ezar daitezkeen baldintzetan, 10. artikuluan zehaztutako izakizunetan ez ezik, honako hauetan:

- a) Industri ustiatzearen titularrek Zergaren kargapean dauden ekoizkinak erregai gisa erabiltzeko kontsumitzea, hain zuzen ere 1. tarifako tasak aplikatu ahal zaizkienak, gas naturala izan ezik.
- b) Jostetako pribatuaz betelako nabigazioa egiten duten itsasuntzien gasolio-horniketa. Itzulketak baldintzaturik geratzen da hornitutako gasolioak arau bidez tasa gutxitua identifikatzeko eskatzen diren trazagailuak eta markagailuak gaineraturik eramatera.
- c) Zergaren gai diren ekoizkinak, ekoizkin ez hain kutsakorren, bereziki baliabide berriztagarrietatik ateratako erregai eta karburagaien garapen teknologikorako ereduak proiektuetan erabiltzea.
- d) Halabeharrez beste batzuekin nahasi edo kutsatuak gertatu diren zergaren gai diren ekoizkinak fabrikara edo gordailu fiskalera itzultzea.

52 bis. artikulua. Erabilera profesionaleko gas-olioaren eraginezko itzulketak partziala.

1. Bigarren atalean aipaturiko ibilgailuen titularrek, bertako baldintzak betetzen dituztenek, Hidrokarburoen gaineko Zergaren itzulketak partzialerako eskubidea izango dute (ibilgailu horien motorrean erabilitako gas-olioari dagokionez ordaindutako edo jasandako zerga).
2. Bestalde, 1. atalean aipaturiko ibilgailuak honako hauek dira:
 - a) Merkantziak errepidez garraiatzeko soilik erabiltzen diren motordun ibilgailuak edo akoplaturiko ibilgailu multzoak, garraio hori inoren edo norberaren kontura egiten denean eta ibilgailuen gehieneko pisu baimendua 7,5 tonakoa edo hortik gorakoa denean.

- b) Bidaiarien garraio erregularrean edo noizean behingoan erabiltzen diren motordun ibilgailuak, Kontseiluaren 1970eko otsailaren 6ko 70/156/EEE Zuzentarauan ezarritako M2 edo M3 kategorietan sartzen direnak; zuzentaru hori estatu kideen legeriak hurbiltzeari buruzkoa da, motordun ibilgailuen eta horien atoen homologazioari dagokionez.
 - c) Taxiak. Horri dagokionez, taxia bidaiarien zerbitzu publikorako udal lizentzia eta taximetroa dituen ibilgailua da.
3. Aurreko atalean aipaturiko ibilgailuen titularrek administrazio titulu egokia eduki beharko dute, euren jarduera garatzeko, Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko uztailaren 30eko 16/1987 Legean eta berori garatzen duen araudian ezarritakoaren arabera. Era berean, titular horiek euren jarduera garatzeko bidezko baimen eta lizentzia guztiak eduki beharko dituzte, eta baimenok agintari autonomikoek edo udal agintariek emango dituzte.

Espainiako lurraldean bizi ez direnean eta Europar Batasuneko gainerako lurraldean egoitza edo establezimendu iraunkorra dutenean, kasuan kasuko estatu kideko araudiak jarduera garatzeko ezartzen dituen administrazio baimenak eduki beharko dituzte titularrek.

4. Itzulketaren oinarria izango da ondorengo interesdunak erosi duen eta aurreko 2. atalean adierazitako ibilgailuetan erregai gisa erabili duen gasolio bolumena. Hala ateratzen den oinarria mila litrokotan adierazi behar da.
5. ...
- 6.
- a) Itzulketaren Estatuko tasa, eurotan adierazia 1.000 litroko, 1.3 epigrafeko tasa orokorrari 306 euro eta tasa bereziari 48 euro kenduta ateratzen den zenbateko positiboa izango da. Horretarako, itzulketarako eskubidea sortzen den unean indarrean daudenak kontuan hartuko dira.
 - b) Itzulketaren Estatuko tasa aldatu ahal izango da Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen bidez.
 - c) Gehienez itzultzeko zenbatekoa ez da handiagoa izango ibilgailu eta urte bakoitzeko 50.000 litrori egokituko litzaiokeen itzulketa baino. Nolanahi ere, taxiak badira, gehienez itzultzeko kopurua ez da handiagoa izango taxi eta urte bakoitzeko 5.000 litrori egokituko litzaiokeen zenbatekoa baino. Ogasun eta Funtzio Publikoaren ministroak muga horien zatikapena ezarriko du, urtebeteko epea baino laburragoko denbora-tarteei aplikatze aldera.
7. Itzulketarako prozedura Ekonomia eta Ogasuneko ministroak ezarriko du, eta horren barruan, besteak beste, honako alderdi hauek sar daitezke:
- a) Interesatuak erregistro egokian inskribatzea eta euren jardueraren datuak jasotzen dituzten zerga-aitorpenak egitea, datu horiek itzulketa kudeatzeko eta egiztatzeko garrantzitsuak direnean.
 - b) Interesatuek ordainketa bide bereziak erabiltzea, gas-olioa lortzeko, gero horri dagokien itzulketa eskatuko dutenean. Ezartzen diren kasuetan, gero itzulketa eskubidea sortuko duen gas-olioa lortzeko ordainketa-bide bereziak erabili behar izatea zerga-aitorpen zat hartuko da, eta itzulketa horren bidez eskatuko da.
 - c) Ordainketa-bide berezi horiek eskaintzen dituzten erakundeek eta ordainketok onartzen dituzten gas-olio saltzaileek halako bideak erabiltzeari (itzulketa-eskatzaileak) buruzko informazioa eman behar izatea Zerga Administrazioari.
8. Aurreko 7. atalean aipaturiko ordainketa-bide bereziak erabili izanaren itxura egitea (artikulu honetan arauturiko itzulketa eskubidea lortzeko) zerga-urratze larria izango da; hori egiten

duenari, itxurazko eskuratzearen zenbatekoa baino hiru aldiz handiagoa den isuna ezarriko zaio (gutxienez, 3.000 euro). Halako urratzeak egitearen erantzukizuna leporatzearen ondoretarako, ordainketa-bide horien titularrak egiletzat hartuko dira, lapurreta gertatu eta hori salatu egiten denean izan ezik.

9. Artikulu honetan arauturiko itzulketa eragiten duen gas-olioa 2. atalean aipatzen ez diren ibilgailuetan erabiltzea debekaturik dago. Debeku horri kasurik ez egitea zerga-urratze larria izango da, eta horri 55. artikuluan ezarritakoaren arabera zehapena ezarriko zaio.
10. Aurreko atalean ezarritakoaz gain, itzulketa-eskubidea sortzen duen gas-olioa berri jasotzeko baimenik gabeko pertsonen ematen dietenek ere erantzukizuna izango dute. Gainera, 8.6 eta 15.11 artikuluetan ezarritakoa aplikatuz, itzulketa eragiten duen gas-olioa bere helburuaren eraginez tasa murriztua aplikatuta duen gas-oliotzat hartuko da.

52 ter artikulua. Nekazaritzan eta abeltzaintzan erabilitako gasolioaren ondoriozko itzulketa partziala.

Bat.

- a) Nekazariak gasolioaren eskuraketaren ondorioz ordaindu edo jasandako Hidrokarburuei buruzko Zergaren kuotak itzultzeko eskubidea aintzatetsi da, horiek Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 50.1 artikuluen 1.4 epigrafean jasotako zerga-tasaren arioren aitortu badituzte, eta eskuraketa horiek aurreko egutegiko urtean zehar egin badituzte.
- b) Itzuli beharreko kuoten zenbatekoa, 1.000 litro bakoitzeko 63,71 euroko zerga-tasa nekazaritzan –baratzezaintza, abeltzaintza eta basogintza barnean hartuta– aipatutako epean erabilitako gasolio-bolumenak eratuako oinarriari aplikatzearen emaitza izango da.

Bi. Itzulketa horren ondoretarako, nekazariak izango dira, aipatutako epean, 38/1992 Legearen 50.1 artikuluen 1.4 epigrafean jasotako zerga-tasaren arabera aitortutako gasolioa erabiltzeko eskubidea izan duten pertsonak edo erakundeak, baldin eta hori nekazaritzan erregai gisa erabili badute, baratzezaintza, abeltzaintza eta basogintza barnean hartuta, eta horrez gain, jarduera horien ekitaldiari dagokionez, Zergari buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren bosgarren xedapen gehigarrian aipatutako Enpresaburuen, Profesionalen eta Atxikitzaileen Zentsuan inskribatuta badaude.

Hiru. Itzulketa Ekonomia eta Ogasuneko ministroak ezarritako prozeduraren arioren egingo da, eta interesdunek zerga-aitorpenak aurkezteko eskaera egin dezake, zentsu-izaera dutenak barne.

53. artikulua. Kudeatzeko arau partikularrak.

1. Lege honen 4. artikuluen 17. atalean ezarritakoa baztertu gabe, lantegitzat honako hauek hartuko dira:
 - a) Lege honen 49. artikuluen 1. atalean zehaztutako zergaren xede diren produktuei tratamendu zehatz bat emateko erabiltzen dituzten establezimenduak, nomenklatura konbinatuaren 27. kapituluaren 5 zenbakidun ohar osagarrian ezarritako kontzeptuaren arabera.
 - b) Bere titularrek eskatzen duten guztietan, zergaren xede diren produktuei, bere 1. tarifiari jasotakoei, eraldaketa kimikoa eragiten dieten establezimenduak. Xede hauetarako, «eraldaketa kimikoa» honen mende gelditzen den produktuaren eraldatze molekularra xede duen edozein eragiketa izango da.
2. Lege honen 4. artikuluen 18. atalean ezarritakoa alde batera utzita, ez dira fabrikaziotzat hartuko zergaren xede den produktu baten erabiltzaileak establezimendu berean berriro

erabili ahal izateko egindako eragiketak, betiere honek ordaindutako zerga berriro erabilitako produktuari dagokiona baino txikiagoa izaten ez bada.

3. Lege honen 4. artikulua 17. atalean ezarritakoa alde batera utzita, ez dira lantegizat hartuko, osagarri moduan, zergaren xede diren produktuen kantitate txikiak eskuratzen dituzten establezimenduak. Araudiaren barruan kasu hauetan zerga likidatu eta ordaintzeko prozedura sinplifikatua ezarriko da.
4. Gas naturalaren eta Hidrokarburoen gaineko Zergaren esparru objektiboan jasota dauden eta Lege honen 49.1 artikulua 1. definizioetan jaso gabe dauden produktuen zirkulazioa, edukitza eta erabilera ez dira eskakizun formal espezifikoaren mende egongo aipatutako zerga horri dagokionez, 6. atalean xedatutakoa eta zuzenbidean onartutako frogatzeko bidez bere jatorria eta nondik datorren justifikatzeko betebeharra baztertu gabe.
5. Lege honen 51.1 artikuluan ezarritako salbuespena aplikatzen zaien 2. tarifa jasotako produktuei eta gas naturalari dagokienez, hurrengo arau partikular hauek beteko dira:
 - a) Artikulu honen 1.a) atalean xedatutakoa baztertu gabe, 2. tarifa jasotako produktuak eteteko erregimena dagoeneko azkenduta duten aipatutako tarifa horren barruan ere jasota dauden bestelako produktu batzuetatik abiatuta eskuratzea ez da fabrikaziotzat hartuko. Hala eta guztiz ere, horrek ez du ezabatuko Lege honen 51.1 artikuluan aurreikusitako salbuespena aplikatzearekin lotuta eskatu beharreko eskakizun guztiak betetzeko beharra.
 - b) Gas naturala eta atal honek aipatzen dituen 2. tarifaren barruko produktuak ondoren erregai gisa erabiltzera zuzentzen direnean, zerga xede horietara zuzendu edo merkaturatzen dituenari eskatu ahalko zaio araudiaren barruan ezartzen den prozedurarekin bat etorritik.
6. Gas naturalaren komunitate barneko elkartrukeetan hurrengo arau hauek beteko dira:
 - a) Ez dira aplikagarri izango Lege honen 16. artikulua 2., 3. eta 4. atalek aipatzen dituzten prozedurak.
 - b) Komunitatetik kanpoko lurralde-eremutik etorritako gas naturala, barruko lurralde-eremuan, gordailu fiskal batean, gasbideak eta gasbideen sareak barne hartuta 4.10 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, zuzenean hartzen denean, aipatutako harrera hori eteteko erregimenean egin dela joko da eta, oro har, Lege honetan aipatutako erregimenaren babespean dauden fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuarentzako aurreikusitako arauak aplikagarri izango dira.
 - c) Barneko lurralde-eremuan komunitatetik kanpoko lurralde-eremutik etorritako gas naturala jasotzeko kasuetan, aurreko letran adierazitako bestelakoak direnetan, hartzaileak 4. artikulua 11. atalak aipatzen dituen hartzaile erregistratuak dauden erregimen beraren mende egongo dira, artikulu honen 4. atalean ezarritakoa baztertu gabe.
 - d) Barneko lurralde-eremutik komunitatetik kanpoko lurralde-eremura zuzenduta egindako gas naturalaren bidalketetan, bidaltzaileek, horrela egiteko eskatzen zaienean, hartzailea xede den Estatu kidean horretarako erregistratutako enpresa bat dela egiaztatu beharko du, Estatu kide horrek ezartzen duen araudiarekin bat etorritik, bai eta gas naturala hartzaileak jaso duela ere.
7. Legearen 8.2.h) artikulua 1. ondorioarentzako, hidrokarburoak banatzeko edo salgaiak edo bidaiariak garraiatzeko ibilgailuak hornitzeko direnean, zergaren jasanarazpena jasotzen duen faktura edo agiri baliokidea edo dagokion zirkulazio-agiria ez da nahikoa izango hidrokarburoen gaineko zergaren ordainketa egiaztatzeko, honako kasu hauetan:

- a) Hidrokarbuero horietan behar bezala baimendutako markatzaileak edo trazatzaileak ez diren beste produktu batzuk eta zehaztapan teknikoetan onartutako osagaiak atzematen direnean.
- b) Energiaren Batzorde Nazionalak argitaratutako zerrendan agertzen ez diren operadoreei erosi zaizkienean, hidrokarbueroen sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legearen 42.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

54. artikulua. Erabileraren debekuak eta mugak.

1. Lege honetako 46. artikuluko 2. atalean aipatzen diren ekoizkinak erregai gisa edo artikuluko 3. atalean aipatzen diren hidrokarbueroak erregai gisa erabiltzea debekaturik dago, salbu eta Ekonomia eta Ogasun Ministroak espediente baten ebazpenaren ondorioz berariaz baimentzen badu; espediente hori interesatuek eskatuta hasiko da eta zergaren 1. tarifan biltzen diren hidrokarbueroetarik zeinek duen espedientearen gai den ekoizkinaren baliokideko erabilera zehaztuko du.

2. Gasolioa erregai gisa erabiltzea, Zergaren 1. tarifako 1.4 epigrafean jasotako tasa aplikatuta, motore guztietan baimentzen da, ondoko motore hauek direnean izan ezik:

- a) Bide eta terreno publikoetatik zirkulatzeko baimenduta dauden tramankulu edo aparatuei propulzioa emateko erabilitako motoreak, ibilgailu bereziak izanda ere.

Aurreko lerroaldean ezarritakoa ezarrita ere, nekazaritzan (barazkigintza, abeltzaintza eta basozaintza barne) erabiltzen diren traktoreen eta makineriaren motoreetan gasolioa erabili ahal izango da, zergaren 1. tarifako 1.4 epigrafean jasotako tasa aplikatuta, bide eta terreno publikoetatik zirkulatzeko baimenduta daudenean.

- b) Tramankulu eta aparatuei propulzioa emateko erabilitako motoreak, baldin eta beren ezaugarriengatik eta beren konfigurazio objektiboagatik, bide eta terreno publikoetatik zirkulatzeko baimendu baldin badaitezke bereziak ez diren ibilgailu gisa, nahiz eta baimen hori benetan jaso ez

- c) Itsasontzi eta aisiarako ontzietan propulzioa emateko erabilitako motoreak.

Aurreko a) eta b) kasuak aplikatzearen ondorioetarako, "ibilgailuak" eta "ibilgailu bereziak" abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duenak, II. eranskinean definitutakoak izango dira. Ondorio horietarako ere, "bide eta terreno publikoak" izango dira martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegileak, Trafiko, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onartzen duenak, 2. artikuluan aipatutakoak.

51. artikulua 2. atalean, 52. artikulua b) idatz-zatian, eta idatz-zati honetan baimendutakoak ez diren gainerako kasuetan, debekatuta egongo da gasolioa karburagai gisa erabiltzea erregelamenduz jasotakoaren arabera trazatzaile eta markatzaileak sartu zaizkionean.

3. Fuelolioak erregai gisa erabiltzea motore finkoetara eta itsasuntzi eta trenbideetakoetarako mugatuko da.
4. Debekatu dago erregai gisa erabiltzea lege honetako 50.1. artikuluko 1. tarifako 1.12 epigrafeari eta 2. tarifako 2.10 epigrafeari dagozkien tasa gutxituak aplikatzeko arau bidez ezarritako trazagailuak eta markagailuak gehituta dituen kerosenoa.
5. ...
6. Artikulu honetan ezartzen diren debekuak Zergaren 1. tarifan bildutako olio mineralen pareko erabilera duten ekoizkinei ere aplikatuko zaizkie, aurreko 1. atalean ezarritakoari atxikiz.

55. artikulua. Urratzeak eta zehapenak.

1. Zerga urratze bakuna izango da Lege honetako 54. artikuluan ezartzen diren erabileraren debekuak eta mugak ez betetzea. Urratze horiek artikuluan xedatzen denaren arabera zehatuko dira, Lege honetako 19. artikuluan xedatutakoaren arabera, zerga urratze astunak egiteagatik bidezko diratekeen zehapenez gainera.
2. Urratze hauek egitearen ziozko erantzukizuna egozteko, honako hauek hartuko dira egiletzat:
 - a) Beharrezko baimena izan gabe, Lege honetako 46. artikuluko 3. atalean aipatzen diren hidrokarburoak erregai gisa erabiltzen dutenak.
 - b) Berez bultzatutako ibilgailu, itsasuntzi eta makinerien titularrak, haien depositoetan beren funtzionamendurako berariaz baimenduta ez dauden karburagaiak erabili edo biltzen dituztenean, are titularrak berak gidatzen edo lematzen ez dituztenean ere, salbu eta atal honetako hurrengo idazatian eta 3. atalean adierazten diren izakizunetan.
 - c) Aurreko idazatian aipatzen diren ibilgailu eta itsasuntzien errentariak, gidari edo lemari gabeko alogera-kontratua dagoenean, urratzea kontratuaren datatik makineria, ibilgailua edo itsasuntzia bere titularrari itzultzen zaion datara bitartean antzematen bada.
 - d) ...
3. Lapurreta gertatuz gero, salaketaren datatik berreskurapen datara bitartean antzematen diren urratzeak ez zaizkie ibilgailu edo itsasuntzien titularrei egotziko.
4. Egileari edo egile bakoitzari jarritako zigorra honakoan datza:
 - a) Arau-haustea egin duen ibilgailu, gailu edo ontziaren motorraren zerga potentzia gehinez 10 CV bada, edo gehienez 220 kW bada ontzien motorraren edo motorren kasuan, 1.200 euroko isun finkoa.
 - b) Zerga potentzia 10 eta 25 CV artekoa duten motorren kasuan, edo 220 eta 550 kW artean ontzien motorraren edo motorren kasuan, 3.600 euroko isun finkoa.
 - c) Zerga potentzia 25 eta 50 CV artekoa duten motorren kasuan, edo 550 eta 1.100 kW artean ontzien motorraren edo motorren kasuan, 7.200 euroko isun finkoa.
 - d) 50 CV baino gehiagoko zerga potentzia duten motorren kasuan, edo 110 kW baino gehiagokoa ontzien motorraren edo motorren kasuan, 12.000 euroko isun finkoa.
 - e) Aurreko 2. ataleko a) paragrafoan aipatutako kasuetan, zehapena 1.200 euroko isun finkoa izango da.
5. Arau-hauste hauek behin eta berriro errepikatuz gero, aurreko atalean ezarritako zenbatekoak bikoiztu egingo dira.

Arau-haustea errepikatzea izango da aurreko artikuluan ezarritako edozein debeku hausteagatik administrazio-bidean irmoa den ebazpen bidez zehapena ezarri eta hurrengo bi urteetan beste bat egitea.
6. 1. tarifako 1.10.2 epigrafean xedatutako zerga-tasa aplikatuta egiten diren gas naturalaren horniduren kasuan, zerga arau-hauste larria izango da subjektu pasiboari datu faltsuak edo okerrak jakinaraztea, horrek bidezkoak baino kuota txikiagoak jasanaraztea eragiten badu.

Zehapenaren oinarria ordaindu beharko zitekeen eta benetan jasanarazitako kuoten arteko aldea izango da.

Zehapena % 50eko diru isun proportzionala izango da.

7. ...

VIII. KAPITULUA TABAKO MOTEN GAINEKO ZERGA

56. artikulua. Eremu objektiboa.

Zerga honen ondoreetarako, tabako motak izango dira honako hauek:

1. Zigarroak eta txokortxoak.
2. Zigarrotxoak.
3. Tabako xehea.
4. Erretzeko gainerako tabakoak.

57. artikulua. Loturarik gabeko izakizunak.

Ez da zergari loturik egongo, 6. artikuluan adierazten diren izakizunez gainera, fabrika eta gordailu fiskalen barruan Zerga Administrazioaren kontrolpean suntsitzen diren tabako moten fabrikazio eta inportazioa, arau bidez ezar daitezen modu eta baldintzetan.

58. artikulua. Zerga oinarria.

1. Oinarria osatuko dute:
 - a) Heineko tasak aplikatzeko, penintsulan edo Balear uharteetan kokaturiko tabako eta tinbre saltokietan tabako motek, zerga guztiak barne, jendearentzat duten balioak, gehienezko salneurriaren arabera kalkulatuta.
 - b) Tasa bereziak aplikatzeko, unitate kopuruak.
2. Aurreko ataleko a) idazatian ezartzen denaren ondoreetarako, fabrikatzaileek eta inportatzaileek, merkaturatu baino lehen, jakinarazi egingo dituzte, arau bidez ezar dadin moduan, tabako mota ezberdinetarako ezarri dituzten jendearentzako gehienezko salneurriak, eta prezio horietan sar ditzaten aldaketak.

59. artikulua. Kontzeptuak eta definizioak.

1. Zerga honen ondorioetarako, ondorengoak zigarroak edo txokortxoak izango dira, baldin eta transformaziorik gabe erre ahal badira eta horretarako bakarrik eginda badaude, betiere haien ezaugarriak eta kontsumitzaileen ohiko itxaropenak kontuan harturik:
 - a) Tabako naturalez osatutako kanpoko geruza bat daukaten tabako biribilkiak.
 - b) Tabako biribilkiak tripa irabiatuaren nahasketarekin eta zigarroen kolore arruntez osatutako tabako berreginaren kanpoko geruzarekin produktua oso-osorik estaltzeko, iragarkia barne, hala balego, baina ez pita pitaz hornitutako zigarroen kasuan, masa unitarioa iragazkirik eta pitarik gabe 2,3 gramoren berdina edo hortik gorakoa bada eta 10 gramoak gainditzen ez baditu eta bere perimetroak gutxienez luzeraren herenean 34 milimetro edo hortik gora baditu.

Lan horiek zigarroak edo txokortxoak izango dira, betiere kontuan hartuz unitate bakoitzeko 3 gramoko pisua gainditzen den ala ez.

2. Zigarro edo txokortxoak izango dira, berebat, tabakoaz besteko substantzietatik partzialki osatutako ekoizkinak, aurreko ataleko gainerako irizpideei atxikitzen zaizkienean.
3. Zerga honen ondoreetarako zigarrotxoak izango dira beren jatorrizko eran erretzeko gai izan eta, aurreko ataletan ezarritakoaren arabera, zigarroak edo txokortxoak ez diren tabako biribilkiak.

Halaber, zigarrotxoak izango dira industriad besteko eskuztapen hutsaren bitartez zigarrotxoaren zorroetan sartu edo erretzeko paper orrietan biltzen diren tabako biribilkiak.

Aurreko atalean aipatzen den tabako erroilua, zergaren aplikaziorako, bi zigarrotxoaren halakotzat joko da 8 zentimetrotik gorako luzera duenean, 11 zentimetrotik gorakoa izan gabe, eta hiru zigarrotxoaren halakotzat 11 zentimetrotik gorako luzera duenean, 14 zentimetrotik gorakoa izan gabe, eta horrela progresio beraren arabera.

Luzera neurtzeko ez dira kontuan izango ez iragazkia ez muturtzua.

4. Zerga honen ondoreetarako, erretzeko tabakoa edo tabako xehea izango da:
 - a) Tabako ebakia edo bestelan zatitua, haritua edo plantxan prentsatua, aurreko ataletan biltzen ez dena eta geroko industri transformaziorik gabe erretzeko gai dena.
 - b) Txikizkako salmentarako egokituak diren tabako gerakinak, baldin eta zigarro, txokortxo edo zigarrotxoak ez badira eta erre badaitezke. Zerga honen ondorioetarako, honakoak tabako hondakintzat hartuko dira: tabako ostoen hondarrak eta tabakoaren tratamendutik edo tabako zereginen fabrikaziotik ateratzen diren azpiproduktuak.
5. Halaber, biltzeko tabako xehea izango da, baldin eta tabako partikulen pisuaren 100eko 25ak baino gehiagok milimetro eta erdiko edo handik gorako ebaki zabalera badauka eta zigarrotxoak biltzeko saltzen edo horretarako erabiltzen bada.
6. Halaber, zigarrotxoak eta erretzeko tabakoa izango dira, beren trafikoa debekaturik egon gabe, tabako ez izan baina aurreko 3 eta 4. atalean ezarritako irizpideei atxikitzen zaizkien substantzietatik guztiz edo partzialki osatutako ekoizkinak. Alabaina, tabakorik ez duten ekoizkinak ez dira tabakotzat joko sendagai funtzio hutsa dutela egiaztatzen denean.
7. Zerga honen ondoreetarako, fabrikatzailea izango da tabakoa jendeari saltzeko tabako mota bilakatzen duen pertsona.

60. artikulua. Zerga tasak.

1. Zerga ondoko tarifaren arabera eskatuko da:

1. epigrafea. Zigarroak eta zigarrotxoak: hurrengo paragrafoa aplikagarria den kasuetan izan ezik, zigarroak eta zigarrotxoak ehuneko 15,8ko tasarekin kargatuko dira.

Zergaren zenbatekoa ezin da izan 47 euroko tasa bakarria baino txikiagoa 1.000 unitateko.

2. epigrafea. Zigarroak: epigrafe honetako azken paragrafoa aplikagarria den kasuetan izan ezik, zigarroek zerga-tasa hauek izango dituzte aldi berean:

- a) Heineko tasa: 100eko 48,5.
- b) Tasa berezia: 33,50 euro 1.000 zigarrotxoko.

Zergaren zenbatekoa ezin da izan 150 euroko tasa bakarria baino txikiagoa 1.000 unitateko.

3. epigrafea. Biltzeko tabako txikitua: epigrafe honetako azken paragrafoa aplikagarria den kasuetan izan ezik, biltzeko tabako txikitua zerga-tasa hauek izango ditu aldi berean:

- a) Tasa proportzionala: 100eko 37,68a.
- b) Tasa espezifikoa: 33,4 euro kilogramoko

Zergaren zenbatekoa ezin da izan 112,5 euroko tasa bakarra baino txikiagoa kilogramo bakoitzeko.

4. epigrafea. Gainerako tabako motak: 100eko 34

Gainerako tabakogaiak 30 euroko tasa bakarrarekin zergapetuta egongo dira kilogramo bakoitzeko, aurreko paragrafoan ezarritako tasa aplikatuzetik lortutako kuota txikiagoa bada tasa bakar honen zenbatekoa baino.

- 2. Artikulu honen ondorioetarako, epigrafe bakoitzerako publikoarentzako salmenta-prezioa hau dela ulertuko da: publikoarentzako gehieneko salmenta-prezioa, penintsulako edo Balearretako tabako eta tinbre dendetan, zerga guztiak barne.
- 3. Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeek artikulu honetako 1. atalean adierazitako publikoarentzako salmenta-prezioen eta tasa bakarren zenbatekoa eguneratu ahal izango dute, tabakogai ezberdinen publikoarentzako salmenta-prezioaren bilakaeraren arabera.

61. artikulua. Salbuespenak.

- 1. Salbuetsita egongo dira, arau bidez ezar daitezzen baldintzetan, lege honetako 9. artikuluan aipatzen diren eragiketez gainera, ondokoetarako destinatzen diren tabako moten fabrikazio eta inportazioa:
 - a) Fabrika eta gordailu fiskaletan desnaturalizatu eta gero industri edo nekazaritzarako erabiltzeko.
 - b) Fabrika edo gordailu fiskaletatik analisi zientifikoak edo tabako moten kalitatearekin erlazionatuak egiteko.
- 2. Salbuetsita egongo dira, orobat, tabako moten inportazio hauek:
 - a) Hirugarren herrialdeetatik datozen hamazazpi urtetik gorako bidaiariak gidatutakoak, ondorengo mugak gainditzen ez badituzte, betiere:
 - 1. 200 zigarrotxo, edo
 - 2. 100 txokortxo, edo
 - 3. 50 zigarro, edo
 - 4. gainerako tabako moten 250 gramo.
 - b) Beste herri batetik, norbanako batek, beste norbanako bati zuzenduta, lantzean behin egindako bidalketa txikiak, tartean inolako ordainketarik egon gabe eta ondorengo kopuru muga hauen barruan:
 - 1. 50 zigarrotxo, edo
 - 2. 25 txokortxo, edo
 - 3. 10 zigarro, edo
 - 4. gainerako tabako moten 50 gramo.

3. Zergarik gabeko dendek eman eta hirugarren herri edo lurralde batera, aire edo itsaso bidez, joaten diren bidaiariek ekipaje pertsonalean garraiatzera zuzendutako tabakoko lanak.

62. artikulua. Itzulketak.

Tabako Moten gaineko Zergaren zioz aurretik ordaindutako kuoten itzulketarako eskubidea aintzatetsiko da, arau bidez ezar daitezzen modu eta baldintzetan, Lege honetako 10. artikuluan aipatzen diren izakizunetan ez ezik, honako hauetan:

- a) Zerga Administrazioaren kontrolpeko tabako moten suntsiketan.
- b) Tabako motak erreziklatzeko fabrikara itzultzen direnean.

63. artikulua. Kudeatzeko arau bereziak.

Europar Batasuneko beste Estatu kide batzuetatik tabako motak jasotzea honako hauetara murriztuta geratuko da: gordailu baimenduak, erregistraturiko hartzaileak, hartzaile baimenduak edo urrunerako salmenta sistemako hartzaileak, baldin eta, kasu guztietan, banaketari buruzko indarreko arategian aurreikusten diren baldintzak betetzen badituzte.

IX. KAPITULUA ZIGARRO ELEKTRIKOEN ETA TABAKOAREKIN LOTUTAKO BESTE PRODUKTU BATZUEN LIKIDOEN GAINEKO

64. artikulua. Xede esparrua.

1. Zergaren xede esparrua osatzen dute zigarro elektronikoetarako likidoek, nikotina-poltsek eta tabako-laboreen gaineko zergaren xede esparruaren barruan ez dauden nikotina-produktuek, horiek sendagaitzat jotzen ez direnean.
2. Zerga honen ondorioetarako, zigarro elektronikoetarako likidoak izango dira (nikotina izan edo ez), zigarro elektronikoetan edo antzeko gailu lurruneztagailuetan erabil daitezkeen likidoak, edo zigarro elektronikoak edo antzeko gailu lurruneztagailuak kargatzeko erabil daitezkeenak.
3. Zigarro elektronikotzat hartuko da edozein produktu baldin eta ahoko baten edo produktu horren edozein osagairen bidez (kartuxoa, biltegia eta kartuxorik eta biltegirik gabeko gailua barne) lurruna kontsumitzeko erabili ahal baldin bada. Askotarikoak izan daitezke, hala nola erabili eta botatzekoak, kargatzeko ontzi baten bidez kargatzen direnak edo erabilera bakarreko kartuxoekin kargatzen direnak.
4. Nikotina-poltsatzat hartuko dira nikotina duten (tabakorik gabe) ahoz hartzeko produktuak. Landare-zuntzekin edo antzeko substratuekin nahasita eta poltsatxo porotsuetan edo horren pareko formatuan egon daitezke.
5. Zerga honen ondorioetarako, nikotina-produktuak izango dira nikotina duten baina tabakorik ez duten azken kontsumorako produktuak, aurreko paragrafoan definitutako nikotina-poltsak eta zigarro elektronikoetarako likidoak ez direnak, 1 atalean definitu denez.

64 bis artikulua. Zerga oinarria.

5. artikuluan ezarritakoaz gain, zergak barne hartuko du zergaren xede esparruaren baitan dauden produktuak beste estatu kide batzuetako lurraldean sartzea.

Zergaren xede diren produktuak lekualdatzeko eta edukitzeko (barneko lurralde-eremuan sartzen den tokitik hartzaileak jasotzen duen tokiraino) merkataritza agiri bat izan beharko da ekintza hori babesteko. Bertan, behar bezala identifikatu beharko dira bidaltzailea, hartzailea eta garraiatutako salgaiaren izaera eta kopurua.

64 ter. artikulua. Zergapetzerik eza.

Zigarro elektronikoetarako likidoak, nikotina-poltsak edo nikotinazko beste produktu batzuk barneko lurralde-eremuan sartzearatik ez da zergarik aplikatuko, lege honetako 6. artikuluan araututako kasuetan.

64. quater artikulua. Sortzapena.

Lege honen 7. artikuluan ezarritakoaz gain, zergapeko produktuak barneko lurralde-eremuan sartzen direnean sortuko da zerga, hartzaileak lurralde-eremu horretan jasotzen dituenean. Nolanahi ere, produktu horiek, zuzenean, fabrika edo gordailu fiskaletan sartzen direnean, sarrera hori eteteko erregimenean gauzatuko da.

64 quinquies artikulua. Zergadunak.

1. Lege honetako 8. artikuluan ezarritakoaz gain, zergaren xede diren produktuak barneko lurralde-eremuan sartuz gero, bidaltzaileak izango dira zergadunak, salbu eta sarrera horrek merkataritza xedea badu. Kasu horretan, produktuen hartzaileak izango dira zergadunak.

Nolanahi ere, bidaltzailetzat hartuko dira zergaren xede diren produktuak barneko lurralde-eremuan entregatzea errazten duten plataforma elektronikoen titularrak.

2. Halaber, zergadunak izango dira erkidegokoa ez den lurralde-eremutik datozen bidaiariak, zergari lotutako produktuengatik, baldin eta bidaiariak beraiek gidatzen badute.

64 sexies artikulua. Zerga oinarria.

1. Zerga oinarria honela eraturik egongo da: bolumena (mililitrotan) zigarro elektronikoentzako likidoen kasuan eta produktuaren edukiaren pisua (gramotan) nikotina poltsen kasuan, bai eta nikotina duten beste produktu batzuetan ere.
2. Bolumena edo pisua adierazteko zifrak dezimalak baditu, handiagora biribilduko da zifra, hots, hurrengo zenbakira, baldin eta lehenengo zenbaki hamartarra bost edo gehiago bada. Beste kasuetan, txikiagora biribilduko da zifra.

64 septies artikulua. Zerga tasa.

Zerga honako zerga-tasa hauen arabera eskatuko da:

- 1 epigrafea: Zigarro elektronikoentzako likidoa, nikotinarik gabea edo, gehienez, 15 mililitro nikotinarekin, produktuko mililitroko. 0,15 euro mililitroko.
- 2 epigrafea: Zigarro elektronikoentzako likidoa, 15 mililitro nikotina baino gehiagorekin, produktuko mililitroko. 0,20 euro/mililitro.
- 3 epigrafea: Nikotina poltsak: 0,10 euro/gramo.
- 4 epigrafea: Nikotina duten beste produktu batzuk: 0,10 euro/gramo.

64 octies artikulua. Salbuespenak.

1. Lege honetako 9. artikuluan ezarritakoaz gain, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan hauek ere salbuetsita egongo dira:
 - a) Zergaren xede diren produktuak inportatzea edo barneko lurralde-eremuan sartzea, hamazazpi urtetik gorako bidaiariak beraiek gidatuta (barneko lurralde-eremukoak ez diren lurraldeetatik datozenak), betiere 20 mililitrotik behera, zigarro elektronikoetarako

likidoen kasuan, edo 200 unitatetik behera, nikotina poltsen kasuan, edo 200 gramotik behera, nikotina duten bestelako produktuen kasuan.

- b) Zergaren xede diren produktuak inportatzea edo barneko lurralde-eremuan sartzea, noizean behin, jatorria partikular batek beste partikular bati zuzendutako lurralde-eremua ez den beste bat izanda, inolako ordainketarik egin gabe, betiere 10 mililitrotik behera, zigarro elektronikoetarako likidoen kasuan, edo 30 unitatetik behera, nikotina poltsen kasuan, edo 150 gramotik behera, nikotina duten bestelako produktuen kasuan.
 - c) Zergaren xede diren produktuak barneko lurralde-eremuan fabrikatzea, inportatzea edo sartzea, eremu horretatik abiatuta helmuga Batasuneko lurralde bat bada eta eteteko erregimenean badaude. Horrela, erregimen hori amaitutzat joko da.
 - d) Zergaren xede diren produktuak fabrikatzea, inportatzea edo barneko lurralde-eremuan sartzea, produktu horien analisi zientifikoak edo produktuen kalitatearekin lotutako analisiak egiteko, fabriketatik edo gordailu fiskaletatik.
2. Salbuetsita egongo da, halaber, zergaren xede diren produktuak fabrikatzea, inportatzea edo barneko lurralde-eremuan sartzea, baldin eta zergarik gabeko dendek entregatu eta bidaiarien ekipaje pertsonalean garraiatzen badituzte, airez edo itsasoz, barneko lurralde-eremutik kanpo.
3. Zergaren xede diren eta lege honen 9. artikulua 1. atalean jasotako erabileretara bideratzen diren produktuak barneko lurralde-eremuan sartzeak ez du zergarik izango.

64 nonies artikulua. Itzulketak.

Lege honetako 10. artikuluko 1 ataleko a) eta b) letretan ezarritakoaz gain, zergaren kuotak itzultzeko eskubidea izango dute, erregelamendu bidez ezarritako moduan eta baldintzetan, hala badagokio, honako hauek:

- a) Zigarro elektronikoetarako, nikotina poltsetarako edo nikotina duten beste produktu batzuetarako likidoen jabeak, baldin eta likido horiek zerga-administrazioaren kontrolpean suntsitzen badituzte.
- b) Zigarro elektronikoetarako, nikotina poltsetarako edo nikotina duten beste produktu batzuetarako likidoen jabeek, fabrikara itzultzen dituztenean birziklatzeko.
- c) Zergaren xede diren produktuak barneko lurralde-eremutik beste estatu kide batzuetako lurraldera bidaltzen dituztenak.

Kontrako frogarik ezean, produktuak barneko lurralde-eremutik kanpo eman direla ulertuko da, baldin eta Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita badaude, Europar Batasunaren barruko entrega bat delako, azken zerga horren araudian aurreikusitakoarekin bat etorritz.

64 decies artikulua. Erkidego barruko zirkulazioari buruzko xedapen bereziak.

Zerga honi ez zaizkio aplikatuko lege honetako I. tituluko I. kapituluan jasotako Erkidego barruko zirkulazioari buruzko xedapen hauek: Zehazki:

- a) 4. artikuluko 8, 10, 11, 12, 14, 15, 16, 27 eta 34 atalak.
- b) 7. artikuluko 1 ataleko c), d), f), g), i) eta m) letrak.
- c) 8. artikuluko 3, 4, 6 eta 9 atalak eta 2 ataleko c), d) eta e) letrak.
- d) 10. artikuluko 1 ataleko c), d), eta e) letrak.
- e) 13. artikuluko 2 atala.

- f) 15. artikuluko 7 atala.
- g) 16. artikuluko 2, 3 eta 4 atalak.
- h) 17. artikulua.

II. TITULUA

ZENBAIT GARRAIOBIDEREN GAINKO ZERGA BEREZIA

65. artikulua. Zerga egitatea.

1. Zergari loturik egongo dira:

- a) Ibilgailu automobil berriak edo erabiliak, bide eta lur publikoetatik zirkulatzeko motorez eragindakoak, Espainian lehenbiziz behin betiko matrikulatzea, honako hauek salbu:

- 1.a. N1, N2 eta N3 kategorietan sartutako ibilgailuak (horiek 70/156/EEE Zuzentarauak, Kontseiluarenak, 1970eko otsailaren 6koak, motorrezko ibilgailuen eta atoiien homologazioari buruzko Estatu kideen legeriak hurbiltzeari buruzkoak, II. eranskinean, 2007ko ekainaren 30ekoan xedatuta daude), betiere, ez-loturako beste kasu batzuen barnean ez badaude, N1 kategorian sartutakoak direnean, jarduera ekonomikoarekin modu esangarrian eragina dutenean. Jarduera ekonomikoarekiko eragina modu esangarrian gertatzen dela aipatzeko, subjektu pasiboak ibilgailuak erosteko edo inportatzeko orduan jasandako edo ordaindutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotetan gutxienez ehuneko 50 kentzeko eskubidea izan behar du, 37/1992 Legeak, abenduaren 28koak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzkoak, 95. artikuluan aurrez ikusitakoarekin bat, ondorio horietarako Legeak dituen arauen ondorioz sortutako kenketa-eskubideari dagokionez beste edozein muga aplikatzea garrantzitsua izan gabe.

Matrikulazioa Kanarietan egiten denean, jarduera ekonomikoarekiko eragin esangarria izango da ibilgailuak erosi edo inportatzeko orduan, 20/1991 Legeak, ekainaren 7koak, Kanarietako Erregimen Ekonomiko Fiskalaren alderdi fiskalen aldaketari buruzkoak 30. artikuluan aurrez ikusitako kenketa-eskubidearen mugak edo salbuespenak Zeharkako Zerga Orokor Kanariarraren jasandako kuotekiko aplikagarriak ez direnean, ondorio horietarako Legeak dituen arauen ondorioz sortutako kenketa-eskubideari dagokionez beste edozein muga aplikatzea garrantzitsua izan gabe.

Hala eta guztiz ere, ibilgailu hauen behin betiko lehenengo matrikulazioaren zerga Espainian ordaindu beharko da etxebizitza bezala erabiltzeko moldatzen direnean.

- 2.a. M2 eta M3 kategorietan sartutako ibilgailuak, 1. zenbakian aipatzen den testuan xedatutakoak, eta tranbiak.
- 3.a. Objektiboki aintzat hartuta, industria, merkataritza, nekazaritza, medikuntza edo zientzian soilik aplikatzekoak direnak, baldin eta beren saldo-ereduak edo banakako ibilgailuak zerga Administrazioak behar bezala homologatuta badaude. Alde honetatik, aplikazio hauetakoren baterakotzat soilik joko dira , edozein altuerako erabilera anitzeko furgoi eta furgonetak, baldin eta gidariarentzako eta laguntzailearentzako jesarlekuak soilik badituzte, behin ere jesarleku gehigarriak izan gabe, eta zamarako lekuneak alboko ikusgarritasunik ez izan eta barneko bolumenaren 100eko 50etik gora hartzen badu.
- 4.a. Bi edo hiru gurpileko ziklomotorrak eta kuadriziklo arinak.
- 5.a. Kuatrizikloak ez diren hiru gurpiletako ibilgailuak eta motorrak, bi kasuetan zilindradak 250 zentimetro kubiko gaintitzen ez dituztenean, barruko errekuntzaren

motorrak badira edo gehieneko potentzia garbiak 16 kW gainditzen ez baditu gainerako motorretan.

6.a. Mugikortasun mugatua duten pertsonentzat ibilgailuak.

7.a. Ibilgailu bereziak, betiere "quad" motako ibilgailuak ez badira. Horiek 70.1. artikuluko 4. epigrafean definituak daude.

8.a. Molda daitezkeen ibilgailu mistoak karrozeriako sabaiaren egitura zatitik zoruraino guztizko altuera 1.800 milimetrotik gorakoa denean, betiere lur orotarako ibilgailuak ez badira eta jarduera ekonomikoari modu esangarrian eragiten ez badiote. Jarduera ekonomikoarekiko eragina esangarria izango da, 37/1992 Legeak, abenduaren 28koak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzkoak, 95. artikuluan aurrez ikusitakoarekin bat, subjektu pasiboak ibilgailuak erosi edo inportatzeko orduan, gutxienez jasandako edo ordaindutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotaren ehuneko 50 kentzeko eskubidea duenean, ondorio horietarako Legeak aurrez ikusitako arauen ondorioz sortutako kenketa-eskubidean beste edozein muga aplikatzea garrantzitsua izan gabe.

Matrikulazioa Kanarietan egiten denean, jarduera ekonomikoarekiko eragin esangarria izango da ibilgailuak erosi edo inportatzeko orduan, 20/1991 Legeak, ekainaren 7koak, Kanarietako Erregimen Ekonomiko Fiskalaren alderdi fiskalen aldaketari buruzkoak 30. artikuluan aurrez ikusitako kenketa-eskubidearen mugak edo salbuespenak Zeharkako Zerga Orokor Kanariarraren jasandako kuotekiko aplikagarriak ez direnean, ondorio horietarako Legeak dituen arauen ondorioz sortutako kenketa-eskubideari dagokionez beste edozein muga aplikatzea garrantzitsua izan gabe.

Hala eta guztiz ere, ibilgailu hauen behin betiko lehenengo matrikulazioaren zerga Espainian ordaindu beharko da etxebizitza bezala erabiltzeko moldatzen direnean.

9.a. Indar Armatuek, Esatuaren Segurtasun Kidego eta Indarrek, Autonomia Erkidegoek eta Toki Korporazioek nahiz Aduanetako Gordelariak, defentsa, jagoletza eta segurantza eginkizunetan erabiltzekoak direnak.

10.a. Zaurituak eta gaixoak garraiatzeko egokitutako anbulantziak eta, beren ezaugarriengatik, autopista eta errepideetan zaintza eta laguntzarako baino bestetarako ezin erabili daitezkeen ibilgailuak.

b) Astialdirako eta itsas kiroletarako ontzien eta itsasontzien lehenengo matrikulazioa, berriena edo erabiliena, zortzi metroko luzera baino gehiago badute, itsasontzien matrikulazio-erregistroan, ohikoan edo berezian, edo erregistro horietan ezin badaitezke inskriba, lehenengo matrikulazioa dagokion kirol-federazioaren erregistroan. Nolanahi ere, luzera edozein izanik, 70.1. artikuluko 4. epigrafean definitutako itsas motorren lehenengo matrikulazioa sartuta egongo da.

Kontuan hartu beharreko luzera hala definituko da 544/2007 Errege Dekretuak, apirilaren 27koak, Itsasontzien matrikula-erregistroaren zazpigarren zerrendan astialdiko ontzien matrikulazioa eta banderatzea arautzen duenak, 2007ko ekainaren 30eko indarreko bertsioan.

Astialdirako edo itsas kiroletarako ontziak eta itsasontziak dira honako hauek:

1.a. Itsasontzien matrikula-erregistroaren seigarren eta zazpigarren zerrendan, ohikoan edo berezian, edo, hala badagokio, dagokion kirol-federazioaren erregistroan inskribatutako ontziak.

2.a. I. paragrafoan aipatutako ontzien desberdinak, astialdirako nabigazio pribatura bideratzen badira, Legearen 4. artikuluko 13. atalean definitzen den bezala.

- c) Aireuntziak, hegaxkinak eta gainerako aireuntziak, berriak zein erabiliak, motore mekanikodunak, Aireuntzien Erregistroan lehenbiziz behin betiko matrikulatzea, honako hauek salbu:
 - 1.a. Beren ezaugarri teknikoengatik, nekazaritza, basozaintza edo gaixoak eta zaurituak garraiatzeko baino bestetarako ezin erabili daitezkeen aireuntziak.
 - 2.a. Abiatzerako gehieneko pisua 1.550 kilogramotik gorakoa ez duten aireuntziak, Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiak emandako ziurtagiriaren arabera.
- d) Aurreko atalek aipatutako garraio-bitartekoen erabilera- eta zirkulazio-zerga Espainian ordaindu beharko dute, lehenengo xedapen osagarrian aurrez ikusitakoarekin bat, behin betiko matrikulazioa Espainian ez denean eskatu. Espainian erabiltzen hasi eta hurrengo 30 egunen buruan egin beharko da. Epe hori 60 egunera zabalduko da, titularraren ohiko egoitza Espainiako lurraldera aldatzeagatik Espainian erabiltzen direnean garraio-bitartekoak, betiere 66. artikuluko 1.n) atalean aurrez ikusitako salbuespenak aplikagarriak direnean.

Ondorio horietarako Espainian zirkulazioaren edo erabileraren hasiera-datak honako hauek izango dira:

- 1.a. Aldi baterako inportazio edo matrikula turistikoaren arabideei helduta egon diren garraiobideak direnean, araubide horiek utzi edo iraungitzen diren data.
- 2.a. Gainerako kasuetan, garraiobidea Espainian sartzen den data. Data hori sinesgarriro jasota ez badago, erabileraren hasiera datatzat hartuko da hurrengo bietako berriena:
 - 1.a. Garraiobidearen eskurapen data.
 - 2.a. Interesatua Espainian egotiarra edo Espainian dagoen establezimendu baten titularrak dela jotzen den data.

2.

- a) Aurreko 1.a) atalak eta 70. artikuluko 1. atalak aipatzen dituen ibilgailuak mugatu eta zehazteko, aginduek berariaz aurrez ikusten ez dutenerako, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartuta, Ibilgailuei buruzko Araudi Orokorraren II. Eranskinaren 2007ko ekainaren 30eko indarreko bertsioetan dauden definizioei eta kategoriei erreparatuko zaie.
- b) Lege honen ondorioetarako, berriak izango dira 37/1992 Legeak, abenduaren 28koak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzkoak, xedatutako garraio-bitartekoak, nahiz eta lehenengo matrikulazioa Kanarietan egin.
- c) Aurreko 1.a) atalaren 9. eta 10. zenbakiek aipatutako ustezkoak betetzen ez dituztenen aplikazioa aldeztu aurretik Zerga Administrazioak onartzera baldintzatuta egongo da. Hori araudiz zehaztuko da. Zerga egitatea garraiobideen zirkulazioa edo erabilera bada Espainian, ez-loturako kasu hauen aplikaziorako baldintza ere izango da aldeztu aurretiko onarpenerako eskaera 65.1.d) artikuluko ezarritako epearen barruan aurkeztea.

Gainerako loturarik gabeko izakizunetan, aitorpena aurkeztu beharko da zerga Administrazioaren aurrean, Ekonomia eta Ogasun ministroak finkatuko dituen modu, epe eta inprimakian. Lerroalde honetan aurreikusten denetik kanpo geratzen dira zerga Administrazioak homologaturiko ibilgailuak.

- 3. Zerga egitatea egin denetik lau urte igaro baino lehen, Lege honetan aurreikusten diren loturarik eza edo salbuespenak dakartzaten zertzeladak edo eskakizunak aldatzeak zerga bereziaren autolikidazio eta sarrera ekarriko du, aldakuntza hori gertatzen den uneari dagokiona, salbu eta aldakuntza egin ondoren Lege honetan aurreikusten diren loturarik

ezaren edo salbuespenaren izakizunetakoren bat aplikagarria bada. Eskualdatuz gero, garraiobidearen eskualdaketak matrikulazio arloko eskudun den organoaren aurrean ondorea izan dezan, beharrezko izango da, zein nola, organo horren aurrean zerga ordaindu izana egiaztatzea, edo beraren aurrean organo kudeatzaileak behar bezala dilijentziaturiko loturarik ezaren edo salbuespenaren adierazpena, edo Zerga Administrazioak loturarik eza edo salbuespena aplikatzeko emandako aurretiko aintzatespena aurkeztea.

Garraiobideen kasuan, atal honetako aurreko lerroaldean aipatzen den epea bi urtera murriztuko da haien lehen behin betiko matrikulazioa salbuetsita egon denean Lege honek 66. artikuluko 1. ataleko b) eta c) letretan xedatutakoaren indarrez.

Era berean, aurreko lerroaldeetan aipatzen den autolikidazio eta sarrera ez da eskagarria izango baldin eta zertzeladen aldakuntza garraiobidea Zergaren aplikazioko lurraldetik kanpo behin betiko bidaltzea bada; horrela izanez gero, horren egiaztapena egin beharko da dagokion erregistroan baja eman izanaren ziurtagiria, matrikulazio arloko eskudun organoak luzatua, aurkeztuz.

Matrikulazio arloko eskudun organoak, zergaren aplikazio lurraldean, honetatik kanpo behin betiko bidali eta aurreko lerroaldean edo 66. artikuluko 3. atalean xedatutakoari heldu ondoren, berriro sartzan den garraiobide bat zirkulatzeko edo erabiltzeko baimena ematea lehen behin betiko matrikulaziotzat joko da zerga honen ondoretarako.

4. Espainiar lurraldea da zergaren aplikazioko lurralde eremua, Euskal Herriko Lurralde Historikoetan eta Nafarroako Foru Erkidegoan, hurrenez hurren, indarrean dauden Ekonomi Itun eta Hitzarmenari buruzko arauetan xedatzen denaren kaltetan gabe.
5. Ez zaio zergari lotuko garraiobide batzuen behin betiko matrikulazioa, baldin eta lege honen 65. artikuluan 1. idatz-zatiaren d) hizkiak ezarritakoaren arabera zergari loturik egondako zirkulazio edo erabilera izan badute eta lege ezarritako epearen barruan:
 - a) Lotura horri dagokion zerga autolikidatu bada eta beharrezko diru sarrera egin bada, edo,
 - b) Lotura horri dagokion zerga autolikidatua izan bada zerga administrazioaren aldetik eta beharrezko diru sarrera egin bada, edo,
 - c) Zerga administrazioak alde aurretik onartu badu ez-loturako edo salbuespeneko kasu baten aplikazioa, lege halaxe ezarrita dagoen kasuetan, edo,
 - d) Zerga administrazioaren aurrean zergaren salbuespenari buruzko adierazpena aurkeztu bada, halaxe ezarrita dagoen kasutan.

66. artikulua. Salbuespenak eta itzulketak.

1. Zergatik salbuetsita egongo da ondorengo garraiobideen lehenengo behin betiko matrikulazioa edo, hala badagokio, zirkulazioa edo erabilera Espainian:
 - a) Indarreko legeriaren arabera, taxi, autotaxi edo autoturismoak diren ibilgailu automobilak.
 - b) Gidarien irakaskuntza jardueran, kontraprestazio bidez, aritzeari soilik atxikitzeko matrikulatzen diren ibilgailu automobilak.
 - c) Alogera jardueretan aritzeari soilik atxikitzeko matrikulatzen diren ibilgailu automobilak.

Alde honetatik, automobilen alogera jarduerarik ez dagoela ulertuko da, automobilak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legearen 79. artikuluan aurreikusten denaren arabera lotuak diren pertsonen, edo pertsona edo entitate bat berari hiru hilabetetik gorako aldi, hamabi hilabeteko aldi jarraian lagatzen zaizkienean.

Alde honetatik, ez dira automobilen alojeratzen hartuko errentamendu-salmentako kontratuak eta berdinetsiak ez eta erosketa-aukeradun errentamendukoak.

- d) Minusbaliatuen izenean beren erabilera soilerako matrikulatutako ibilgailu automobilak, baldin eta honako eskakizun hauek betetzen badira:

- 1.a. Antzerako baldintzetan beste ibilgailu bat matrikulatu zenetik lau urte gutxienez igaro izana. Alabaina, betekizun hau ez da eskatuko ibilgailuek guztizko hondamenezko ezbeharra jasan izanez gero, behar bezala egiaztatua.
- 2.a. Beren matrikulazio dataz geroko lau urteen barruan "inter vivos" eskualdaketaren gai ez izatea.

- e) Matrikulazio berezia duten ibilgailuak, matrikula diplomatikoaren araubidearekin, arauz ezarriko diren muga eta baldintzen pean, titularrak hauek direnean:

- 1.a. Espainian egoitza iraunkorra duten eta bertan kreditaturik dauden misio diplomatikoak, eta agente diplomatikoak.
- 2.a. Estatu espainiarrarekin egoitza akordio bat izenpetu duten nazioarteko erakundeak eta erakunde horietakoak izanik, estatutu diplomatikoa duten funtzionarioak.
- 3.a. Karrerako bulego kontsularrak eta atzerriko herritartasuna duten karrerako funtzionario kontsularrak.
- 4.a. Misio diplomatikoetako nahiz nazioarteko erakundeetako pertsonal tekniko eta administratiboa, eta, era berean, karrerako bulego kontsularretako enplegatutakoak, nazionalitatez espainiarrak ez direnean eta Espainian egoitza iraunkorrik ez dutenean.

Aurreko 2. eta 4. zenbakietan ezarritakoa hala izanik ere, erakunde horiek sortzeko izenpeturiko nazioarteko hitzarmenetan edo haien egoitza akordioetan bestelako muga edo baldintzak ezartzen badira, erakunde horiei, estatutu diplomatikoa duten bertako funtzionarioei eta bertan lan egiten duen pertsonal tekniko-administratiboari muga eta baldintza horiek aplikatuko zaizkie.

- f) Beste estatu kide batean matrikulatutako ibilgailu automobilak, beste estatu kide batean ezarritako pertsonen edo erakundeek Espainian bizi den pertsona fisiko baten eskura jarri dituztenean, betiere betekizun hauek betetzen badira:

- 1.a. Eskura jartze hori honen ondorioa izatea: pertsona fisiko egoiliarrekin dagoen lan-harremana, soldatapeko araubidean edo bestelakoan.
- 2.a. Ibilgailua ez erabiltzea funtsean zerga aplikatzeko lurraldean izaera iraunkorrarekin.

Ondorio horietarako, ibilgailua funtsean zerga aplikatzeko lurraldean izaera iraunkorrarekin ez dela erabiliko ulertuko da, Espainian bizi den norbaiten eskura jartzen denean eta pertsona horren lan-zentroa mugakidea den beste estatu kide batean dagoenean eta egunero estatu horretara joateko eta itzultzeko erabiltzen duenean, oporaldiak alde batera utzi gabe.

- g) Aisialdiko edo itsas kiroletako itsasontzi eta ontziak, soilik eta egiaz alokairu jarduerak egiteari badagozkio

Salbuespen hau ibilgailuen alokairurako ezarritako mugei eta baldintzak betetzeari lotuta geldituko da. Nolanahi ere, ez da alokairuko jarduerarik egongo ontzia titularrak errentatzeko lagatzen duenean, baldin eta titular horrek edo berorren hurbilekoren batek kasuan kasuko ontziaren edo beste ontziren baten (horren titularra lagatzailea edo berorri loturiko pertsonaren bat denean) gaineko erabilera osoko nahiz partzialeko eskubidea jasotzen badu (edozein tituluren bidez). Paragrafo hau aplikatzeari

dagokionez, loturiko pertsonak dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legeko 79. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak.

- h) Aisialdiko edo itsas kiroletako itsasontziak eta ontziak, baldin eta horien titulartasuna Merkataritza Ontzidiko Zuzendaritza Nagusia ofizialki aintzatetsitako itsas kirol eskolek badute eta soilik eta egiaz horiek gidatzeko irakaskuntza jardunean erabiltzen badira.

Hala ere, aisialdiko edo itsas kiroletako itsasontziek eta ontziek ez dute salbuesteko eskubidea galduko salbuespen hori izanik alokairu zein irakaskuntza jardunerako erabiltzen badira, betiere artikuluko honetako 1. ataleko g) letrako bigarren paragrafoan ezarritako betekizunak betetzen badira.

- i) Haien osaera dela-eta, soilik arraun edo palakadaka mugi daitezkeen ontziak, baita kategoria olinpikoa duten belaontziak ere.
- j) Estatuak, Autonomia Erkidegoek, Toki Korporazioek edo enpresa edo erakunde publikoek matrikulaturiko aireontziak.
- k) Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiak ofizialki aintzatetsiak diren Eskolen izenean matrikulatu eta pilotoen hezkuntza eta prestakuntzarako edo beren erreziklapenerako soilik destinatzen diren aireontziak.
- l) Airenabigazioko enpresei dagokien titularitatea daukaten aireontziak, baldin eta haien erabilera ezin bada kalifikatu aisialdiko abiazio pribatu gisa lege honen 4. artikuluan 4. zenbakian ezarritakoarekin bat etorritz.

Aireko nabigazioko enpresei errentaturiko aireontzien kasuan, salbuespena ez da aplikagarria izango errentatzailea edo horri loturiko pertsonak, orokorrean, aireontziaren erabiltzaileak direnean, horrek hamabi hilabetez jarraian egindako hegaldi-orduen 100eko 5etik gorako ehunekoan. Paragrafo hau aplikatzeari dagokionez, loturiko pertsonak dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legeko 79. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak.

- m) Airenabigazioko enpresei alokairuan utziak izateko aireontzi matrikulatuak, baldin eta haien erabilera ezin bada kalifikatu aisialdiko abiazio pribatu gisa lege honen 4. artikuluan 4. zenbakian ezarritakoarekin bat etorritz.

Salbuespena ez da aplikagarria izango aireontzia bere izenean matrikulaturik duen pertsona edo horri loturiko pertsonak, orokorrean, aireontziaren erabiltzaileak direnean, horrek hamabi hilabetez jarraian egindako hegaldi-orduen 100eko 5etik gorako ehunekoan. Paragrafo hau aplikatzeari dagokionez, loturiko pertsonak dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legeko 79. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak.

- n) Beren titularraren ohiko egoitza atzerritik espainiar lurraldera aldatzearen ondorioz matrikulatzen diren edo erabiltzen diren garraiobideak. Salbuespen hau ondorengo eskakizunak betetzera baldintzaturik geratzen da:

1.a. Interesatuek lekualdaketa aurretiko hamabi hilabete jarraietan eduki izan behar dute espainiar lurraldetik kanpo beren ohiko egoitza.

2.a. Garraiobideak zerga-ordainketaren baldintza arruntetan erosi edo inportatu izan behar dira jatorrizko edo etorburuko herrian, eta ez dute herri horretatik irtetea dela-eta sortutako kuoten inolako salbuespen edo itzulketaren onurarik jaso izan behar.

Eskakizun hau bete dela ulertuko da, garraiobideak araubide diplomatiko edo kontsularretan ezarritako salbuespenen itzalpean edo aintzatetsiak diren eta jatorrizko Estatuan egoitza duten nazioarteko erakundeetako kideentzat eskuratuak edo inportatuak direnean, erakunde horiek sortzeko nazioarteko hitzarmenetan edo egoitzako akordioetan finkatzen diren muga eta baldintzetan.

- 3.a. Garraiobideak interesatuak bere lehengo egoitzan erabiliak izan behar dira egoitza hura utzi aurretiko sei hilabetetan gutxienez.
 - 4.a. Matrikulazioa Lege honetako 65.1.d) artikuluan aurreikusten den epean eskatu beharko da.
 - 5.a. Salbuespen hau aplikatzen zaien garraiobideak ezin eskualda daitezke matrikulazio ondoko hamabi hilabeteko epean. Eskakizun hau ez betetzeak zergaren ordainarazpena ekarriko du, ezbetetzea gertatzen den datari dagokiona.
- ñ) Beste estatu kide batean matrikulaturiko garraiobideak, Espainian gehienez hiru hilabetez bizi diren pertsonak edo erakundeek beste estatu kide bateko hornitzaile bati alokatuak, betiere atal honetako c) hizkian ezarritako salbuespena aplikatu behar ez bazaie.
2. Aurreko paragrafoko a), b), c), d), f),i), eta k) idatz zatiaren aipatzen diren salbuespenak aplikatzeko, zerga administrazioak alde aurretik onartu beharko ditu, erregelamendu bidez zehazten den moduan. Zehazki, d) letran adierazitako salbuespena denean, elbarritasuna edo baliaezintasuna alde aurretik egiaztatu beharko dute Gizarte Zerbitzuetako Institutu Nazionalak edo erakunde kudeatzaile eskudunek.

Aurreko idatz zatiaren e) letran jasotako salbuespena aplikatzeko Kanpoko Gaietarako eta Lankidetzarako Ministerioak haren jatorria egiaztatu beharko du alde aurretik.

Gainerako salbuespen kasuetan, aitortpena aurkeztu beharko zaio zerga administrazioari, Ekonomia eta Ogasun ministroak zehaztutako tokian, moduan, epean eta inprimakian.

3. Garraiobideen birsalmentan profesionalki aritzen diren enpresarioek eskubidea izango dute, zerga egitatetik lau urte igaro gabe zergaren aplikazioko lurraldetik kanpo behin betiko bidali dituzten garraiobideei dagokienez, garraiobideak bidalketaren unean zeukan balioari dagokion ordaindutako kuotaren zatiaren itzulketa jasotzeko. Garraiobidea zergaren aplikazioko lurraldetik kanpo behin betiko bidali izana egiaztatzeko, garraiobidea dagokion erregistroan baja eman izanaren ziurtagiria, matrikulazioaren arloko eskudun organoak luzatua, aurkeztuko da.

Aurreko lerroaldean aipatzen den itzulketan, honako erregela hauek aplikatuko dira:.

- a) Zergaren aplikazioko lurraldetik kanpo bidaltzea salmenta irmo baten ondoriozkoa izan beharko da.
 - b) Garraioak bidalketaren unean duen merkatuko balioa izango da itzulketarako oinarria, Lege honetako 69. artikuluko b) atalean aipatzen diren balorazio taulak aplikatzearen ondoriozko balioa gainditzetik ez duela.
 - c) Itzulketarako tasa, bere garaian zergaren likidaziorako aplikatua izango da.
 - d) Itzulketaren zenbatekoa ez da inoiz ere ordaindutako kuotatik gorakoa izango.
 - e) Enpresario birsaltzaileak eskatuko du itzulketa, Ekonomia eta Ogasun ministroak ezarritako leku, modu, epe eta inprimaketan.
4. Zergaren oinarri ezargarriak, lege honetako 69. artikulua arabera kalkulatuak, 100eko 50eko murrizpena izango du ibilgailu automobilen edukiera homologatua bost plazatik beherakoa eta bederatzitik gorakoa ez denean, gidariarena barne bi kasuetan, eta indarrean dagoen legerian ugaritzat jotzen diren familiek bakarrik erabiltzeko direnean. Honako baldintzak bete behar dira:
- a) Ibilgailuaren lehen behin betiko matrikulazioa familiako aitaren edo amaren izenean edo, bestela, bien izenean egingo da.

- b) Gutxienez lau urte igaro behar dira aurreko a) letran aipaturiko pertsonetako baten izenean eta murrizpen honen babesean beste ibilgailu bat matrikulatu denetik. Dena den, baldintza hau ez da eskatuko ibilgailuen erabateko ezbeharra gertatu denean eta ezbehar hori behar bezala frogatzen denean.
 - c) Murrizpen honen babesean matrikulatutako ibilgailua ezingo da gero «inter vivos» eskualdatu matrikulazio egunaren ondorengo lau urteetan.
 - d) Murrizpen hau aplikatu ahal izateko ezinbestekoa izango da Zerga Administrazioak murrizpena aurrez aintzatestea arauz ezarriko den eran. Nolanahi ere, Zerga Administrazioari nahitaez aurkeztu beharko zaio organo eskudunak luzatutako familia ugariaren ziurtagiria.
5. Zerga oinarria, 69. artikuluari jarraiki ezarria, %30 kenkaria izango du ondorengo ibilgailuetan:
- a) Abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak onetsitako 2007ko ekainaren 30ean indarrean dagoen Ibilgailuen Araudi Orokorren II. Eranskinean «autokarabanak» bezala definitutako ibilgailuak.
 - b) 65. artikulua 1.a) ataleko 1. eta 8. zenbakien azken paragrafoan adierazten diren etxebizitza gisa erabiltzeko prestaturik dauden ibilgailuak.

67. artikulua. Subjektu pasiboak.

Zergaren subjektu pasiboak izango dira:

- a) Garraiobidearen lehen behin betiko matrikulazioa beren izenean egiten zaien pertsonak edo entitateak.
- b) Lege honetako 65. artikuluko bat ataleko d) idazatian aurreikusten diren kasuetan, Lege honetako lehen xedapen gehigarrian aipatzen diren pertsonak edo entitateak.
- c) Lege honetako 65. artikuluko 3. atalean aurreikusten diren kasuetan, garraiobidea beren izenean matrikulaturik dagoeneko pertsonak edo entitateak.

68. artikulua. Sortzapena.

1. Zerga sortuko da subjektu pasiboak garraiobidearen lehen behin betiko matrikulazioa egiteko eskabidea aurkeztzen duen unean.
2. Lege honetako 65. artikuluko 1 ataleko d) idazatian aurreikusten diren kasuetan, zergaren sortzapena idazati horretan aipatzen den epea amaitu ondorengo egunean gertatuko da.
3. Lege honetako 65. artikuluko 3. atalean aurreikusten diren kasuetan, zergaren sortzapena zergarekiko loturirik ezaren edo salbuespenaren zio izan ziren zertzeladen edo eskakizunen aldakuntza gertatzen den unean gertatuko da.

69. artikulua. Zerga oinarria.

Zerga oinarriak honako hauek bilduko ditu:

- a) Garraiobide berrietan, garraiobidearen erosketa dela-eta Balio Erantsiaren gaineko Zergarako edo baliokideko zerga baterako zerga oinarri gisa zehaztutako zenbatekoa, edo, bi haien ezean, erosleak ordaindutako kontraprestazioaren guztirako zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legearen 78. artikulua arabera zehaztua. Alabaina, azken kasu honetan, ez dira zerga oinarrian sartuko garraiobidearen saltzaileak zuzenean ordaindu edo jasandako Kanarietako Zeharkako Zerga Orokorren kuotak.

- b) Zergaren sorrarazpenaren datan merkatuan duten balorearengatik erabilitako garraiobideetan.

Aurretik atzerrian matrikulatuta egondako eta orain Espainian matrikulatutako ibilgailuen kasuan, ibilgailu erabiliak badira, merkatuko balioetik zeharkako zergen kuoten ondoriozko zenbatekoa kenduko da, ibilgailuan ezarritako neurri berean. Garraiobidea berria izanik, Espainian behin betiko, eta lehen aldiz, matrikulatuta egonez gero, lehen aipatutako zenbatekoa ez da kengarria izango. Horrenbestez, aipatu ondoriozko zenbatekoa zehazteko, sorrarazpenaren momentuan erabilitako garraiobidearen merkatu balioari portzentaje bat aplikatuko zaio. Portzentaje hori izango da, bere garaian, garraiobideak izaera berria zuenean, aipatu zergek salmenta prezioan izandako kuotak, barne hartutako zergak alegia.

Subjektu pasiboek zergaren sorrarazpenaren datan indarrean dauden Ekonomia eta Ogasun Ministerioak onetsitako batezbesteko prezioak erabili ahalko dituzte merkatu balioa zehazteko. Aurreko paragrafoak adierazitako kenketa hori aplikatu daitekeen kasuetan, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak ezarritako batezbesteko prezio horiek zehazteko prozedura. Batezbesteko prezio horiek, bestalde, jasandako zeharkako zergen kuoten ondoriozko zenbatekoari dagozkio.

Subjektu pasiboek, aurreko paragrafoak aurreikusten duenari jarraiki, merkatu balioa zehazten dutenean, Zerga Administrazioak ezingo du hori egiaztatu Zergei buruzko Lege Orokorraren 57. artikulua aurreikusten dituen beste moduak erabilia.

70. artikulua. Zerga tasa.

1. Aplikatu beharreko zerga-tasak zehazteko, ondoko epigrafeak ezarri dira:

1. epigrafea.

- a) 120 g/km baino handiagoko CO₂ igorpen ofiziala ez dituzten ibilgailuak, "quad" motako ibilgailuak eta 6, 7, 8 eta 9. epigrafeetan bildutako ibilgailuak izan ezik.
- b) Barne-konbustiokoak ez diren motor bakardun ibilgailuak, "quad" motako ibilgailuak izan ezik.

2. epigrafea.

120 g/km eta 160 g/km bitarteko CO₂ igorpen ofizialak dituzten ibilgailuak, "quad" motako ibilgailuak eta 9. epigrafean bildutako ibilgailuak izan ezik.

3. epigrafea.

160 g/km eta 200 g/km bitarteko CO₂ igorpen ofizialak dituzten ibilgailuak, "quad" motako ibilgailuak eta 9. epigrafean bildutako ibilgailuak izan ezik.

4. epigrafea.

- a) 200 g/km-ko edo handiagoko CO₂ igorpen ofizialak dituzten ibilgailuak, "quad" motako ibilgailuak eta 9. epigrafean bildutako ibilgailuak izan ezik.
- b) CO₂ igorpenak neurtzeko moduan dituzten ibilgailuak, baldin eta horiek egiaztatzen ez badira.
- c) Etxebizitza gisa egokitutako N₂ eta N₃ kategorietan bildutako ibilgailuak.
- d) "Quad" motako ibilgailuak. "Quad" motako ibilgailua lau edo gorpil gehiagoko ibilgailua da, eskuleku bidezko norabide-sistemeekin, eta gidaria zangalatrau eserita ageri da, errepidetik kanpo erabiltzeko trakzio-sistema egokiarekin.

- e) Moto nautikoak. «Moto nautikoa» motor batek higiarazitako ontzia da, eta pertsona batek edo gehiagok eserita, zutik edo belauniko maneiatzeko egindakoa, ontzi-kroskoaren mugen gainetik eta ez barrutik.

5. epigrafea.

- a) 1, 2, 3, 4, 6, 7, 8 eta 9. epigrafeetan jaso gabeko ibilgailuak.
- b) Aisiarako itsasontziak eta ontziak edo itsas nautikoetarako ontziak, moto nautikoak izan ezik.
- c) Hegazkinak, hegazkin txikiak eta gainerako aireontziak.

6. epigrafea.

9. epigrafearen c) letran jaso gabeko motozikletak, betiere 100 g/km baino handiagoko CO₂ igorpen ofizialak ez badituzte.

7. epigrafea.

9. epigrafearen c) letran jaso gabeko motozikletak, betiere 100 g/km eta 120 g/km bitarteko CO₂ igorpen ofizialak badituzte.

8. epigrafea.

9. epigrafearen c) letran jaso gabeko motozikletak, betiere 120 g/km eta 140 g/km bitarteko CO₂ igorpen ofizialak badituzte.

9. epigrafea.

- a) Epigrafe honen c) letran jaso gabeko motozikletak, betiere 140 g/km edo handiagoko CO₂ igorpen ofizialak badituzte.
- b) Epigrafe honen c) letran jaso gabeko motozikletak, betiere CO₂ igorpen ofizialak egiaztatu gabe badaude.
- c) 74Kw (100 cv) CEE potentzia duten motozikletak, eta gehieneko potentzia garbia, ibilgailuaren masa martxaren norabidearekin, 0,66 edo handiagoko kw/kg balioetan adierazita, CO₂ igorpen ofizialak kontuan izan gabe.

2. Zerga tasak ondorengoak izango dira:

- a) Autonomia Erkidegoak onetsi dituen zerga tasak, erregimen arrunteko Autonomia Erkidegoak eta Autonomia Estatutua duten Hiriak finantzatzeko sistema berriaren neurri fiskalak eta administraziokoak arautzen dituen abenduaren 27ko 21/2001 Legearen 43. artikuluari jarraiki, betiere.
- b) Autonomia Erkidegoak aurreko paragrafoan adierazitako zerga tasak onetsiko ez balitu, ondorengoak ezarriko dira:

Epigrafeak	Penintsula eta Balear Uharteak	Kanariar Uharteak
1. eta 6.	%0,00	%0,00
2. eta 7.	%4,75	%3,75
3. eta 8.	%9,75	%8,75
4. eta 9.	%14,75	%13,75

5.	%12,00	%11,00
----	--------	--------

c) Ceuta eta Melillan ondorengo zerga tasak ezarriko dira:

Epigrafeak	%
1. eta 6.	%0
2. eta 7.	%0
3. eta 8.	%0
4. eta 9.	%0
5.	%0

3. Zerga tasa aplikagarria sortzapean unean indarrean dagoena izango da.
4. Garraio-bitartekoaren lehenengo behin betiko matrikulazioa Ceutan eta Melillan egin denean eta behin betiko penintsulara edo Balear edo Kanariar Uharteetara inportatzen denean, zerga kitatuko da, zerga-oinarriak hurrengo moduan kalkulatu: bigarren ataleko a) edo b) paragrafoetan adierazitako oinarriak, dagokionaren arabera, honako koefizienteen bidez biderkatuta:
 - a) Behin betiko inportazioa behin betiko lehenengo matrikulazioa egin eta urtebetearen barruan gertatzen bada: 1,00.
 - b) Behin betiko inportazioa behin betiko lehenengo matrikulazioa egin eta bigarren urtearen barruan gertatzen bada: 0,67.
 - c) Behin betiko inportazioa behin betiko lehenengo matrikulazioa egin eta hirugarren edo laugarren urtearen barruan gertatzen bada: 0,42.

Atal honetan aurrez ikusitako kasuetan, zerga-oinarria garraio-bitartekoaren balioak aduanan osatuko du.

5. Kanarietan zerga sortua duen garraibidea, zerga egitatekin egin denetik hurrengo lehendabiziko urtearen barruan, Penintsulan eta Balear uharteetan behin betiko sartzen denean, titularrak Kanarietako Autonomia Erkidegoan aplikagarria den zerga tasaren eta beste autonomia erkidegoan aplikatu behar den tasaren arteko diferentziari dagozkion kuotak autolikidatu eta sartu beharko ditu, horretarako zerga oinarria dela garraibideak sartzera unean duen balioa.

Atal honetako aurreko lerroaldean xedatzen dena ez da aplikagarri izango, sartzen den garraibideari dagokionez, Kanarietan eskatutako zergari Penintsulako autonomia erkidegoetan edo Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoan garraibide horretarako sartzera unean indarrean dagoenetik behera gabeko zerga tasa aplikatu bazitzaion.

6. Artikulu honetako 4 eta 5 atalen eta zazpigarren xedapen iragankorreko 4. atalaren arabera bidezko diren likidazio eta autolikidazioak ez dira eskagarriak izango garraibidearen titularrak bere egoitza behin betiko inportazioa edo behin betiko sartzera gertatzen den lurraldera aldatzen duenetan. Atal honetan xedatzen denaren aplikazioa ondorengo eskakizunak betetzera baldintzaturik dago:
 - a) Interesatuak Ceuta eta Melillan edo Kanarietan, kasuan kasu, eduki behar izan dute beren egoitza lekualdaketa aurretiko hamabi hilabete jarraietan gutxienez.
 - b) Garraibideak Ceuta eta Melillan edo Kanarietan, kasuan kasu, erosiak behar izan dira zerga-ordainketaren baldintza arruntetan, eta ez dute lurralde horietatik irtetea dela eta inolako salbuespen edo itzulketarik jaso izan behar.

- c) Interesatuak sei hilabeteko gutxieneko aldi batean erabili behar izan ditu garraiobideak bere lehengo egoitzan, egoitza hori utzi baino lehen.
 - d) Atal honetan aipatzen diren garraiobideak ezin eskualda daitezke inportatu edo sartu ondorengo hamabi hilabeteko epean. Eskakizun hau ez betetzeak dagokion likidazio edo autoliquidazioa egitea ekarriko du, ezbetetzea gertatzen den uneari dagokiona.
7. CO₂-ren igorpen ofizialak ibilgailuaren fabrikatzaileak edo inportatzaileak xede horrez luzatutako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira, igorpenak ikuskapen teknikoaren txartelean edo ibilgailuari dagokionez banan-banan egindako beste edozein dokumentu ofizialetan agertzen diren kasuetan izan ezik.

70 bis artikulua. Kuotaren kenkaria.

1. Zerga-oinarriari 70. artikuluan arauturiko zerga-tasak aplikatzearen emaitza izango da zerga-kuota.
2. Hala ere, garraiobideak zerga aplikatzeko lurraldean erabiliko diren hileko edo zatiko ezarriko da zerga-kuota, honako kasu hauetan:
 - a) Beste estatu kide batean matrikulaturiko ibilgailuak direnean, beste estatu kide batean bizi diren pertsonak edo erakundeak Espainiako egoiliarra eta pertsona fisikoa denaren eskura jarriak, betiere baldintza hauek betetzen badira:
 - 1.a. Pertsona fisiko egoiliarrarekin dagoen laneko harremanen ondoriozkoa izatea garraiobideen eskura jartze hori, soldatapeko gisa edo beste modu batean
 - 2.a. Zerga modu iraunkorrean aplikatu beharreko lurraldean erabiltzeko izatea ibilgailua funtsean.
 - b) Beste estatu kide batean matrikulaturiko garraiobideak direnean, Espainian gehienez hiru hilabetez baino denbora luzeagoan bizi diren pertsonak edo erakundeak beste estatu kide bateko hornitzaile bati alokatuak

Zehazki, 1. atalaren arabera zehazturiko zenbatekoa bider portzentaje hauek eginda lortuko da zerga-kuota:

- Lehen 12 hileetan: 3 bider 100.
- 13-24 hileetan: 2 bider 100.
- 25 hiletik aurrera: 1 bider 100.

Atal honetan ezarritakoarekin bat etorritik zehazturiko zerga-kuotaren zenbatekoa ezin izan daiteke 1. atalaren arabera kalkulaturikoa baino handiagoa.

71. artikulua. Zergaren likidazioa eta ordainketa.

1. El impuesto deberá ser objeto de autoliquidación e ingreso por el sujeto pasivo en el lugar, forma, plazos e impresos que establezca el Ministro de Hacienda y Administraciones Públicas. Zergaren autoliquidazioa egin eta ordaindu beharko du subjektu pasiboak, Ogasun eta Herri Administrazioen ministroak ezarritako tokian, eran, epeetan eta inprimakietan

Baldin eta 70 bis artikuluko 2. atalean xedaturikoarekin bat etorritik ezarri bada zerga-kuota eta Zergen Administrazioaren organoek beharrezkotzat jotzen badute, autoliquidazioarekin batera honako hau bermatuko da: zerga-kuota 70 bis artikuluko 1. atalean xedaturikoarekin bat etorritik ezarri izan balitz egokituko zatekeen gainerako zenbatekoa, kreditu-erakundearen abal solidarioaren edo elkarrekiko bermerako sozietatearen bidez edo kuzio-aseguruen egiaztatzearen bidez

Bermearen zenbatekoa itzuliko da zerga garraioidea zergaren aplikazio lurraldetik kanpora bidali dela egiaztatzen denean

Zerga aplikatzeko lurraldearen barruan garraioa erabiltzen bada deklaraturikoa baino denbora luzeagoan eta subjektu pasiboak ez badu egoera erregularizatzen, 70 bis artikuluko 1. atalean xedatu denaren arabera kalkulaturiko zerga-kuotaren likidazioa egin beharko da, aurretik ordaindutako zenbatekoan gutxituta

2. Erabilitako ibilgailuak direnean, autolikidazioa Zerga Administrazioak ikuskatuko du, Ekonomia eta Ogasuneko ministroak ezarritakoaren arabera, organo eskudunean matrikulatu baino lehen. Autolikidazioaren ondoriozko kuota Ekonomia eta Ogasuneko ministroak onetsitako batez besteko salmenta prezioak aplikatzearen ondoriozkoa baino baxuagoa denean, paragrafo honetan aipaturiko ikus-onespena, egin ere, zerga oinarritzat ezarritako balioa Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorreko 57. artikuluan ezarritakoaren arabera egiaztatzen denean soilik egingo da. Aintzat hartu beharreko batez besteko prezioak, izatez ere, interesatuak zerga-administrazioan ikus-onespena eskatzeko unean indarrean daudenak izango dira. Halaber, aitorturiko balioaren egiaztapena egingo da, aurkeztu den autolikidazioan aipaturiko ibilgailurako Ekonomia eta Ogasuneko ministroak onetsitako salmenta preziorik ez dagoenean.

Egiaztapena egiteko gehieneko epea hogeita hamar hirurogei egunekoa izango da, ibilgailua zerga-administrazioaren esku jartzen denetik zenbatzen hasita. Epe hori igaro eta egiaztapenik egiten ez bada, onartuta egongo da zergadunak aitorturiko balioa. Epea zenbatzeari dagokionez, aplikagarria izango da Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Legeko 104. artikuluko 2. atalean ezarritakoa. Bisatua autokitapena aurkeztean behin-behinekoz eman ahal izango da, zenbatekoa edo balioa aldeztu aurretik egiaztatu gabe. Kode elektronikoa igorri egin ahal izango da.

Nahiz eta bisatua behin-behinekoz eman, ondoren autokitapenaren egiaztapen administratiboa egin daiteke elementu guztietan.

3. .Garraioidearen behin betiko matrikulazioa egiteko, zergaren ordainketa egiaztatu behar da, edo bestela, lotuta ez egotearen edo salbuespenaren onarpena egiaztatuko da.

72. artikulua. Urratzeak eta zehapenak.

Zerga honekiko urratzeak Zerga-Lege orokorrean eta aplikazio orokorreko gainerako arauetan xedatutakoaren arabera kalifikatu eta zehatuko dira.

73. artikulua. Ceuta eta Melillari dagozkien xedapen bereziak.

Ceuta eta Melilla hirien lurralde eremuan zerga honetatik etorritako etekina beren Udalei dagokie, Estatuaren Zerga Administrazioako eskudun organoek kudeaketa, likidazioa, bilketa, ikuskatzailletza eta berrikuspina egitearen kaltetan gabe.

74. artikulua. Kanarietako Araubide Ekonomiko Fiskalari dagozkien xedapen bereziak.

Kanarietako Autonomia Erkidegoaren lurralde eremuan zerga honetatik etorritako etekina Autonomia Erkidegoari dagokio, Estatuaren Zerga Administrazioako eskudun organoek kudeaketa, likidazioa, bilketa, ikuskatzailletza eta berrikuspina egitearen kaltetan gabe. Zergaren bilketari dagokionez, aplikagarria izango da Kanarietako Araubide Ekonomiko Fiskalaren alderdi fiskalak aldatzeko ekainaren 27ko 20/1991 Legearen 64. artikuluan eta hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusten dena.

III. TITULUA

IKATZAREN ETA ELEKTRIZITATEAREN GAINEKO ZERGA BEREZIAK

I KAPITULUA

IKATZAREN GAINEKO ZERGA BEREZIA

75. artikulua. Eremu objektiboa.

1. Zerga honen ondoreetarako, ikatz izango dira Kontseiluaren 1987ko uztailaren 23ko 2.658/87 (EEE) Erregelamenduaren bidez ezarritako muga-zergen eta estatistiken nomenklaturako (aurrerantzean "nomenklatura konbinatua) 2701, 2702, 2704, 2708, 2713 eta 2714 kodeetan bildutako gaiak.
2. Nomenklatura konbinatuaren egituran zerbait aldatuz gero, lege honetako 18.2. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

76. artikulua. Aplikazio-eremua.

1. Ikatzen gaineko Zerga Berezia Espainiako lurralde osoan eskatuko da, Kanarietako Autonomia Erkidegoan, Zeuta eta Melillan izan ezik.
2. Aurreko atalean xedatutakoak ez du ezertan eragotziko nazioarteko hitzarmen eta itunetan ezarritakoa, ez eta lurraldearen arabera zerga-araubide bereziak ere.

77. artikulua. Zerga-egitatea.

1. Zerga honek lurralde-eremuan gertatzen den ikatzaren kontsumoari kargatuko du.
2. Aurreko atalaren ondoreetarako, ondoko eragiketak "kontsumorako jartze"tzat hartuko dira:
 - a) Ikatza Batasunaren barruan ekoiztu edo erauzi, inportatu edo eskuratu ondoren Zergaren lurralde-eremuan egiten den lehen salmenta edo ematea. Halaber, lehen salmenta edo emate izango dira eskuratu ondoren ikatza beste batzuei saltzen dieten enpresarioek egiten dituztenak, baldin eta eskuratzean lege honetako 79.1. artikuluan ezarritako salbuespena aplikatu bazaie.
 - b) Ikatzen autokontsumoa. Honen ondoreetarako, autokontsumoa izango da Batasunaren barruko ikatzaren ekoizleek edo erauzleek, inportatzaileek, eskuratzaileek edo aurreko letran aipatutako enpresarioek ikatza erabiltzea eta kontsumitzea.
3. Ikatza kontsumorako jarri dela pentsatuko da subjektu pasiboak ekoiztu, inportatu edo eskuratutako ikatza zertan erabili den frogatzen ez badu.

78. artikulua. Zergapean ez daudenak.

1. Ez daude zergapean Batasunaren barruko ekoizleek edo erauzleek, inportatzaileek edo eskuratzaileak Zergaren lurralde-eremutik kanpora zuzenean bidalita egiten dituzten ikatz salmentak eta emateak.
2. Aurreko idatz-zatian ezarritakoak ondoreak izan ditzan, ondokoak bete behar dira:
 - a) Bidalketa Lege honen 4. artikuluan 7. atalean zehaztutako «Komunitatearen lurraldera», Lege honen 76. artikuluan zehaztutako lurralde-eremuaren bestelakora, zuzenduta egiten bada, enpresari bidaltzaileak, horrelakoa egiteko eskatzen zaionean, egiaztatu behar du ikatzaren hartzailea den Estatu kidean horretarako erregistratuta dagoen enpresa bat dela, aipatutako Estatu kide horrek ezartzen duen araudiarekin bat etorriz, eta hartzaileak ikatza jaso duela. Kanarietako Autonomia Erkidegora zuzenduta egiten diren ikatzaren bidalketetan hurrengo letran xedatutakoak aginduko du.

- b) Ikatza Zergaren lurralde-eremutik kanpo bidaltzen bada, aurreko letran adierazi ez den leku batera, alegia, bidaltzen duen enpresarioak esportazioa frogatu behar du aduana-agiri egokiaren bidez, edo, bestela, ikatza Kanarietako Autonomia Erkidegora bidali dela.
3. Ikatzaren ekoizleek edo erauzleek ekoizpen edo erauzpen instalazioetan euren jardueri lotuta egiten duten autokontsumoa ez dago Zergaren kargapean.

79. artikulua. Salbuespenak.

1. Enpresarioek ikatza Zergaren aplikazio-lurraldean berriz saltzeko asmoarekin egiten duten lehen salmenta edo ematea salbuetsita dago.
2. Enpresarioek ikatza eskuratu ondoren Zergaren aplikazio-lurraldetik bidaltzeko egiten duten lehen salmenta edo ematea salbuetsita dago. Salbuespena aplikatu ahal izateko, lege honetako 78.2. artikuluan ezarritako guztia bete behar da.

Hala ere, hala eskuratzen den ikatza Zergaren lurralde-eremuaren barruan kontsumitzeko bada, lehen salmenta edo ematea ikatza destinoan kontsumitzen denean egintzat joko da.

3. Zergaren kargatik salbuetsita daude ikatza kontsumorako jartzeko eragiketak, ikatza ondoko erabilerearako denean:
 - a) ...
 - b) Erredukzio kimikoak eta prozesu elektrolitiko eta metalurgikoak.
 - c) Prozesu mineralogikoak. Prozesu mineralogikoak dira Kontseiluaren 1990eko urriaren 9ko 3037/90 (EEE) Erregelamenduaren bidez ezarritako NACE nomenklaturako DI 26 kodean sailkatutakoak: gai mineral ez-metalikoen industriak.
 - d) Etxe eta egoitzetan erregai gisa erabiltzeko. Ikatza honexetarako erabiliko dela pentsatuko da saldu edo ematen zaion kontsumitzailea industriakoa ez denean.
 - e) Errakuntza ez dakarten erabilera guztiak.
4. 2. atalean xedatutakoa alde batera utzi gabe, artikulua honetan jasotako salbuespenak araubidez zehazten diren baldintzak betetzearen arabera aplikatuko dira.

80. artikulua. Itzulketak.

1. Ikatza Zergaren aplikazio-eremutik kanpo bidaltzen duten enpresarioek Ikatzaren gaineko Zerga Bereziaren kuotak itzultzeko eskubide izango dute.
2. Itzulketa burutzeko, betekizun hauek bete behar dira:
 - a) Ikatza bidali dela frogatu behar da lege honetako 78.2. artikuluan xedatutakoaren arabera.
 - b) Itzultzeko eskatzen den kuotak sartu egin direla frogatu behar da aitortpen-likidazioa aurkeztuta. Hala ere, ikatza Zergaren aplikazio-lurraldetik kanpora bidaltzen duen enpresarioa subjektu pasiboa edo ordaindu behar duen arduraduna bada, kuota sartu izana frogatzeko hura jasanarazita ageri den faktura aurkeztu behar da.
3. Jasandako kuotaren zenbatekoa itzuliko da. Hala ere, kuotaren zenbatekoa zehazterik ez badago, itzulketarako eskubidea sortu duen eragiketa baino hiru hilabete lehenago indarrean egon den tasa aplikatuko da.

4. Itzulketarako behin-behineko baimena eman daiteke. Behin-behineko itzulketak behin betiko bihurtuko dira Zerga Ikuskatzailtzak egiaztatutakoan, bai eta itzulketarako eskubidea sortu duen eragiketa egin denetik lau urte pasatutakoan ere.

81. artikulua. Subjektu pasiboak.

1. Hauexek dira Zergaren subjektu pasiboak: Zergaren kargapean dauden salmenta edo emateak edo autokontsumo eragiketak egiten dituzten Batasunaren barruko ikatz ekoizle edo erauzleak, inportatzaileak eta eskuratzaileak, eta ikatzak birsaltzen duten enpresarioak.
2. 79.2. artikuluko bigarren paragrafoan araupetutako kasuetan, subjektu pasibo izango dira ikatza eskuratu ondoren Zergaren aplikazio-lurraldean kontsumitzeko xedematen duten enpresarioak.

82. artikulua. Sortzapena.

1. Zerga ikatza eskuratzaileen eskura jartzen denean sortuko da, edo autokontsumoa gertatzen denean.
2. 77.3. artikuluan ezarritako kasuetan, Zerga ikatzaren xedea ez dela frogatu egiaztatzen denean sortuko da.
3. 79.2. artikuluko bigarren paragrafoan araupetutako kasuetan, Zerga ikatza Zergaren aplikazio-lurraldean kontsumitzeko xedematen denean sortuko da.

83. artikulua. Zerga oinarria.

1. Zerga oinarria kargapeko ikatzaren indar energetikoa da gigajuliotan emana (GJ).
2. Zerga oinarria zuzeneko balioespenez zehaztuko da. Zerga oinarriaren zeharkako balioespena Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Foru Arau Orokorrean ezarritako kasuetan eta moduan aplikatu ahal izango da.

84. artikulua. zerga-tasa.

1. Zerga honako epigrafeen arabera eskatuko da:

1.1 epigrafea: Erabilera profesionaletarako ikatza, beti ere energia elektrikoa kogeneratzeko eta hura zuzenean zein zeharka sortzeko erabiltzen bada: 0,15 euro gigajouleko.

Epigrafe horretan jasotakoaren ondoretarako, lantegi eta instalazio industrialetan kontsumitzeko egiten diren ikatz-hornikuntzak hartuko dira erabilera profesionaletarako ikatzat, baina sailkapen horretatik kanpo geratuko da lantegi edo instalazio industrialak ez diren establezimendu zein lokaletan kontsumitzeko energia termikoa sortzeko erabiltzen den ikatza. Erabilera profesionalerako ikatzat hartuko da, baita ere, laborantzan erabiltzen dena.

1.2 epigrafea: Beste erabilera batzuetarako ikatza: 0,65 euro gigajouleko.

2. Energia elektrikoa eta energia termiko erabilgarria kogeneratzeko lantegietan erabiltzeko ikatz-horniduretan ezinbestekoa izango da Sektore Elektroari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legea garatzen duen araudiak aipatzen duen errendimendu elektriko baliokidea betetzen dela frogatzea. Mota horretako horniduren kasuan artikuluko honetako 1. ataleko 1.1 eta 1.2 epigrafeetan arautzen diren zerga-tasak aplikatuko dira elektrizitate-ekoizpenari (alternadore-bornetan neurtuta) eta energia termiko erabilgarriari egotzi beharreko portzentajea kontuan hartuta.

85. artikulua. Zergaren ordainarazpena.

1. Behar den kasuetan, subjektu pasiboek jasandako kuotak ikatza eskuratu dutenei jasanarazi beharko dizkiete, eta hauek jasan egin beharko dituzte.

Legearen 84.2 artikuluan xedatutakoaren arabera egindako ikatz-horniduren kasuan, elektrizitatea eta energia termiko erabilgarria kogeneratzeko zentralen titularrek jakinarazitako behin-behineko portzentajearen arabera ordaindutako kuoten zenbatekoa jasanarazi duten subjektu pasiboek jasanarazitako kuoten zenbatekoa ikatzaren xedearen behin betiko portzentajearen arabera erregularizatu beharko dute araudiak horretarako ezartzen duen prozedura erabilia.

2. Baldin eta, indarreko arautegiarekin bat etorriz, kargapeko eragiketa faktura edo antzeko agiri batean agertu behar bada, sortutako kuotak bertan jasanarazitako dira, beste kontzeptuetatik berezita. Eragiketa ez badago kargapean, edo salbuetsita badago, agiri horretan aipatuko da, eta onuraren oinarrian dagoen lege honetako manua aipatu behar da.

86. artikulua. Kudeaketa arauak.

1. Hiru hilean behin, subjektu pasiboek aldi horretan sortutako kuoten aitorpen-likidazioa aurkeztu behar dute, eta horrekin batera zerga-zorra ordaindu behar dute. Epealdian kuotarik batere sortu ez bada, ez dute edukiko aurrekoa egin beharrik.
2. Halaber, subjektu pasiboek urtean Zergaren eremu objektiboko gaiekin egindako eragiketen laburpen-aitorpena aurkeztu behar dute.
3. Ekonomia eta Ogasuneko ministroak ezarriko ditu aurreko idatz-zatietan aipatutako aitorpenak aurkezteko ereduak, epeak, betekizunak eta baldintzak.

87. artikulua. Arau-haustek eta zehapenak.

1. 84. artikulua 1.1 epigrafean xedatutako zerga-tasa aplikatuta egiten diren ikatz-horniduren kasuan, zerga arau-hauste larria izango da subjektu pasiboek datu faltsuak edo okerrak jakinaraztea, horrek bidezkoak baino kuota txikiagoak ordaintzea eragiten badu.

Zehapenaren oinarria ordaindu beharko zitekeen eta benetan ordaindutako kuoten arteko aldea izango da.

Zehapena % 50eko diruzko isun proportzionala izango da.

2. Tributuen arloko arau-hauste larria da subjektu pasiboek ez betetzea lege honetan eta berau garatzeko araudian ezarriko dauden beharkizunak eta baldintzak, lege honetan aurreikusitako salbuespenak edo tasa murriztuak aplikatzeko beharrezkoak direnak, onura horien xede den ikatzari emandako erabilera edo xedea justifikatzen ez denean.

Zehapenaren oinarria ikatzari aplikatutako onura fiskalaren zenbatekoa izango da, lege edo araudi bidez ezarriko dauden beharkizunak eta baldintzak bete ez direnean.

Zehapena ehuneko 50eko diruzko isun proportzionala izango da.

3. Tributuen arloko arau-hauste arina da subjektu pasiboek ez betetzea lege honetan eta lege hau garatzeko araudian ezarriko dauden beharkizunak eta baldintzak, lege honetan aurreikusitako salbuespenak edo tasa murriztuak aplikatzeko beharrezkoak direnak, tributuen arloko arau-hauste larria ez denean.

Zehapenaren oinarria ikatzari aplikatutako onura fiskalaren zenbatekoa izango da, lege edo araudi bidez ezarriko dauden beharkizunak eta baldintzak bete ez direnean.

Zehapena ehuneko 10eko diruzko isun proportzionala izango da.

4. Zerga honetako gainerako tributu-arloko arau-haustek Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrean xedaturik dagoenaren arabera kalifikatu eta zehatuko dira.

88. artikulua. Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen gaikuntza.

Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak Zergaren kargapean ez dauden kasuak, salbuespenak eta karga-tasak aldatu ahal izango ditu.

II. KAPITULUA ELEKTRIZITATEAREN GAINEKO ZERGA BEREZIA

89. artikulua.- Izaera.

Elektrizitatearen gaineko zerga berezia zeharkako zerga da eta elektrizitatearen kontsumoaren gainean sortzen da. Fase bakarrean kontsumorako energia elektrikoaren hornidura eta ekoizleek eurek sortutako elektrizitatearen kontsumoa zergapetzen du.

90. artikulua. Eremu objektiboa.

Elektrizitatearen gaineko zerga bereziaren eremu objektiboa NK 2716 kodean sailkatutako energia elektrikoak osatzen du. Hori Kontseiluaren 2.658/87 (EEE) Araudiak, 1987ko uztailaren 23koak, xedatutako muga-zergen nomenklaturan eta estatistikan arautzen du.

91. artikulua. Aplikazio-eremua.

1. Zerga Espainiako lurralde guztian aplikatuko da.
2. Aurreko zenbakian xedatutakoa Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldeetan eta Nafarroako Foru Erkidegoan kontzertuaren araberrako foruen zerga-araubideek eta indarrean dagoen hitzarmen ekonomikoak, hurrenez hurren, xedatutakoa baztertu gabe ulertuko da. Halaber, barneko antolamenduaren zati izatera pasa diren nazioarteko tratatu eta hitzarmenei erreparatuko zaie, Espainiako Konstituzioak 96. artikuluan xedatutakoarekin bat.

92. artikulua. Zerga-egitatea.

1. Hurrengoak daude zergapean:
 - a) Pertsona edo erakunde batek bere kontsumorako elektrizitatea erosten duen energia elektrikoaren hornidura. Energia elektrikoaren horniduratzat jotzen da, bai sare elektrikoari atzitzeko ordain-zerbitzua eskaintzea, bai elektrizitatea entregatzea.

Zerga honetarako, beti izango dute kontsumitzaile-izaera energia ibilgailuen birkarga energetikorako zerbitzuak emateko eskuratzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek.
 - b) Elektrizitatea eurek sortu ostean, energia elektrikoaren ekoizleen kontsumoa.
2. Legean izendapen propioa duten kontzeptu eta terminoei dagokienez, bertan definitutakoak izan ezik, Estatuko sektore elektrikoaren araudiak xedatutakoari erreparatuko zaio.

93. artikulua. Zergapean ez dauden balizkoak.

Zergapean ez dago 100 kilowatt energia elektrikitik (kW) beherako guztizko potentzia duten sorgailuen edo sorgailu-multzoaren kontsumoa, eurek sortzen badute.

94. artikulua. Salbuespenak.

Araubidez xedatutako baldintzetan honakoak salbuetsiak egongo dira:

1. Diplomazia- eta kontsul-harremanen esparruan hornitutako energia elektrikoa.

2. Espainian nazioarteko erakunde bezala onartuak daudenen eta beren kideen hornidurarako energia elektrikoa. Erakundeak osatzeko nazioarteko hitzarmenetan edo egoitzaren akordioetan xedatutako mugekin eta baldintzetan egingo da.
3. Espainia ezik, edozein estatutako indar armatuei hornitutako energia elektrikoa, estatu hori Ipar Atlantikoko Tratatuaren kide bada. Halaber, beren zerbitzura dauden langile zibilak, jangelak eta tabernak sartuko dira.
4. Hirugarren herrialdeekin edo nazioarteko erakundeekin egindako hitzarmenaren esparruan hornitutako energia elektrikoa, betiere hitzarmenean balio erantsiaren gaineko zergaz salbuestea onartu edo baimentzen denean.
5. Teknologia berriztagarri, kogenerazio eta hondakinen eremuan energia elektrikoaren ekoizpen instalazioetako titularrek kontsumitzen duten energia elektrikoa, instalatutako potentziak 50 megawatt (MW) gainditzen ez baditu.
6. Erregaien mordoek sortu ostean, kontsumitutako energia elektrikoa.
7. Elektrizitatea ekoizteko instalazioetan jarduera hori gauzatzeko kontsumitutako energia elektrikoa eta energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioei hornitutako energia elektrikoa, haietan jarduera horiek gauzatzeko.
8. Itsasontzietan kontsumitutako energia elektrikoa, barruan sortu delako.
9. Soberakin den ordu-energiarekin konpentsatzeko xede den hornitutako energia elektrikoa, konpentsaziopeko soberakindun autokontsumoaren modalitatean. Hori guztia, apirilaren 5eko 244/2019 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera. Horren bidez arautzen dira energia elektrikoaren autokontsumoaren baldintza administratiboak, teknikoak eta ekonomikoak.
10. Espainia ezik, edozein estatutako indar armatuei hornitutako energia elektrikoa, indar horiek edo beren zerbitzura dituzten langile zibilak baliatzeko, edo jantokiak edo kantinek hornitzeko, baldin eta indar horiek Batasunaren jarduera bat segurtasun eta defentsa politika erkidearen esparruan gauzatzeko egindako defentsa ahaleginaren eraginpean badaude.

95. artikulua. Ordainketa.

Zergaren sortzapen-aldia:

- a) 92. artikuluko 1. atalaren a) hizkian aurrez ikusitako ustezkoan, fakturazio-denboraldi bakoitzean hornitutako energia elektrikoari dagokion prezioaren zatia eska daitekeenean.
- b) 92. artikuluko 1. atalaren b) hizkian aurrez ikusitako ustezkoan, kontsumitzen denean.

96. artikulua. Zergadunak.

1. Zergadunak ondorengoak dira:
 - a) 92. artikuluko 1. atalaren a) hizkian aurrez ikusitako ustezkoan, 24/2013 Legeak, abenduaren 26koak, Sektore Elektrikoari buruzkoak, xedatutakoaren arabera, behar bezala gaituak daudenak eta kontsumitzaileari energia elektrikoaren hornidurak egiten dizkietenak, artikuluko honen 3. atalean xedatutakoa alde batera utzi gabe.
 - b) 92. artikuluko 1. atalaren b) hizkian aurrez ikusitako ustezkoan, eurek sortutako energia elektrikoa kontsumitzen dutenak.
2. Salbuespenaz edo jomugaren arabera murrizketaz gozatzen duen elektrizitateari emandako erabilera edo jomuga justifikatzeko orduan irregulartasunak daudenean, hornitzaileek zergaren zorra eta zigorrak ordaindu beharko dituzte, hornidura zerga-onuzuz

gozatzeko bulego kudeatzaileak baimendutako kontsumitzaileari egin zitzaiola justifikatzen ez duten bitartean.

3. Artikulu honen hurrengo atalean xedatutakoa baztertu gabe, zergapeko ez izatearen edo salbuespenaz ala murrizketaz gozatzearen babesean egin diren elektrizitatearen horniduretan zerga behar bezala jasanarazi gabe jaso den elektrizitatearengatik zergapekoak izango dira zerga-onurak oker jaso dituzten kontsumitzaileak, hornitzaileari araubidez xedatutako epeetan eta baldintzetan erregulazioaren datu zehatzak jakinarazi ez badizkiote.
4. Kontsumitzaileek hornidura-puntu bakarra izanda, energia elektrikoaren horniduretan hornitutako energiaren zati bat Legeak 94.7. artikuluan xedatutakoaren babesean salbuesia badute, zergapekodunak kontsumitzaileak izango dira. Halaber, zergapekodunak artikulu honetako 1. atalaren a) hizkian aipatutakoak izango dira, kontsumorako erosten duten elektrizitatearengatik.

97. artikulua. Zerga-oinarria.

Balio erantsiaren gaineko zergarako zehaztutako zerga-oinarriak osatuko du, elektrizitatearen gaineko zergaren kuotak kenduta. Xede horrez, lotura ez duten pertsonen artean balio erantsiaren gaineko zerga aplikagarria den lurraldearen barruan kostu bidez eskuratutako energia elektrikoaren hornidura kontuan hartuko da, 37/1992 Legeak, abenduaren 28koak, balio erantsiaren gaineko zergari buruzkoak, 78. eta 79. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

98. artikulua. Likidatuko den oinarria.

1. Likidatuko den oinarria kalkulatzeko, zerga-oinarriari ehuneko 85 murriztuko zaio. Nolanahi ere, betiere araubidez xedatutako baldintzak eta eginkizunak betetzen badira, hurrengo erabilera batera bideratutako energia elektrikoaren kopuruari aplikatuko zaio:
 - a) Murrizketa kimikoa eta prozesu elektrolitikoak.
 - b) Prozesu mineralogikoak. Prozesu mineralogikoak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 20ko 1893/2006 (EE) Araudiaren 23. dibisioan sailkatutakoak dira. Izan ere, horretan NACE jarduera ekonomikoen estatistika-nomenklatura (2. berrazterketa) xedatzen da eta Kontseiluaren 3037/90 (EEE) Araudiak eta alderdi estatistiko bereziei buruzko EEren Araudi zehatzek aldatzen dute.
 - c) Prozesu metalurgikoak. Prozesu metalurgikoak dira metala ekoizteko eta prestatzeko prozesuak, baita honako hauek ere metalezko produktuen ekoizpenaren barruan: forjatuko piezak ekoiztea, prentsa, trokelaketa, luzaketa, eratzun ijeztatuak, hautsezko mea produktuak, azalaren tratamendua eta fundizioko termotratamendua, berokuntza, kontserbazioa, distentsioa eta beste termotratamendu batzuk.
 - d) Industria-jarduerak, elektrizitatearen kostua produktuaren kostuaren ehuneko 50 baino gehiago bada.

Xede horretarako, produktuaren kostua ondorengo batura da: ondasun eta zerbitzuen guztizko erosketak, eskulanaren kostua eta kapital finkoaren kontsumoa. Kostua batez besteko unitateko kalkulatu da.

Elektrizitatearen kostua hurrengo moduan definituko da: elektrizitatearen egiazko erosketa-balioa edo elektrizitatearen ekoizpen-kostua, enpresan bertan sortzen bada, zerga guztiak, BEZ kengarria izan ezik, barne.
 - e) Nekazaritza-ureztapenak.
 - f) Industria-jarduerak, elektrizitatearen erosketa edo kontsumoa gutxienez ekoizpen-balioaren ehuneko 5 bada.

Xede horietarako hurrengoak ulertu behar dira:

- “Elektrizitatearen erosketak edo kontsumoa”: erosi edo kontsumitu den energia elektrikoaren egiazko kostua, zerga guztiak barne, BEZ kengarria izan ezik.
 - “Ekoizpenaren balioa”: negozio-zifraren zenbatekoak osatuko du eta horri izakinen, jarduneko produktuen eta produktu bukatuen aldaketa erantsiko zaio.
2. Likidatuko den oinarria kalkulatzeko, zerga-oinarriari ehuneko 100 murriztuko zaio. Nolanahi ere, betiere araubidez xedatutako baldintzak eta eginkizunak betetzen badira aplikatuko da, portuan dauden itsasontziei emandako energia elektrikoaren gainean. Xede horrez, ezin dute aisialdirako itsasontzi pribatuak izan.
- Xede horrez, «aisialdiko itsasontzi pribatuak» dira jabeek edo errentamenduaren babesean ala beste bitarteko batez baliaturik pertsona fisiko ala juridikoek erabilitako itsasontziak honako helbururik ez badute: merkataritzara eta, bereziki, bidaiariak edo salgaiak garraiatzea, irabazi helburuz zerbitzuak eskaintzea, edo herri agintariek zehaztutako beharretara bideratzea.
3. Likidatuko den oinarria kalkulatzeko, zerga-oinarriari ehuneko 100 murriztuko zaio. Ehuneko hori aplikatuko da, baldin eta araubidez xedatutako baldintzak eta eginkizunak betetzen badira, tren bidezko garraioan hornitutako edo kontsumitutako energia elektrikoaren kantitatearen gain.

99. artikulua. Zerga-tasa.

1. Artikulu honetako 2. atalean ezarritakoa eragotzi gabe, Zergaren zioz %5,11269632ko tasa aplikatuko da.
2. 1. atalean ezarritako zerga-tasa aplikatzearen ondoriozko kuota osoak ezin dira izan zenbateko hauek baino gutxiago:
 - a) 0,5 euro megawatt/orduko (MWh), hornitutako edo kontsumitutako elektrizitateari erabilera industrial ematen bazaio porturatutako itsasontzietan (aisiako itsasontzi pribatuak ez direnetan) edo tren bidezko garraioan.
 - b) 1 euro megawatt-orduko (MWh), elektrizitatea beste xede batzuetarako erabiltzen bada.

Atal honetan ezarritako baldintza betetzen ez bada, a) eta b) letretako zenbatekoak aplikatuko dira 1. ataleko zerga-tasaren ordean eta denboraldi guztirako hornidura edo kontsumoaren gainean aplikatuko dira megawatt-ordu modura azalduta (MWh).
3. 2. atalean aurrez ikusitakorako, industria erabilerara bideratuak honakoak dira:
 - a) Goi tentsioetan edo industria planta eta instalazioetan egindakoak.
 - b) Behe-tentsioan nekazaritzako ureztapenerako egiten direnak.
4. 2. atalean xedatutakoa ez da aplikagarria izango 98. artikuluko 1. atalaren a), b), c) eta d) hizkietan aurrez ikusten diren ustezkoetarako.

100. artikulua. Kuota osoa.

Kuota osoa likidatuko den oinarriari aurreko artikuluekin bat dagokion zerga-tasa aplikatzearen ondoriozkoa da.

101. artikulua. Jasanarazi behar dena.

1. Zergapekodunek oso-osoan jasanaraziko diote Zergaren zenbatekoa kargatzen den eragiketa egiten zaionari, azken honek jasanarazpena Lege honetan xedatzen denarekin bat datorren kasu guztietan jasan beharko duelarik, bi alderdien artean izan litezkeen hizpaketak gorabehera.

Sortutako kuoten zenbatekoa jasanarazi duten zergapekodunek, Legeak 98. artikuluan xedatutakoari jarraiki, murrizketen onuradunek jakinarazitako behin-behineko ehunekoaren arabera egin badute edo ez ordaindu behar izanaren edo salbuespenaren onuradunek hasieran jakinarazitako datuen arabera zerga jasanarazi ez badute, araubidez xedatutako prozeduraren bitartez jasanarazitako edo jasandako kuoten zenbatekoa erregularizatu beharko dute, araudian xedatutakoarekin bat, horniduren datu zehatzak jakinarazten zaizkienean.

2. Sortutako kuotak fakturan gainerako kontzeptuetatik bereizita jasanaraziko dira. Eragiketa salbuesiak edo likidatuko den oinarrian murrizketa dutenak badira, aipatu dokumentuan alderdi hori aipatuko da eta arau aplikagarria adierazi ere bai.
3. 92. artikuluko 1. atalaren b) hizkian aurrez ikusitako ustezkoetan kuotak jasanaraztea ez da bidezkoa izango, kontsumitzailea zergapekoduna denean. Gauza bera gertatuko da likidazioa ikuskaritza-akten ondorioz eta oinarrien zeharkako estimazioekin egiten denean.

102. artikulua. Kudeaketa-arauak.

1. Zergapekodunek dagozkien autolikidazioak aurkeztu beharko dituzte eta, aldi berean, zerga-zorra ordaindu beharko dute.

Ogasun eta Herri Administrazioen ministroak aurreko paragrafoan aipatu diren autolikidazioak aurkezteko prozedura eta epea zehaztuko ditu.

2. Zerga honengatik autolikidazioa aurkeztu behar dutenek, artikuluko honen 4. atalean aipatzen diren ordezkariak eta Lege honen 94. artikuluko 5., 6. eta 7. ataletan arautzen diren salbuespenen onuradunek, baita 98. artikuluko murrizketen onuradunek ere zerga berezien bulego kudeatzaileari dagokion lurralde-erregistroan inskribatzea eskatuko diote. Horretarako, jarduera gauzatzen establezimendua dagoen tokia edo, hori izan ezean, helbide fiskala duenean kontuan hartuko da.

Ogasun eta Herri Funtzioaren ministroak zerga honengatik zerga-obligaziodunen erroldaren egitura zehaztuko du. Halaber, lurralde-erregistroan inskribatzeko prozedura eta epea xedatuko ditu.

3. Aurreko bi ataletan xedatutakoa alde batera utzita, araubidez beharrezkotzat jotzen diren informazio-aitorpenak aurkezteko eta beste eginbehar formal batzuk betetzeko baldintzak eta betekizunak zehaztuko dira.
4. Espainiako lurraldean kokatuak ez dauden zergapekodunek, Kontseiluaren 2006/112/EE Zuzentarauak, 2006ko azaroaren 28koak, balio erantsiaren gaineko zergaren sistema erkideari buruzkoak, 358. artikuluan xedatutakoaren arabera, Espainian egoitza duen pertsona fisikoa edo juridikoa izendatu beharko dute, zerga honen obligazioei dagokienez zerga-administrazioaren aurrean ordezkatzeko. Izendapena behar bezala egiaztatuko beharko da zerga-oinarria baino lehen edo beranduen une horretan.

103. artikulua. Urratzeak eta zehapenak.

1. Ez ordaindu beharrendaren, salbuespenaren edo murrizketaren arabera egindako elektrizitatearen horniduretan, zergaren arau-hauste larria izango da araubidez xedatutako epeetan datu zehatzak ez jakinaraztea, horren ondorioz kuotak jasanarazten ez direnean edo horiek txikiagoak direnean.

Zehapenaren jasanarazi beharko litzatekeen kuotaren eta egiaz jasanarazitakoaren arteko aldea izango da.

Zehapena % 15eko diru-isun proportzionala izango da.

Ustezko horietan 58/2003 Legeak, abenduaren 17koak, Zergari buruzko Orokorrak, 188. artikuluan xedatutakoa aplikagarria izango da.

Artikulu honetan xedatutako zehapena ez da aplikatuko, zerga-zorra ez ordaintzeagatik arau-haustearen ondorioz zehapena jartzea dagokionean. Hori 58/2003 Legeak, abenduaren 17koak, Zergari buruzko Orokorrak, 191. artikuluan xedatutako autolikidazioaren ondoren gertatu behar da.

2. Aurreko artikuluko 4. atalean aipatzen den eginbeharra betetzen ez denean, zergaren arau-hauste larriaren aurrean egongo da eta zehapena 1.000 euroko diru-isun finkoa izango da.
3. Tributu-arloko arau-hauste larria da zergaren zergadunek ez betetzea lege honetan eta berau garatzeko araudian zerga-oinarrian aurreikusirik dauden salbuespenak edo murrizketak aplikatzeko ezarritako beharkizun eta baldintzak, onura horien xede den elektrizitateari emandako erabilera edo xedea justifikatzen ez denean.

Zehapenaren oinarria energia elektrikoari aplikatutako onura fiskalaren zenbatekoa izango da, baldin eta legez edo araudi bidez ezarririk dauden beharkizunak eta baldintzak bete ez badira.

Zehapena ehuneko 50eko diruzko isun proportzionala izango da.

4. Tributu-arloko arau-hauste arina da zergadunek ez betetzea lege honetan eta berau garatzeko araudian zerga-oinarrian aurreikusirik dauden salbuespenak edo murrizketak aplikatzeko ezarritako beharkizun eta baldintzak, tributu-arloko arau-hauste larria ez denean.

Zehapenaren oinarria energia elektrikoari aplikatutako onura fiskalaren zenbatekoa izango da, baldin eta legez edo araudi bidez ezarririk dauden beharkizunak eta baldintzak bete ez badira.

Zehapena ehuneko 10eko diruzko isun proportzionala izango da.

5. Zerga honi dagozkion gainerako tributu-arloko arau-haustek Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrean xedaturik dagoenaren arabera kalifikatu eta zehatuko dira, aurreko artikuluan ezarritakoari kalterik eragin gabe.

104. artikulua. Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen gaikuntza.

Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak zergaren salbuespenak, murrizketak eta zergatasak alda ditzake.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengo xedapen gehigarria.

1. Espainian behin betiko matrikulazioaren gai izan beharko dira Lege honetan aipatzen diren garraiobide berriak zein erabiliak, Espainian egoitza izan edo Espainian kokaturiko establezimenduen titularrak diren pertsonak edo entitateek espainiar lurraldean erabiltzeko direnean.
2. Garraiobideen matrikulazioa arautzen duen arautegi zehatzak ezarritakoari kalterik egin gabe, ezin izango da eskatu aurreko idatz-zatian ezarritako betebeharra betetzea, baldin

eta lege honen 65. artikularen 1. idatz-zatiaren d) hizkiak garraibide batzuen gaineko zerga bereziari buruz ezarritakoari dagokionez eta manu horretan epearen barruan:

- a) Zerga autolikidatu bada eta beharrezko diru sarrera egin bada, edo
 - b) Zerga administrazioak alde zuzenetik onartu badu ez-loturako edo salbuespeneko kasu baten aplikazioa, legez halaxe ezarrita dagoen kasuetan, edo
 - c) Zerga administrazioaren aurrean zergaren salbuespenari buruzko adierazpena aurkeztu bada, halaxe ezarrita dagoen kasutan.
3. Garraibideen matrikulazioa arautzen duen arautegi zehatzak ezarritakoari kalterik egin gabe, halaber, ezin izango da eskatu aurreko 1. idatz-zatian ezarritako betebeharra betetzea, lotura horri dagokion zerga likidatua izan bada zerga administrazioaren aldetik eta beharrezko diru sarrera egin bada.
4. Aurreko idatz-zatiek aipatzen duten betebeharra ez dela bete egiaztatzen denean, zerga administrazioaren organoek edo trafikoko, bide segurtasun, nabigazio edo airenabigazioari buruzko eskumena duten organoek zergapekoari bost eguneko epea emango diote hori betetzeko edo kreditu erakunde baten edo elkarrekiko bermedun erakunde baten abal solidarioa aurkezteko edo garraibide zehatz batzuen gaineko zerga bereziaren ordainketa bermatzen duen kauzio aseguruaren ziurtagiria. Epe hori igarotzen bada behin betiko matrikulazioa egin gabe edo abal edo ziurtagiri hori aurkeztu gabe, organo horiek garraibidea immobilizatuko dute, harik eta horren administrazio eta zerga egoeraren erregulazioa egiaztatu arte. Guztiarekin ere, immobilizazioa bertan behera utzi da zergapekoak abal solidarioa edo aseguru ziurtagiria aurkezten badu gorago adierazitako terminoen arabera.

Bigarren xedapen gehigarria.

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergatik salbuetsiak adierazten dira Administrazio eta izaki publikoek merkataritzako sozietateen sozietate kapitalean duten partaidetzaren izeneko akzioak besterentzeko sor ditzaten sozietateen kapital eraketa eta zabalkuntzak.

Aipatu sozietateen kapital eraketak eta zabalkuntzek Estatuaren hobarien araubide bera izango dute, Fedemaile publikoek eta merkataritzako Erregistratzaileek esku hartzeagatik sortzen diren ogibidesariei eta arantzelei dagokienez.

Hirugarren xedapen gehigarria.

98. artikuluko 2. atalean xedatutakoa eraginkortasunez aplikatzeko, erkidegoaren antolamenduarekin bateragarria izan beharko du.

Laugarren xedapen gehigarria. Zigarro elektronikoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen likidoen gaineko zergaren araudi teknikoaren prozedura.

...

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengo xedapen iragankorra. Elkartebarneko zirkulazioa.

1. Bidaiariek Estatu kide batetik bestera joatean zergarik gabeko denda batean edo elkartebarneko hegaldiko hegazkin edo itsasaldiko itsasuntzi baten barruan egiten dituzten kargapeko ekoizkineen eskuraketei dagokienez, Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziak ez dira 1999ko ekainaren 30era arte eskagarriak izango. Onura hau bidaiariek horrela eskuratu eta, norberaren fardolean, garraiatzen dituzten ondasunetara mugatzen da, ondasunon kopuruek ez dutela gainontzeko herrietatik bidaiariek egiten dituzten zerga hauetatik salbuetsitako inportazioetarako ezarritakoak gairatzerik.

Tratamendu bera emango zaie, Mantxako Kanal azpiko tunelerako bi terminelateko baten barruan dauden saltokietan erositako ekoizkinei dagokienez, bi terminalen arteko bidea egiteko baliozko garraioagiria duten bidaiariei.

2. Zerga berezien gai izan eta 1993ko urtarrilaren lehenaz aurretik elkartebarneko igarobidearen araubide etengarrian dauden ekoizkinek araubide horren menpe jarraituko dute araubide hori berari buruzko arauari atxikiz amaitu arte.

Bigarren xedapen iragankorra. Zerga egitatea.

Lege honetan itxuratzen diren moduan fabrikazioaren gaineko zerga berezien gai diren ekoizkinei dagokienez, legea indarrean sartu baino lehen fabrikatu, inportatu eta sartuak izan eta fabrika eta gordailu fikaletan badaude, zerga hauek Lege honetako 7. artikuluan ezartzen denaren arabera sortzapena gertatzerakoan eskatuko dira, sortzapen horren unean indarrean dauden tasen arabera..

Hirugarren xedapen iragankorra. Salbuespenak.

1. Beren zertarakoa dela-eta 45/1985 Legean ezarritako salbuespenetakoren baten onura jaso dutelako, Lege hau indarrean sartu baino lehen, zerga horiek ordaindu gabe, eskuratu edo inportatuak diren zerga berezien gai diren ekoizkinak helburu horietarako erabili edo kontsumitu ahal izango dira, baldin eta, Lege honetan ezarritakoaren arabera, araubide etengarrian eutsi ahal izan edo salbuespen edo itzulketarako eskubidea sortarazten badute.
2. Fabrikazioaren gaineko zerga berezien gai diren ekoizkinen fabrikazio edo inportazioa dela-eta, 45/1985 Legearen arabera, salbuespena jaso izan eta aurreko atalean aurreikusten dena aplikagarri ez zaien industriari ekoizkin horien izakinen eta Lege hau indarreran sartzekoan beren eskuetan zituzten beste batzuei erantsitako aitorpen-likidazioa aurkeztu beharko dute, 1993ko martxoaren 31ra arte, ekoizkinak daudeneko establezimenduari dagokion bulego kudeatzailean, Lege honetan ezarritako tasei dagozkien kuotak sartuz.
3. Lege hau indarrean sartzetik 1993ko ekainaren 30era arte, fabrikazioaren gaineko zerga berezien gai diren ekoizkinen eskuraketa eta inportazioa, Lege honetan zergaren salbuespena aintzatesten zaien helbueretakoren baterako, 45/1985 Legearen arabera emanda eta 1992ko abenduaren 31n indarrean dauden baimenen itzalpean egingo da, baimenen indarraldia 1993ko ekainaren 30era arte luzatuta geratzen dela. Salbuespen izakizun berrien kasuan edo eskuratzailer edo inportatzailea aurretik baimenduta ez bazegoen, salbuespena aplikatzeko eskuratzailerak izenpetu eta ekoizkinak erabiliko direneko establezimenduari dagokion bulego kudeatzaileak ikusonetsitako idazki bat soilik aurkeztu beharko zaio saltzaileari edo aduana inportatzaileari; idazki honetan aplikagarritzat jotzen den salbuespen izakizuna zehaztu eta zergarik ordaindu gabe eskuratu nahi dituen ekoizkinei emango dien destinoa onura horretarako eskubidea sortzen duena izango dela adierazi beharko du. Eskuratzailerak jasotako ekoizkinen erabilera ezegokiaren erantzule izango da.
4. Araubide etengarrian eskuratzeko, nahikoa da hornitzailearen aurrean gordailuzain baimenduaren izaera egiaztatzea; honetarako, erregistroko inskribapen txartelak, Lege hau indarrean sartu baino lehen luzatuak eta 1993ko ekainaren 30era gabe iraungitzen direnak, indarrekoetat joko dira azken data honetara arte.
5. Erregistraturiko jarduleek, erregistratu gabeko jarduleek eta hartzaile baimenduek, jasotako ekoizkinak Lege honetan ezarritakoaren arabera salbuespen eskubidea sortzen duten erabileretan autokontsumitzen badituzte, onura hori aplikatzeko inolako erazko betekizunik gabe erabili edo kontsumitu ahal izango dituzte 1993ko ekainaren 30era arte, ekoizkinei emandako erabileraren erantzule direla.

Laugarren xedapen iragankorra. Itzulketak.

1. Fabrikazioaren gaineko zerga berezien gai izan eta, Lege hau indarrean sartu baino lehen, 45/1985 Legeari atxikiz, ordaindutako kuoten itzulketak osoaren edo partzialaren eskearen gai izan diren ekoizkinak itzulketarako eskubidea sortu zuten helburuetan kontsumitu edo erabili ahal izango dira, itzulketak orduan indarrean zegoen prozeduraren arabera egingo dela.
2. Lege hau indarrean sartu baino lehen zerga berezien zioz sortutako kuoten itzulketarako eskubidea sortzen duten ekoizkinen esportazioetan, itzultzeko zenbatekoa 1992ko abenduaren 31n indarrean dauden tasei atxikiz zehaztuko da.

Bosgarren xedapen iragankorra. Alkohol eta edari eratorrien gaineko Zerga.

1. Biltegi-jabeek eta xehekariek, Lege hau indarrean sartzerakoan, bertan indargabetzen den arautegiaren arabera dituzten alkohol desnaturalizatuaren izakinak alkohol guztiz desnaturalizatutzat joko dira 1993ko ekainaren 30era arte, horrelakoak direnez merkaturatu ahal izango direla egun horretara arte.
2. Alkohol desnaturalizatua jasotzeko baimenak, 1992ko abenduaren 31ra arte indarrekoak, baliozkotzat joko dira 1993ko ekainaren 30era arte, alkohol guztiz desnaturalizatuaren jasoketari dagokionez.
3. Alkohol-xehekariek zergatik salbuetsitako alkohol guztiz desnaturalizatua jaso ahal izango dute 1993ko ekainaren 30era arte. Horretarako, hornitzaileari eskuratzailerak izenpetutako eskaera idatzia soilik aurkeztu beharko diote, bertan, Ekonomi Jardueren gaineko Zergari buruzko arautegiaren arabera, alkohol desnaturalizatua txikizka saltzeko establezimendu baimenduaren titularrak dela agertarazi behar dutela. Xehekari hauek ez dute lau litro alkohol guztiz desnaturalizatu baino gehiagoren salmentak egiterik izango, pertsona eskuratzailerak identifikazio datuak eta emandako kopuruak jasotzen dituen erregistroa eraman behar dutela alkohol horri emandako destinoa egiaztatzeko.
4. Zerga bereziak kudeatzen dituzten bulegoen lurralde-erregistroetan alkohol-biltegi gisa inskribaturiko establezimenduak gordailu fiskaltzat joko dira 1993ko ekainaren 30era arte, alkohol guztiz desnaturalizatuari dagokionez soilik.

Seigarren xedapen iragankorra. Hidrokarburoen gaineko Zerga.

1. Lege hau indarrean sartzerakoan izakinetan dauden B eta C motako gasolioak karburagai gisa erabili ahal izango dira, 1993ko ekainaren 30era arte, 54. artikuluko 2. atalean aurreikusten diren erabileretan, trenbidezko garraioan, josteta nabigazio pribatuaz bestelakoan eta, oro har, erregai gisa ere.
2. Arrantzari atxikitako itsasuntzien horniketari dagokion zergaren salbuespen eta itzulketak 1993ko abenduaren 31ra arte aplikatuko dira, Lege hau indarrean sartu arte indarrean dagoen prozedurari jarraituz.
3. Xedapen honetako 2. atalean aipatzen direnez bestelakoak izan eta 51. artikuluko 2. ataleko a), b) eta f) idazatietan ezarritako salbuespenak eta 52. artikuluko b) idazatian ezarritako itzulketak aplikatzeko, nahikoa izango da, 1993ko ekainaren 30era arte, hornitzaileak luzaturiko merkataritzako emate-agirian honako datu hauek gutxienez agertaraztea: horniketaren data, hornitutako itsasuntzi edo aireuntziaren titularrak eta matrikula, emandako karburagaiaren mota eta kopurua, eta itsasuntziaren edo aireuntziaren titularrak edo bere lege ordezkariak unti barruko horniketarekin ados dagoela eta itsasuntziak edo aireuntziak jostetako nabigazio edo abiazio pribaturik egiten ez duela aitortzea.
4. Lege honetako 50. artikuluko 3. atalean ezartzen den betekizuna ez da eskagarria izango 1993ko uztailaren 1era arte 1.7, 1.8, 1.10, 1.12, 2.10 eta 2.13 epigrafeei dagokienez. 1.4

epigrafeari dagokionez, Lege hau indarrean sartu arte B eta C galioetarako baimendutako trazagailuak eta markagailuak onartuko dira aldi horretan.

5. Lege honetako 55. artikuluko 5. atalean ezarritakoaren ondoretarako, kontutan izango dira, berebat, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 23ko 45/1985 Legearen 35. artikuluan ezarritako urratzeak.

Zazpigarren xedapen iragankorra. Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga.

1. Garraiobideen lehen matrikulazioa ez da zerga bereziari loturik egongo beren emate edo inportazioari dagokion Balio Erantsiaren gaineko Zergaren sortzapena 1993ko urtarrilaren 1 baino lehen gertatua bada.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa gorabehera, Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziari loturik egongo da 1992ko urriaren 23tik 1992ko abenduaren 31ra bitartean, biak barne, matrikulatutako garraiobideen lehen eskualdaketa, 1993 eta 1994 urteetan egiten bada, baldin eta garraiobide horien eskualdatzaileak, eskuraketa dela-eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren tasa gehitua jasan izanik, zerga honen kuotak kentzeko eskubidea badu. Lerroalde honetan xedatzen dena ez zaie aplikagarri izango, Lege honetako 65 eta 66. artikuluetan xedatzen denaren arabera, loturarik ezaren edo salbuespenaren izakizunen batean sartzen diren garraiobideei, ez eta nazio lurraldetik kanpo bidali edo esportatu eta 1994ko abenduaren 31ra gabe nazio lurraldean berriro sartu edo berrinportatzen ez diren garraiobideei ere.

2. Industria, merkataritza, nekazaritza, medikuntza edo zientzia soilik aplikatzeko diren ibilgailuek, baldin eta beren saldo-ereduak zerga Administrazioak 1993ko urtarrilaren 1 baino lehen homologatuta badaude, homologazio horri eutsiko diote Lege honetako 65. artikuluko 1.a).3gn. atalean aurreikusten denaren ondoretarako.

3. ...

4. ...

Zortzigarrena. Elektrizitatearen gaineko zerga bereziari dagokion lurralde-erregistroan inskribatzea.

Zerga honengatik autolikidazioak aurkeztu behar dituzten obligaziodunak, baita bertan xedatutako salbuespenen eta murrizketen onuradunak ere, elektrizitatearen gaineko zergarengatik lurralde-erregistroan inskribatuak badaude, zerga honengatik ez dute inskribapen berririk eskatu beharko.

Bederatzigarren xedapen iragankorra. Zigarro elektronikoaren eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen likidoen gaineko zergari buruzko informazio aitorpena aurkeztea.

Zigarro elektronikoaren eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen likidoen gaineko zerga indarrean jarri eta hurrengo 30 egunetan, zerga horren xede diren produktuak helburu komertzialekin biltegitratzen dituztenek informazio-aitorpen bat aurkeztuko dute Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren egoitza elektronikoan, zerga indarrean sartzean biltegitratutako produktu mota eta kantitatea zehazteko. Zehazki, adierazpen horretan produktuen sailkapena jaso beharko da, lege honen 64 sexies artikuluan araututako zerga-tasei dagozkien paragrafoen arabera.

Tributuen arloko arau-hauste larria da aurreko aitorpena epean ez aurkeztea edo, bestela, osorik egon gabe, zehaztasunik eman gabe edo datu faltsuak dituela aurkeztea. Zehapena diruzko isun finkoa izango da (500 euro) eta abenduaren 17ko 58/2003 Legearen 188. artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaio.

Hamargarren xedapen iragankorra. Zigarro elektronikoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen likidoen gaineko zerga indarrean sartzean biltegitratutako zergaren xede diren produktuen erregularizazioa.

Zigarro elektronikoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen likidoen gaineko zergari lotuta egongo da zerga hori indarrean jartzen den unean helburu komertzialekin biltegitratuta dauden haren xede diren produktuak edukitzea.

Zergadunak izango dira produktu horien jabeak.

Zerga indarrean sartzen den egunean sortuko da, salbu eta produktu horiek fabrika edo gordailu fiskal baten barruko eteteko erregimenari lotzen bazaizkio.

Aplikatu den zerga tasa 64 septies artikuluan ezarritakoa izango da.

Autolikidazioa 2025eko uztailaren 1etik 20ra aurkeztu beharko da, Ogasun Ministerioko titularrak zehaztutako baldintzetan eta ereduak erabilia.

Hamaikagarren xedapen iragankorra. Zigarro elektronikoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen likidoen gaineko zergari dagokion autolikidazioa aurkezteko epea 2025eko lehen hiru hilabeteetan zehar.

2025eko urtarrileko, otsaileko eta martxoko likidazio aldiei dagozkien autolikidazioak 2025eko apirilaren 1etik 20ra aurkeztu beharko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

Lehenengo xedapen indargabetzailea.

1. Lege honetako xedapen iragankorretan ezartzen denaren kaltetan gabe, legea indarrean sartzerakoan indargabeturik geratuko dira bertan xedatzen denaren aurkakoak diren xedapen guztiak eta, bereziki, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 23ko 45/1985 Legea.
2. Gobernuak Lege hau garatzeko arau bidezko xedapenak onesten ez dituen bitartean, indarrean iraungo dute 1992ko abenduaren 31n indarrekoak diren zerga bereziei buruzko arauak, Legearen edo zerga berezien gaitan indarrekoak diren elkartearen araudi eta zuzentzarauen aurkakoak ez diren guztian.

Bigarren xedapen indargabetzailea.

Indargabeturik geratzen da Tabakoen Monopolioa araupetzen duen azaroaren 22ko 38/1985 Legearen 4. artikuluko 2. atala.

...

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengo azken xedapena. Indarrean sartzea.

Lege hau 1993ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

Bigarren azken xedapena. Aurrekontuei buruzko Legea gaitzea.

Lege honetan ezartzen diren tarifen egitura, zerga tasak, loturarik gabeko izakizunak, salbuespenak eta zehapenen zenbatekoa aldatu ahal izango dira urteroko Aurrekontuei buruzko Legeen bitartez; Lege hauek, era berean, bertan ageri diren moneta-balioak ECUaren trukaneurriaren aldaketei egokitu, NK kodeen erreferentziak eguneratu eta, oro har, Lege honen testua elkartearen arautegiari atxikia mantendu egin ahal izango dute.

Gainera, zigarro elektronikoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen likidoen gaineko zergari dagokionez, urte bakoitzeko aurrekontu-legeek aldatu ahal izango dituzte zerga-tasak zehazteko xede esparrua, kargatutako produktuen definizioak eta epigrafeak.

Beraz,

Espainiar guztiei, herritar nahiz agintari, lege hau betetzeko eta betearazteko agintzen diet.